

Nikolas Zendoia

Odei guztien azpitik





Nikolas Zendoia (Aia, 1941)

Aiako Izeta Erdi baserrian jaio zan 1941eko asieran, Urdaneta auzo inguruan. An bizi izan zan ogei urte bete artean. Azpeitira joanda, amabost urte egin zituen bertan, arotz-lanetan. An ezkondu zan Maria Pilar Eizagirrerekin. Gaur, Zarautzen bizi dira. Lau seme-alaba dituzte eta sei biloba.

Bat-bateko bertsolaria, bi txapel ditu jantziak: 1967an, txapelketa nagusian, Azpeitiko kanporaketakoa; eta 1987an, Aiako bertsolari-leiaketakoa. Finalerdirako sailkatu zan 1989an, Euskal Herriko txapelketa nagusian.

Aitona izateko zegoela asi zan idazten, leenik bertsoak, gero prosa-lanak *El Diario Vascorako*.

Bertso idatziak eta prosa-lanak bilduz, iru liburu zituen argitaratuak, Auspoan: *Beranduko birigarroa*, 1998an; *Egan dijoa*, 2005ean; eta *Sasi guztien gaiñetik*, 2008an.

Onako au du laugarren liburua, au ere bertsoz osatua, bi leenengoak bezela.

Nikolas Zendoia

Odei guztien azpitik

ZENDOIA, Nikolas (1941-)

Odei guztien azpitik / Nikolas Zendoia ; edizio-lanak, Pello Esnal. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia/San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2017.

286 or. : argk. : 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 334)

Aurkibidea

LG SS 623-2017. - ISBN 978-84-7907-763-1

I. Esnal, Pello (1950-). II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes. III. Izenburua. IV. Saila.

821.361-1"20"

Egilea: Nikolas Zendoia
Edizio-lanak: Pello Esnal

Argazkiak:

Ander Gartziandia (Eztiphot): 151. or. (behekoa)

Joxemari Iriondo: 195. or.

Hitza Urola Kosta: 282. or.

Usoz (kontrazalekoa)

Etxekoak: gainerako argazkiak

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

600 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-763-1

Legezko Gordailua: SS-623-2017

Fotokonposizioa: Imanol Tapia

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L., Gudarien etorbidea, 8.
Andoain (Gipuzkoa)

Nikolas Zendoia

Odei guztien azpitik



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ORAIN
GIPUZKOA

Donostia/San Sebastián, 2017

Aurkibidea

Atarikoa	9
Nola daude santuak? (2004)	13
Bigarren gibela (2005).....	16
Billoba Garbiñe eta aitona (2006).....	19
Basatxoritxo (2006)	23
Mandioko eskola (2006).....	27
Au dek, au, jendea! (2006).....	33
Ikasketak eta La Palmera hotela (2007)	35
Euskaldunak munduan (2007).....	40
Espetxean (2007).....	44
Paris, Paris; Kuba, Kuba (2007).....	47
Xape txakurra (2008).....	52
Frai Bitorrekin konfesatzen (2009).....	58
Marteko ametsa (2009)	62
Danboliña (2010).....	69
Txoriak erruki (2010).....	74
Amatxoren billa (2010).....	78
Mari Joxepa eta frailea (2011).....	83
Miriam (2011).....	89
Titi-xorroak (2011).....	93
Vanessa (2012).....	96
Mikelen urteak (2012).....	101
Ogeita amar urteko irratuari (2012)	104
Aitona-billobak tratuan (2013).....	109
Bertso berriak, Basarrik jarriak (2013)	115
Tomasa linpiabotasa (2013).....	121
Ana (2013).....	126
Iñaxio Kariben (2013)	131
Antziñako atsoen parrandie Eibarren (2013).....	136
Urtezaar eguneko parranda (2014)	141
Pitxu il zan gauean (2014)	148
Amona Piririren erleak (2014).....	157

Andrearen bisita (2014)	162
Kixkilla eta Fernando (2014)	169
Errenteriako Magdalenatan (2015).....	172
Neurriko botak (2015).....	178
Balerio dendan (2015)	183
Azukrearen zai (2015).....	188
Okelar (2015).....	193
Nun da trajea? (2015).....	198
Itsu bat dator (1998).....	202
Kupoi baten truke (2015).....	205
Joxean “Zatain” lagunari (2016).....	210
Bizikleta zaarra (2016).....	215
Gaztetako erromeriak (2016).....	219
Azukre-ontzi zaarra (2016).....	266
Amona Sinforosa (2016).....	270
Au ez da berria (2016).....	274
Arantzazuko bidean (2016)	277
Getariako balea (2017).....	281

Atarikoa

Leendik baditut iru liburu plazaratuak Auspoa bilduma onetan, artean Antonio Zavalala bizi zala: *Beranduko birigarroa* (1998), *Egan dijoa* (2005) eta *Sasi guztien gaiñetik* (2008). Bi leenengoak bertsoz osatuak dira; irugarrena prosaz.

Oien senidea da laugarren au. Au ere bertsoz osatua. Izenburua asmatzen ez zegoen zailla. Baiña orretarako urteei pasatzen laga bear.

Emengo bertsoetan danetik dago. Batzuk, an-emengo sariketetara bidaliak ditut. Sarituak ere badira tartean; saritu gabeak ere bai; auek geiago. Beste sorta batzuk etxerako eta lagunarte-girorako egin nituen. Auek beren saria badute: umorearen saria gutxienez, eta ez da txarra. Nere idazlanetan, umore-puntuaren islada zaindu nai nuke.

Azkenean, bertso danak kajoitik atera, autsak kendu, urtez urte zerrendatu, azalpen txiki bana jarri... eta onatx atera zaidan alea.

Uxatuko det eta dijoala, odeien azpian barrena.

Danak batera ikusita, naiko uzta koloretsua osatzen dutelakoan nago. Norberak esan bear, ba, beste iñork esango ez badu ere. Irriaren billa ibili naiz, tristuratik ieska...

Pausoz pauso joan naiz
aritik arira.
Mantxo ta ziur ari,
au komeni da.
Ola bidaiatu det
odeien azpira,
ostartetik sartzen dan
eguzki-argira,
euskal barrutira,
euskera garbira.
Bertso-sortak dira
aal dedan neurrira.
Obe, zuen gustoko
baldin badira.

Berdegunean erein
det azia arin.
Jorraeraz zaintzen da
jardiña jardin.
Neguan loreren bat
sortzen bada baldin,
aitzurrean aritu,
danak zer atsegin!
Badet naiko adin,
baiña saia nadin.
Lorea sor dadin,
ai zenbat aalegin!
Liburuxka gaztea
nai nuen egin.

Bizitzeko poza ta
bizitzeko kezka
adin batetik gora
datoz gainezka.
Bagoaz aolkatzen,
bagoaz galdezka,
danok dakigu zer nai
degun ta zer eska.
Ez noa ieska.
Menga, mutil, neska,
ainbeste ere ez da,
jar dezagun festa,
umorez betetzeko
bertso-orkesta.

Aurrez esker on, bertsozale. On dagizula. Bitartean, birigarroa badijoa bosgarren kabiaren billa.

Zarautzen, 2017ko martxoaren 19an.



Aiako Urdeneta auzoko San Martin eliza polita,
bertso auetan aipatzen ditudan santu zaarren etxea.

Nola daude santuak?

Gure Aiako Urdanetan, 2004ko udaran, bazkari erriko bat antolatu zan txanponak biltzeko, Pagoeta mendiko eguna aitzakia artuta. Pelotalekua bete bazkaldar, mendibuelta eginda, bertsolari, bertsozale, txikitixa eta txistulari. Zertarako txanponak bildu? Gure San Martin eliza zaarra berritzeko: guk mutikotan ainbeste ez tul egindako eta ainbeste errezatutako eliza konpontzeko.

Erri-bazkari egunerako nere lana zan elizako santuen egoera kantatzea. Onatx.

Doiñua: *Iparragirre abilla dela*

1. Eliza berritzea dala ta,
nik ere parte artu nai.
Ta batez ere gure santuak
nola daude? Auxe det gai.
Burua jiratuta,
oiei begiratuta,
batek esango luke, ai,
eliza parregarri dagola,
baiña santuak ere bai.
2. Errosaioko Ama Birjiña
ere or ageri zaigu.
Besoan daukan aurtxo txikia
gajoak nai luke zaindu.
Azpia ia-ia
daduka eroria,
baiña goian egon nai du.
Berrikuntzarik ez baldin bada,
gaixo orrek ere jai du.

3. Eta Jesusen Biotza, berriz,
 ortikan onerakua.
 Gizajo orri falta bait zaio,
 bere eskubiko eskua.
 Nork kendu ote dio?
 Ni ez naiz oso fio.
 Eta ez da bidezkoa.
 Kosta ala kosta egin bearko
 diogu egurrezkua.

4. San Isidro ere ortxe daukagu
 guztiz begi-larrituta.
 Ez naiz arritzen, kejaren batzuk
 ere izango ditu-ta.
 Arrazoi du berorrek,
 aspaldian inorrek
 ez baitu paseatuta.
 Aireatu bat eman daiogun,
 premia izango du-ta.

5. Erretaularen goiko aldean,
 patroi zaarraren kaiola.
 Gure San Martin antxe daukagu
 pipi-autsa dariola.
 Botikaren batean
 pasatu bitartean
 egongo da ori ola.
 Leiotik sartzen dan saguzarrak
 pake eman dakiola.

6. San Anton motxa ere ara or,
bosteun urteko autsekin.
Ez dakit ziur nola dagoen:
tunika edo galtzekin.
Bere bizibidea
eta bere fedea
zuen animaliekin.
Itxurosoen berori dago,
bere txerri txikiekin.
7. San Praixku zaarra ere or degu
txoko ezkutu batean.
Aitaguretxo bat jaso gabe
joan dan larogei urtean.
Txapel eta kordoia,
bietan du erdoia,
dago ezker paretean.
Baiñu bat eman ta jar dezagun
bi pilareen tartean.
8. Leen fedea esna zegoen,
orain dago erdi lotan.
Alan da ere gera eliza
eraberritu asmotan.
Egin nai det galdera
zuek danon aurrera
azkeneko bertso ontan:
santu egiteak merezi al du,
orrela egotekotan?

Bigarren gibela

Urte artan –2005ean–, onako bertso-sorta au bidali nuen Errenteriara.

Zapirain Anaiak izeneko bertsopaper-leiaketa egiten dute urtero, eta ni ere saiatzen naiz bidaltzen neure ale-txoak, naiz eta nere bertsokera ez dan gaurko gazteen era-koa. Baiña or aritzen naiz gerra ematen.

Urte artako bigarren saria jasotzera pozik joan nintzan Errenteriara, Santo Tomas egunean. Bai arraioa!

Doinua: *Eguzkien argia* (1-3; 5-7. bertsoetan),
Ibiliko gera elkarri kalte eginaz (4. eta 8.etan)

1. Zer nuen? Baiña zer nuen?
Ez nintzan ongi billatzen,
tristura ta naigabeak
asiak ziran pillatzen.
Sendoa neukan gorputza
pixka-pixkaka iartzen,
eriotza isil ura
zebillen ni gonbidatzen.
2. Lur jota geratu nintzan
zergatik ez nekiela,
eskerrak bi sendagille
errukituak zirela:
“Ui, ui, ui, ene andreto,
galdua dezu gibela”.
Txertaketa baten bidez
bizi izan naitekeela.

3. Egonaldiak egiten
nituen erietxean,
aulezi aldi aietan
ezin nuen bakoitzean.
Batek asko sufritzen du
buruan ta biotzean,
eriotzaren edota
biziaren zain jartzean.

4. Luzaro zai egonik
eman zidaten berria:
nai banuen bazutela
gibel berri-berria,
naiz ta izan zitekeen
ebakuntza bat larria.
Baiña edozertarako
prest nengoen jarria.

5. Eman nuen familian
ebakuntza-albistea.
“Agur, bai, maite guztioi”,
ura bai zala tristea!
Maai gogor baten gainean
nere begiak ixtea...
Gertatu zitekeena
zan geiago ez piztea.

6. Ebakuntza-gela artan:
“Baiña aizue, aizue,
balio duen gibela
jarriko al didazue?
Kordea galtzen ari zait
eta esan zaidazue:
norena da?, nork eman du?,
nori kendu diozue?”.

7. Maitagarria izan zan
medikuen portaera:
gorputz-zati bat txertatu
bizi batetik bestera.
Ongi etorri, gibela,
zure bigarren etxera;
badezu nigan ostatu,
goazen elkar bizitzera.
8. Ni naiz eriotzaren
ate-atean nintzena.
Ni naiz suertez lortua
bigarrenko kintzena.
Ni naiz lau aurren ama,
Arantxa nere izena,
gibel etorkin batekin
pozik bizi naizena.

Biloba Garbiñe eta aitona

Garbiñek aitonari adierazi nai, ba, erretzea galarazi zutela leku itxietan: ostatuetan eta abar.

Gajoak ondo esanean artu bazuen ere aitona, ez ziztaion nai bezain xamurra atera aitonarekikoa egitea. Ulertzekoa da: larogei urtean bizi izan duena nola baztertuko zuen, ba, lege berria atera zutela eta?

Baiña, gaur begiatuta, ez dago gaizki jarri zuten legea.

Gallastegi zaarari galdetu ezker, zer erantzungo ote luke bere larogea emeretzi urterekin, pelotalekuetatik purua kendu dala eta?

Doiñua: Norteko ferrokarrillarena

1. Garbiñe: Bi milla ta seigarren urtea
aldakuntza dariona:
batzuentzako zoritxarra ta
besteentzat zoriona.
Erretzaillea dan orri a zer
arria datorkiona!
Telebistatik esan dutena
entzun al dezu, aitona?
2. Aitona: Kaixo, Garbiñe, zer zekarren ba
asi dan urte berriak?
Erretzailleak geranontzako
nundik zatozan arriak?
Seguruenik igo dirala
tabakoen salneurriak.
Neureak erretzen dizkiñat nik,
ez dendatik ekarriak.

3. Garbiñe: Ez, aitona, ez, lege berria
eldu da arre ta arre:
lagunarteetan tabakorik
iñork ezingo du erre.
Goitik datorren agindua da,
ez zaitez jarri aserre.
Orrek onura bakarrik dakar,
txarrik ez dauka ezerre.
4. Aitona: Zer arre eta zer iso gero!
Legeak beti biraka.
Geure denboran erreak gaitun
makiñatxo bat pipaka;
lagunartean gaudela, berriz,
banaka eta biñaka...
Ta orain asi bear al diñat
pipa utsari tiraka?
5. Garbiñe: Ai, aitonatxo, agerian da:
ez zera ulertzeko gai.
Gizarte-segurantza dago or,
gauzak ez dira nolana.
Ez zintuzteket ikusi naiko:
“ez nagon ondo, ai!” ta “ai!”.
Gastua gutxiago zenuke
eta eztula ere bai.
6. Aitona: Iaz tabako-orri galantak
azi nizkiñan baratzan,
ta mandioan iartzen jarri
zintzilik eta balantzán,
noizbait patxadan pipa zaarrean
erretzeko esperantzán...
Aiek alperrik galtzen baditut,
Judas asiko den dantzán.

7. Aitona: Jaietan meza nagusitara
 pozik joaten nindunan,
 gero ostatu txiki batean
 aitonok geren bilduman,
 etxeakoandreak salda beroa
 txukun zerbitzen zigunan...
 Pipa erreaz kontu-kontari
 antxe egoten gindunan.
8. Aitona: Larogei urtetik irurogei
 erretzen zeramazkiñat,
 ta onezkero arroa batzuk
 kiskaliak badizkiñat.
 Baiña kontuak ola badira,
 zer egin ba al zekiñat?
 Bizitza moztu egingo zaidan
 pipa lagatzen badiñat.
9. Garbiñe: Lasai, aitona, ez zazu artu
 orrenbeste buruauste.
 Zaartzaroaren kaltean-edo
 izango danik ez uste.
 Meza ondoko marmarraldia
 berdin egingo dezute.
 Ango partea erre etxean,
 uzten baldin badizute.
10. Aitona: Petaketatik tabakoz bete
 pipa zaarraren zokoak,
 tximiniaren pare sudurrak
 kearen pupatekoak,
 salda beroa Riojarekin,
 bapo gorritu mokoak...
 Mezak ainbeste balio ziñan
 gure meza-ondokoak.

11. Aitona: Adin zaarrean ez den samurra
lege berrira jartzea,
baiña, Garbiñe, eskertzen diñat
nigatik arduratzea.
Ta neure esku laga akidan
erabakia artzea:
bizitzearren ez bizi edo
iltze arren bizitza.

12. Garbiñe: Jesus, Maria! Baiña noraiño
pentsatzen zaude, gizona?
Erdi txantxako izketaldia
ez al da ba gu biona?
Gauzak serioegi artzea
ere ez da nunbait ona...
Zatoz ta besarkada aundi bat.
Maite zaitugu, aitona.

Basatxoritxo

Bertso-sorta oni irugarren saria eman zioten, 2006an, Lazkao Txiki bertsopaper-leiaketan, Ordizian.

Txomin Garmendiak esan zidan bein:

–Goizean ondo gosalduta umore ederrean paseora ateratzen bazera, gauza politak bururatzeko ez da ordu-garai txarra.

Eta ni fede artuta nabil geroztik Garmendiaren esaldiari. Begira, bestela, basoz baso nindoala bururatutako bertso-sorta oni.

Doiñua: *Loreak udan intza bezela*

1. Bi milla ta sei maiatzak iru,
Santa Krutz egun epela,
mendi aldetik basobide bat
zearkatuz nenbillela,
kukua gogor ari zan bertan,
uste det lagun nuela,
kirkirrek ere baziruditen
goiz artan asi zirela.
2. Orra enara azpi-txuri bi,
bai egalari mantxoak!,
zeiñen ederki biltzen dituzten
belatzetako eltxoak.
Naiz ez ditugun iñoiz ulertu
beroiien txio-mintzoak,
txori etorkin batzuk dira ta
maita ditzagun gaixoak.

3. Baiña zergatik noa presaka?
Ta zergatik ez patxadan?
Gaur bizi dedan au bizi gabe
zenbat denbora pasa dan!
Ta zerengatik ez dakidala
naizen ezkerreko pasaran,
ikus-entzumen zoriontsu au
geldiro goza dezadan.
4. Xoxokumeak ere or dabiltz
sastrakatik sasartera,
lumaz osatzen eta edertzen
egunetik egunera,
euren leenengo egalditxoak
batera eta bestera...
Azeriren bat eldu baiño leen
zoazte zuaitz gainera.
5. Lar-puntetatik lar-puntetara
ainbat tximeleta gazte
agertu dira eguzki-printzek
iintza xurgatu ta laste.
Baiña zergatik urrutiratu
bikote bat edo beste?
Jira-biraka gora ta gora
nora ote dijoazte?
6. Gaur badaukat, bai, zer ikusia
ta badaukat zer entzuna.
Bada ementxe pago ta aritz,
gaztain, urki ta lertxuna.
Goi-adarretan birigarroa,
ark ari duen jarduna!
Nor du entzule? Pakea eta
zuaitzen isiltasuna.

7. Basatxorien paradisuan
nabil amets gozoetan,
okillen kantu-otsa *kol, kol, kol,*
ara beeko basoetan.
An ariko da zuaitz-buruan
betiko arotz-lanetan:
zulo borobil bat egingo du
ta gero kabia bertan.

8. Kardantxilloak ere badatoz
maite duten lizarrera.
Naiko urduri mugitzen dira
adarretik adarrera.
Kabiaren bat izango dute;
kumetxoekin, gaiñera.
Mutil koskorra banintz, igoko
nintzake lizar gaiñera.

9. Baiña lurrean txori txiki bat,
ezin du egan jarraitu.
Kardantxilloen urduritasun
guztia orra argitu.
“Ez dizut inoiz miñik egingo,
lasaitu, txiki, lasaitu.
Orduz baiño leen egatu edo
aizeak bota al zaitu?”.

10. “Ez ikaratu nere eskuan,
kardantxilo polit ori.
Jasoko zaitut lizar-burura,
giza maitasuna tori.
Luzaro izan bear dezu zuk
baso auetako txori.
Lurrean mamu asko dago-ta,
ez zaitetz berriz erori”.

11. Ume-garaiko oroitzapenak
ditut goiz ontan jasoak,
bizpairu orduz aaztu ere bai
bizitzako arazoak.
Gure zuaitzen isiltasuna
gorde dezala basoak,
pake-pakean kanta dezaten
birigarro ta xoxoak.

Mandioko eskola

Bertso-sorta au ere Erreterian saritua izan zan, Zapirain Anaiak bertso-paper-leiaketan. Leen saria eman zitzaion, gaiñera, oso aspaldiko oiturak argitaratzen nituelako, eta abar. Orrek esan nai du ni ere aspaldikoa naizela.

Baiña, tarteka, bertso-sortaren baten aipamena iristen zaizunean, zintzo jarraitzeko gogoia sortzen dizu.

Kasu onetan, amonari zuzentzen dizkiote galderak lau billobak. Artean, jaio gabeak ziran bixkiak. Aitonak pozik idatzi zituen galdera-erantzunak.

Doiñua: Txomin Artolarena

Edgar: Amona, nungo eskolara joan ziñan,
 txikia ziñanean?

1. Ene maitea, a zer galdera,
 Jainkoaren izenean!
 Izan genuen, bai, eskola bat,
 baiña oso urrunean.
 Ordu-erdiko bidea mendiz,
 ta leenengo egunean
 an joan nintzan amonarekin
 egundoko afanean,
 baserri txiki polit batera
 sei urte nituenean.



Itziarko Irure baserria, gaur. Garai batean, eskola zuen mandioan.
Maisua, Prudentzio Egiguren "Artañola", maisu errena eta bertsolaria.
Eskola orretan ibili zan, 1955etik 1960ra, Maria Pilar Eizagirre neskatoa,
gaur emazte dedana. Zazpi urterekin asi eta amabi bete arte,
naiz eta bertsotan esan sei urte zituela asi zala.

2. Amar bat neska-mutiko giñan,
musu-gorri, begi-bizi,
geienok muki-jario baiña
iñor ez geunden itsusi.
Maisu erren bat an agertu zan,
bere bastoi eta guzi.
“Nundik zatozte?”, “izenak nola?”,
galdeketa leendabizi.
Errezildarra omen zan bera.
Geroztik ez det ikusi.

Adriana: Amona, nolako eskola zan?

3. Baserriaren mandioa zan,
maai aundi borobilla,
eserlekuak aulki xaar batzuk
ta maisuarena silla.
Orma batean pare bat leio,
ez kristal, ez maratilla;
beste aldean belar mordoa
ta erremolatxa pilla,
aitona oker bat arotz-lanetan
konpontzen gurdi-gurpilla.
4. Txakur txikia zenbat alditan
maai azpian lokartuta,
oillaloka're bere txitekin
noiznai mandioratuta.
Komun antzeko bat ere bazan,
zertxobait ezkutatuta;
ukuillutikan gora aizea,
zurrunbillo biur-tuta...
Andik sarritan atera giñan
ipurditxoa oztuta.

Irantzu: Amona, zer liburu zenituzten?
Zintzoa al zan maisu errena?

5. Leendabiziko bi liburuxka,
Jesus-a eta katona;
ta *Historia Sagrada*, berriz,
kontu zaar asko ziona;
gero *Lecturas* izenekoa,
lodia bezain sakona;
Musalenen manuskritoia,
euli-kaka zeriona...
Baiña dotriña kristianoa
zan danetan seriona.
6. Maisu errena ez zan gaiztoa,
Prudentzio Artañola.
Gogoan daukat danok "Prontxio"
deitu izan geniola.
Bertsotan ere asten zitzaigun,
aizea nundik ta nola.
Baiña umerik sekula santan
ez zuen joko iñola.
Ori bai: gero tragoxka batzuk
gogozko zitzaizkiola.
7. Ezpain-soiñua jotzea ere
gogokoa zuen, tira!
Tiribiribi asten zanean,
danok mandio erdira,
ankak burutik gora jasoaz,
zenbat salto, ainbat jira,
nagusia ta etxekoandrea
eskailburutik begira,
biurtu izan genuelako
eskola erromerira.

Jokin: Amona, eta errekreoa?
Eta ez zintuzteten zigortzen?

8. Errekrea izaten zan, bai,
goizez amaikak aldera,
maisua beera jeisten zanean
salda beroa artzera.
Ordu-erdira igo izan zan,
batzutan ordubetera.
Bitartean ez genuen galtzen
jolaserako aukera.
Baiña beingoan ez zitzaizkigun
gauzak ain ondo atera.
9. Goiz batean bi antxume sartu
zitzaizkigun mandiora,
erremolatxa jatera edo
gurekin errekreora.
Aien brinkoak ta kaka-aleak
maai gaiñetik edonora,
gure liburu ta tinteroak
joan ziran ipurdiz gora...
Gero leiotik saltatu zuten
etxe azpiko sorora.
10. Prontxio gora zetorreanean
beeko sukalde txokotik,
galdetu zuen: "galerna edo
trena pasa al da ortik?".
Mutillei tira belarritatik,
ta neskei, berriz, moñotik,
belauniko ta beso-zabalik,
bat bestearen ondotik...
Esku banatan erremolatxak
jarri zizkigun pillotik.

11. Bera eseri silla aundian
ta ekin zion bertsotan.
Irugarrena kantatzerako
geratu zan erdi lotan.
Txakur txikia ere urduri:
“zer gertatzen da goiz ontan?”,
ta gu ez geunden zigor azpian
luzaro egotekotan...
Isilka ospa egin genion.
Ez zan ajerik zangotan.
12. Orduan neska koxkor, mutiko
giñenak gaur aiton-amon.
Geroztik joan zaizkigu ainbat
egun eta biaramon.
Beste alako eskolarik nik
ez det ezagutu iñon.
Lotsarik gabe Internetetik
ager daiteke edonon:
uve bikoitza iru aldiz ta
mandiokoeskola.com.

Au dek, au, jendea!

Eiztari-talde ark beti esaten zidan:

–I, ez al gaituk bisitatu bear Soriako mendiko bordan? Datorren astetik an izango gaituk, Pilariketan. Usoei tiro batzuk bota eta... Bertso batzuen truk, mantenua eta lotarako kamaiña ziurtatua daukak.

Pakeak geiago balio zuela-eta, ausartu nintzan joaten egun pare bat pasatzera.

Egia esan, egundoko giro sanoan pasatzen dute uso-pase garaia. Sukaldari, mediku eta nor ez dute tartean?

Ez egunero bertsoan baiña, beren jokabideak ikusiaz gain animatuta, bi bertso auek laga nizkien tximiniaren ondoan zintzilik, papertxo batean.

Doiñua: Anaiak gara lapurditarrak

Joanitorekin asi bear det
bat buru izendatzeko,
norbaitek bear izaten baitu
errespetoa jartzeko.
Joxeantonio zai egongo da
danei adarra jotzeko.
Pako motxa ere, Judas txiki bat
ta beti santu-antzeko.
Jabier ere ez daukazue
otsoeri barkatzeko.
“Sebas, Sebas!”, esnatzeko,
jan eta lo ez artzeko.
Ta Fernandoren aots gozoa
zenbait ekaitz baretzeko.
Joxeanekin ibili kontuz:
kapaz da borda saltzeko.

Agustin ere korajetsua
auengana etortzeko,
ajola aundirik gabea noski
milla tiro tiratzeko.
Joanjo pronto dago upela
kamioian ekartzeko.
Ta Estebanek semirriflea
erosi auntzak iltzeko;
obeto esan, ikaratuta
urrutira bidaltzeko.
Daniel danak zaintzeko,
kolesterolak neurtzeko.
Rufino zai-zai aker edo auntz
eltze beroan sartzeko.
Fraile bat falta zaizue orain
pekatuak barkatzeko.

Ikasketak eta La Palmera hotela

Ikasketak ondo zeramatzala-eta, badaezpada ere, nolabait aitarekikoak egitea komeni zitzaiola iruditu zitzaion, ba, seme ari ere. Eskatzea libre da. Baiña ortik aita bera ere oporretara joateko prest jarraraztea, ño!, bada or meriturik.

Au askotan ez ote da gertatzen: gazteak oporretara, eta aita eta ama elkarri begira? Guk zer arraio egiten degu?

Doiñua: *Ni naiz palankaria*

1. Semea: Aita, beteak ditut
 ogei urte lirain,
 ikastaro-kurtsoa
 gainditu det bikain,
 karrera-liburuak
 aztertu azpi-gain,
 bekak ere badatoz
 urrengorako lain...
 Oporraldi lasai bat
 komeni zait orain.

2. Aita: Motel, guztia entzun
 diat adi-adi.
 Ain albiste politik
 ez nian aspaldi.
 Begira: saiatzeak
 egiten dik argi.
 Bai, bai, irabazi dek
 zenbait oporraldi.
 Udara bazetorrek
 ta lasaitu adi.

3. Semea: Kurtsoaren amaia
ekaiñaren bata,
nota onenen deia
jaso nuen data.
Aita, eman zenidan
asieran lata:
“gainditzten badek, egin
bidaia galanta”,
gastuak ordainduko
zenizkidala-ta.
4. Aita: Bearbada arrazoi
uen bertso ortan:
nolanai itz egiten
dedala askotan,
pentsatu gabe edo
kunplitu asmotan.
Gaizki-ulerturen bat
ote gu biotan?
Esan banian, esan,
ez engoen lotan.
5. Semea: Aita, seme ta lagun
beti nola geran,
argatik portatu naiz
zintzo baten eran.
Saia ala ez saia
or neuzkan aukeran.
Menorcara joateko
zer jakin nai dedan?
Emandako itzaren
jabe ote zeran.

6. Aita: Bai, kurtso asieran
jo uen erronka
gaindituko uela
aurtengo borroka.
Ez diat itzik jango,
egin daigun topa.
Orain euk erabaki,
aukera dek, Gorka:
nai badek Menorca ta
nai badek Mallorca.
7. Semea: Bai, baiña entzun, aita.
Esan nai det zera:
ez naizela bakarrik;
neska ta ni gera.
Egazkin-txartelak bi
mesedez atera.
Ez gera joango leku
garesti batera.
Lau izarrekoa da
Hotel La Palmera.
8. Aita: Kristona bota didak,
Gorka, oraingoan.
Joño, joño! Bakarrik
ezin al aiz joan?
Ulertu naian-edo
nijoan, nijoan.
Auxe ikusten diat
nere gizajoan:
karrera azkarregi
ez ote dijoan.

9. Semea: Badakit ulertzeko
bazerala gai ta
gure konfiantza au
ez al da polita?
Laga bear zenuke
leengo aiten pinta,
degun artu-emana
oraingoa baita.
Aita, nik ez nuke nai
aspaldiko aita.
10. Aita: Menorca alderdian
Palmera hotela,
buffetean aukeran
arrai ta okela,
ongietorriaren
betiko koktela.
Bearko dituzue
beste bi logela...
Gastu aundi samarrak
zatoztek orrela.
11. Semea: Ikasketak, praktikak,
lan biak batera
egiñaz daramakit
nik nere karrera.
Gastu aundiegirik
ez dedin atera,
bi logela oiena
bada arabera,
bakarrean nolabait
moldatuko gera.

12. Aita: Mundua irekia
 danez guztiontzat,
 ori artu bearra
 zegok aintzakotzat.
 Ire aita juzgatzen
 badek oraingotzat,
 bigarrenko logela
 ar dezagun ontzat,
 aspalditxoko partez
 ama ta biontzat.

Euskaldunak munduan

Urepelen, urrian urtero, Xalbador aundiaren omenez egi-ten duten jaialdian, 2007an bertsoaper-leiaketa ere antolatu zan. Zuzendariek gai au kaleratu zuten, bertsoak idatzi nai zituztenentzat: “Euskaldunak munduan”.

Xalbadorren babesean izango zirala-eta, nik ere neure sortatxoa bidali nuen. Ez zitzaidan damutu. Bigarren saria nuela esanaz deitu zidatenean, umea jostailu berria artu-takoan bezela sentitu nintzan.

Doñua: *Lagundurikan danoi*

1. Karta bat uxatu zan
Baxenafarretik,
euskeraz idatzia
artzaien lurretik,
euskal iparrorratza
zuela aurretik,
itzulpen-elbidea
Urepel beretik...
Erantzun zezatela
mundu zabaletik.

2. Australiatik dator
leen erantzuna:
Melbourne aldean dan
talde ezaguna,
eraikuntza-lanetan
beteaz eguna
ta baso-mutillekin
maiz bertso-jarduna,
an ere badutela
mundu euskalduna.

3. Erresuma Batutik
ere albisteak
badatozkigu eta
ez dira tristeak.
Euskal ostatuetan
dabiltzan gazteak
Baxenafar aldeko
karta iristeak
zenbat poztu dituen
lan du sinisteak.

4. Norabideetako
bat Ameriketa,
Txile aldetik ere
badatoz bi letra.
Aspaldi joandako
Tomas eta Petra,
Iriondotarrak' e
bertan dira eta...
Euskaldunen munduan
euskal berriketa.

5. Ta Argentinan, berriz,
bertako Panpetan,
zenbat euskaldun diran
ainbeste urtetan,
Pedro Mari Otaño
dagoen lurretan,
bai Santa Rosan eta
Buenos Aires bertan...
Emengo abizenak
leku geienetan.

6. Macachinen daukaten
Euskal Etxe artan,
irakurriko zuten
zer zioen kartan.
Urtemugaren berri
zijoanez bertan,
badakit, bai, zer amets
egin duten bart an:
gu bezela daudela
Xalbadorren faltan.

7. Peñagarikanotar
sendia ere an da,
berrogeita amarrean
emendik joanda.
Joan Joxe tratantea
zendu berria da
ta Maria eungarren
urtemugetan da,
okindegi zaarrari
eskuak emanda.

8. Ara, berriz, Txinatik
neskatxa Ainarak:
eraman dietela
mezua enarak.
“Emen ere lekua
badauka euskarak.
Sentitzen ditut zuen
biotzen taupadak.
Zoriontzen zaituztet,
baxenafartarrak”.
9. Mezua uxatua
zanez urrutira,
erantzunak lurralde
askotatik dira.
Ai, goi-airetik ere
iritsi balira!
Karta gaixoa ezin
joan illargira.
Galdera bakarra da:
Xalbador, nun zira?

Espetxean

Garai artan, albistegietan zabaldu zan: semea espetxean zeukan amak bere buruaz beste egin zuela etxean.

Ez atsegiñak diralako olakoak, baiña lapitza eta papera artzen ditugu, gertaera auek erritarren bistan gera ditezten.

Presoaren lekuan, sentipenak agerian jartzen saiatu naiz.

Doiñua: *Lagundurikan danoi*

1. Karta bat iritsi da,
neretzako bera.
Eskuz pasa didate
ziega barrenera.
Azalean “urgente”
bere etorrera.
Ama, berriro ere
zu izango zera.
Ez, ez. Aitarena da.
Zer pasa ote da?
2. “Seme, etxean gauzak
okertu zaizkiguk.
Bizitzak une latzak
eskeintzen zizkiguk.
Baiña zer egin ote
diagu gaizki guk?
Danetan aundiena
orain pasa zaiguk:
amak bere buruaz
beste egin ziguk”.

3. Ez, ez, ezin daiteke,
amatxo laztana.
Bazenekien-eta
laster or nintzana.
Ezin al zenuen, ba,
jasan nere zama?
Maite ninduzulako
gertatu dan drama!
Guztiaren errudun
sentitzen naiz, ama.
4. Ogeita lau urte ta
ziegaren laiotza.
Ama, orrek eragin
dizu eriotza.
Neurea gutxi balitz,
au berri mingotsa!
Nigatik joan zaizu
lepora aiotza.
Neu ari naiz zulatzen
neronen biotza.
5. Burmuiñak dauzkat ia
korapillo naasi.
Naigabeen borroka
ezin irabazi.
Eriotz zigorrera
ama bultzarazi.
Nere iparrorratza
joan da iesi,
eta orain ez dakit
zertarako bizi.

6. Inun salbatzaillerik
 bada, adi beza.
 Egoera gazi au
 biur bedi geza.
 Orain zertarako det
 irteteko presa?
 Azkarrago izan da
 amaren iesa.
 Galdu det itxaropen
 guztien babesa.

7. Zigorra betetzeko
 geroz gutxiago
 geratzen zaidanean
 naiz zigortuago.
 Espetxea biurtu
 zait espetxeago.
 Ama, barka zaidazu.
 ezin det geiago.
 Edozer egiteko
 neu ere prest nago.

8. Atera banaiz ere
 seme txepelena,
 espetxetik bidali
 nai dizut omena,
 izan zaitudalako
 amarik onena.
 Emen irentsi dedan
 sufirimendu-pena,
 zortzi bertsoan orman
 idatzi det dena.

Paris, Paris; Kuba, Kuba

Berriro ere, Errenterian aipamena izandako bertso-sortarekin nator. Zerbait lortuko bada, ari eta ari egin bear.

Adiñeko senar-emazteen artean erabiltzen diran kontuak datoz ondorengo bertso auetan. Eta arrazoi emango didazue, Peru eta emaztea.

Doiñua: *Amerikara joan nintzan,
xentimorik gabe*

1. Senarra: Eroski Bidaietan
garai bakoitzean,
merkealdien eskeintza dago
uve bakoitzean.
Kontxo, kontxo,
mugi, amonatxo!
Aireplanoan ibili gabe
gaude aspalditxo.
2. Emaztea: Txantxetan al zabilta
edota egitan?
Ni joateko prestatuko naiz
ta ez esan bitan.
Nora, nora:
beera edo gora?
Ea aitzaki gutxiago dan
etxetik kanpora.

3. Senarra: Berrogei urte dira
ezkondu giñala.
Gogoratzen naiz orduan oso
polita ziñala.
Luisa, Luisa,
bidaiari gisa,
izkuntza jakin bagenu joango
giñake Parisa.
4. Emaztea: Moldatuko giñake,
ez zazula pentsa.
Nik beintzat gutxi edo geiago
badakit frantsesa.
Paris, Paris,
ametsetan gabiltz.
Naiago nuke gezur au egi
biurtuko balitz.
5. Senarra: Baldin badakizkizu
“merci” eta “madame”,
“allô, allô!” ta edozein ate
joko degu *dan-dan*.
Goazen, goazen,
oker edo zuzen.
Ea guk ere egiten degun
frantsesez Parisen.
6. Emaztea: Egia da, bai: “por ahí”
ez gera maiz joan.
Beingoz egitan ea irteten
zaigun oraingoan.
Arrigarri:
“bai” ta “bai” elkarri.
Itz egitea nik egingo det,
zuk dirua jarri.

7. Senarra: Beste leku bat ere
badabilkit dudan:
Parisen baiño martxa geiago
omen dago Kuban.
Parra-parra
olatu-aparra.
Urte osoan uda-giroa
dan irla bakarra.
8. Emaztea: A zer txoroaldia
etorri zaiguna!
Zein euli aundi izan ote da
zizt egin diguna?
Lara, lara!
Bagoaz gu ara:
leendabiziko Parisa eta
urrena Kubara.
9. Senarra: Benidorm berak ere
Alikantekoak
ba omen ditu hotel bitxiak
bost izarrekoak.
Fiñak, fiñak
ango eraikiñak,
berrogei solairukoak eta
kristalez egiñak!
10. Emaztea: Benidorm gertu dago,
goazen urrutira.
Guk ere eman bear diogu
munduari bira.
Kuba, Kuba,
zertan egin duda?
Erosi ditut dozena-erdi
baiñujantzi-muda.

11. Senarra: Baita ere polita
omen da Ibiza.
Nun ote degu diru-txartela,
nun da gure Visa?
Baiña, baiña
aizu, poxpliña,
nola sortuko ditugu sosak
danerako aiña?
12. Emaztea: Ara, ara berriro
aitzakitan zera.
Utsa, kruzero bat izan balitz
Egipto aldera.
Peru, Peru,
ezetza al degu?
Nilo ibaia gurutzatzeko
prestuak gaude gu.
13. Senarra: Paris, Kuba, Benidorm,
Ibiza ta Nilo,
Zu oso esna ikusten zaitut,
bitartean ni lo.
Pistaz pista
argitu det lista.
Eta zergatik jartzen zera zu
danerako "lista"?
14. Emaztea: Ai, banengoen ba ni
ainbeste bisita
nola egingo genituen guk
Paristik asita!
Ta nik, ta nik,
musuak emanik,
ia-ia dana sinistu nuen
tuntuna izanik.

15. Emaztea: Urrezko ezteietan
gertatu bagiña,
seguruenik jasoko nuen
porrota berdiña.
Orra, orra,
mekatxis la porra!
Ni banijoa Kubara eta
zoaz Benidorra.

Xape txakurra

Bertso auek ere bidaltzen nituen leiaketa guztietara. Bate-tik, bertso politak diralako eta, bestetik, auzoko lantokia-ren atariko txakur zintzo eta asko maite nuen ura sarituta ikustearren.

Egia esan, etxeko txakurrei baiño kariño aundiagoa nion berari. Askatzen zuten bakoitzean, zirrikituren bate-tik pasa eta bisitatzen ninduen, lanean ari nintzan lekuan, zerra ondoan. Bazekien bai norengana jo, bokadillo-erdia-ren billa. Ai, Xape, Xape!

Doiñua: Betroiarena

1. Bazan zakur zintzo bat,
aldamenekoa,
lantegiaren sare
bestaldekoa,
bera ere lantoki
baten atekoa,
ardi-zakur arraza
bete-betekoa,
isats luzekoa,
tximaz antzekoa,
katean lepoa,
atezain petoa,
marroi argia, Xape
izenekoa.

2. Gutxienez amaika-
amabi urtean,
egona izango zan
Xape katean,
ormari jositako
kable mee batean,
aruntza ta onuntza
lantoki atean,
pentsua potean
ta ura bestean,
langille tartean
sei egun astean...
Beretzat ez zan jairik
larunbatean.

3. Langille baten pare
eduki zuten au,
betetzen zuelako
ainbeste arau.
Orain bere utsunak
oroitarazten nau.
Xape, betiko loak
babestuko aal au!
Bijili ta barau
egindakoa lau;
ala ere, ri-rau,
prest egun eta gau.
Iru zaunkakoa zan:
beti uau, uau, uau!

4. Emetarako ere
naikoa erabe,
lotura ta ixtura
zituen abe.
Askatasun geiago
izan balu obe,
gizajoa biziko
zitekeen doble.
Arrotzari trebe,
auzoei xuabe,
talaian goi ta bee,
zainketaren jabe...
Bazekien zer egin
agindu gabe.
5. Iñoiz irteten bazan
saretik kanpora,
laster urbilduko zan
nere ondora;
esaten dan bezala,
auzotik auzora.
Zerbait ematen nion,
ta biok gustora.
Jolasten denbora
pasa ta gerora,
anka nora-nora,
beera edo gora.
Baiña garaiz joango zan
bere txokora.



Gure aroztegiaren aldamenean bada beste lantoki bat.
Bertakoa zan Xape txakurra, beti gogoan dedana.

6. Etxolaren aurrea
ez zuen zikintzen.
Berez ikasia zan
garbi ibiltzen.
Jakiñeko lekuan
zekien lasaitzen.
Etsipenez betea
baiña aalegintzen
loturaz bizitzen;
zaartzara urbiltzen,
gizajoa antxen,
maixua zerbitzen,
katean lepoa ta
mundua zaintzen.
7. Azkeneraiño zuen
loturaren giltza.
Utsa, arriskutsua
izan balitza.
Katerik gabe ere
ark bere langintza
ondo beteko zuen.
Ematen det itza.
Preso baten gisa,
etxola egoitza,
Xaperen bizitza.
Baiña zer gabiltza?
Bi ankako zakurrak
libre dabilta.

8. Xape memoriatik
ezin det borratu.
Katea an bait dago,
diot gorrotu.
Lotura oietara
ezin naiz adostu,
katedunak bait dira
ainbat zakur-postu.
Orrek ez nau poztu;
tristetu ta oztu.
Zer nai dedan lortu?
Kate oiek moztu,
zakur zintzorik berriz
ez dedin lotu.

Frai Bitorrekin konfesatzen

Getxon eta 2009an. Balendin Enbeita bertsopaper-leiaketa artan, bigarren saria eman zioten bertso-sorta oni. Pozik jaso nuen albistea. Epaimaakoei gustatu, nunbait, Ana Mari ausartaren konfesatzea. Frai Bitorrek ez aal ditu irakurriko!

Doiñua: *Ari naizela, ari naizela*

1. “Ave Maria purisima” ta
“sin pecado concebida”.
“Ni Ana Mari neskatilla naiz;
gaupasa askoren ginda.
Frai Bittor jauna, pekatu batzuk
esango dizkiot di-da.
Berriro etortzea nai badu,
barkatzea komeni da.
2. Azken iru bat urte auetan
konfesatu gabe nago”.
“Ea, ea, zer diozu, gazte;
esan, esan altuago”.
“Baiña jendeak entzuten badit
berorrek baiño leenago,
nere isilkako konfesioa
leku ederrean dago”.

3. “Gaztetxo, gerturatu sarera,
bestela ez zait erreza.
Baldin lortu nai badezu beintzat
absoluzio-babesa”.
“Frai Gillermoren penitentzian
banituen zazpi meza.
Denborarekin entzungo ditut.
Au ere bakartu beza.
4. Baiña itxaron, itxaron beza,
baditut kontu berriak.
Auzoko festak ere oraindik
ditugu pasa berriak.
Dantzalekuko estutu ederrak
baditu nere gerriak.
Ondorenaren berri ez dauka
zertan jakiñik erriak”.
5. “Oraingo ori entzun dizut, bai.
Mutilla al zan laguna?”.
“Bai, bai, mutilla. Baiña ez pentsa
zanik senargai kuttuna.
Turista begi-urdirin majo bat.
Anttonio ez; ez, jauna,
Beti batekin dabillen ura
ez al da mari-tuntuna?”.
6. “Ez dizut ondo ulertu baiña
zeruetako Jaunari
barkazioa eska zaiozu;
berdin Ama Birjiñari.
Jartzen dizudan penitentzia
dira iru abemari.
Dantza-lagunik ez dezunean
errezatu, Ana Mari”.

7. Telefonotik: “Ana Mari naun.
Karmele, entzun akidan
frai Bitorrekin konfesatu ta
zer lasaitu eman didan.
Ez zidan esan seigarrengoa
ondo dan ala gaizki dan.
Auzoko festetakoa eta
danak barkatu zizkidan”.
8. “Banekienan frai Bitorrena.
Ni ere izan naun bela.
Esan zionat: ‘seigarren ortan
banaiz naikoa epela’.
Bai al dakin zer erantzun didan?
Zerura joango naizela,
baldin aurrera jarraitzen badet
orain artean bezela”.
9. “Koadrillan ere aipatu diñat
eta oartuak zauden.
Joxe Anjeltxo itz-motela’ re
naikoa azkarra baden.
Konfesatuta ondorenean
zer zioen jakin al den?
‘Frai Bi-bittor gi-gizarajoa
nere ustez go-gorra den”.
10. “Joxe Anjelek lagunartean
bandoa jo baldin badu,
frai Bittor zaarrak egin bearko din
milla pekaturen kargu.
Gorra ote dan zalantzan jarri,
ortarakoxe aiña gu...
Erri osoa joango zaion.
Ederra egin diñagu”.

11. “Ta i norekin konfesatzen aiz,
estankoko Mari Lutxi?
Don Jorge petraltxio orrekin.
Ez zeukan galdera gutxi:
ea egiten al didaten koxk
edo norbaitek igurtzi?
Gizajo orrek ez berak egin
eta ez besteri utzi”.

Marteko ametsa

Askotan entzun izan degu ametsak egitea libre dala. Idazle ospetsuak ere amets-irudimenak sormen artuta iritsiko ziran, noski, iritsi diran lekuraiño.

Ba, ni Marteraiño iritsi nintzan. Ea zerbaitetarako bali izaten dizun, irakurle. Neu beintzat gozatu egin nintzan txorakeria pillau asmatzen, bertsolariak aotan artuta.

Doiñua: *Tarrapatatan, bandoa joaz*

1. Ametsek sarri bultza didate
bidaia-tentaziora,
azkenik nola eraman nauten
betiko ilusiora.
Satelite bat zaindari eta
banoala pasiora,
baiña nungo naziora?
Fletxak zion "asi gora".
Kohete zuri, mutur-zorrotza
ziztu batean linbora,
illargiaren parean pasa
ta beste espaziora,
Marteko estaziora.

2. Bidean ez det bazterrik jo ta
iritsi naiz sano-sano.
Giro gris-grisa, zenbat palmera
ta zenbat zuaitz ebano!
Ara tren txutxu nola dijoan,
ori ote da urbano?
Txofer Peñagarikano,
ez bozina ta ez plano.
Turista gisa badaramazki
ogei bat amerikano,
aizkora bana ta trontzarekin
beste bi australiano:
Sanson eta Herculano.
3. Xabi Paia ta Lizaso, berriz,
badijoaz maldan beera,
lantzak artuta burnizko kaskoz
erromatarren antzera.
Seguruenik pizti aundiren
bat edo eiztatzera,
arunzko sakon ezera,
dinosaurio tartera.
Baldin irtengo balitzaieke
aietako bat bidera,
a zer-nolako anka-jokoa
zuaitzen baten gainera,
tximinoekin batera!

4. Errekatxo bat ere ara or,
ur asko ez dator baiña.
Bertan arrantzan ari da norbait.
A, bai: Andoni Egaña.
Caw boy kapela ta txaparrotan
gaur egingo du azaiña,
salabardoa ta kaña,
saskia ere bikaiña.
Kapela urak daramakio
ta akabo artimaiña.
Aitagurea badaki eta
astindua du mingaiña.
Birjiña ez da birjiña.
5. Mutil illetsu itsusi bati
ere banago begira.
Baularekin nora arraio
ote dijoa Silveira?
Eskale soilla ez dala dio,
vagabundo bat, bai, tira!
Txalmak artuta mendira,
ta gaiñera urrutira.
Beste norbaitek zerbait badakar
sokatik tira ta tira.
Ara Irazu, gorila aundi
batekin dator ferira.
Salduko balu sikira!

6. Aiba la Pepa, *ulala-ula*,
dantzaleku bat, *traralai*.
An urrunean ageri dana
polita dirudi, *ja-jai!*
Bere izena “Dancing Jupiter”,
zabalik aste eta jai.
Guztiek aruntz joan nai,
mojatxo auek ere bai.
Abitodunak izanagatik,
edozer dantzatzeko gai.
Bide-ertzean autostopean
ortxe daude lasai-lasai,
platillo bolanteen zai.
7. Badator ontzi egalaria,
gidaria nor ote da?
Aiba, Nahikari Gabilondo da.
Bera al da? Bai, bai, bera!
Botoiari *klak*, altxa da tapa,
luzatu du eskaillera,
mojak agudo gaiñera,
gustora asko gaiñera.
Menga, moñoña, emaiion txispa.
An dijoazte airera,
argi-keiñu ta sirena joaz
dantzaleku politera,
Marteko Jupiterrera.

8. Mendi artetik noiznai badator
istori zaarren abotsa.
Emen Xabier Amuriza da
arkaitzetako jainkosa.
Sakonek burrundadatzen dute
bere otoi oi-u-otsa.
Gaiñera nolako boza!
An bizi du bere poza.
Sakristau zaarra Mañukorta da,
ez du lagun aproposa:
Jainkomendia aiña maite du
Jupiterko mariposa,
sor Maria Sinforosa.
9. Kontxo, au da au mamut alea
ortik zear datorrena!
Amabi milla kilo inguru
izango ditu barrena.
Ori da ori agin pareta
tronparekin dakarrena.
Jakin zazue norena:
Julen Zelaietarena.
Olentzero ta asto aundia
bikoterik jatorrena.
Perretxikotan ibiltzen dira
pagadietan barrena,
komediante urrena.

10. Iturriaga bizi da, berriz,
an goiko borda batean.
Ogei bat auntza baditu eta
oillo mordoia tartean.
Bizarrik ere ez du ebaki
iru edo lau urtean.
Baiña maastira joatean
xoxoek maite dute an.
Txakoliñaren barrikotea
badu ia-ia betean.
Ospakizuna San Josetatik
urrengo larunbatean.
Ala jartzen du atean.
11. Amets Arzallus, Sustrai Kolina,
aiba: guardia zibillak!
Bi alferrontzi ta baldar utsak,
galdu dituzte fusillak.
Íñun mokadu gozorik bada,
usaia artzen abillak.
Jantzietan botoi pillak
ta kapela borobillak.
Iturriagaren bordara sarri
joaten diran mutillak,
amets bakarra: nun aurkituko
lukainka edo tortillak
eta txakolin-botillak.

12. Komentu zaar bat ere bada or,
garai batean fededi.
Orain okupak darabilkite;
alatan ere, gaitzerdi.
Maialen jefa, eta dontzeilla
dute Uxue Alberdi.
Morroia Paiatar Fredi,
portero Gaztelumendi.
Igor Elortza gitarra jotzen,
lasai-lasai, geldi-geldi.
Eta Mirentxu Amuriza da
etxeko guztien Heidi.
Fraile motza Otamendi.
13. Ustez leena iritsi naiz ta
aurkitu det jende pilla.
Alan da ere ez dago emen
munduan ainbat naaspilla.
Lagunartean eroso nago,
alde egitea det zailla.
Deitzeko nun aiz, mobilla?
Joño! Koberturak falla.
Unaik bordako ate zaarrari
kendu dio maratilla.
Auntzak zaintzeko bear omen nau.
Ba, bertan gera nadilla.
Ez etorri nere billa.

Danboliña

Neure danbolin zaarraren bertso-sorta au ez dakit zenbat lekutara aurkeztu nuen bertso-paper-leiaketetara. Eta alde guztietan, kale.

Baiña ez pentsa bazterrera botatzeko daukadanik, ez, nerekin ia berrogeita zortzi urte dituen danbolin beltza. Ez, ez. Urtero berotu bat artzen du, eta gero ondo jaso. Museoren batera eramango det, akaso.

Doiñua: Bretoiarena

1. Badaukat danbolin bat
berrogei urtean,
euria bapo bota
du bitartean,
Azpeitian jaso
azoka batean.
Beti oi dan bezela
zan asteartean,
eguerdi artean
eta elurtean,
plazan goi partean
antxe arkupean,
eun duro ordainduta
jende tartean.

2. Oso-osorik dago
kirten ta ataka,
naiz eta bere lanik
iñoiz ez barka.
Borobil-borobilla,
txuloak eundaka,
gaztaiñak artzen ditu
pare bat palaka.
Piztean barraka,
tirriki-tarraka,
eragin banaka,
jartzen det marmarka,
tarran, tarran ta tarran
sutan bueltaka.
3. Gaztaiña billa joan
oi naiz Eroskira,
txartelarekin salgai
dauden saskira.
Bi palaka edota
bost kilotik seira.
Orrela danboliña
bete da erdira.
Kirtenetik jira
ezker eskubira,
su epel argira...,
umeak begira.
Gaztaiñak orrelaxe
erretzen dira.

4. Puntuatuko banu,
zenbaki amarra
nuke danboliñari
eman bearra.
Pasea duelako
adiñaren marra;
bestalde, urteroko
berotu zakarra,
eta ez bakarra
baizik barra-barra.
Nolako su-garra,
kea ta abarra!
Argatik dago beltza
danbolin zaarra.
5. Eun duroko papertxo
urdin aren truka
egindako tratua
nolako mauka!
Burni tenple gogorra,
au ezin da uka.
Bestela, nola sutan
ainbeste burruka?
Apurka-apurka
amaika zakuka
erreta badu-ta
arriturik nauka.
Baiña oraindik ere
lan asko dauka.

6. Berrogei urtetako
berrogei negutan
erre ditu gaztaiñak
milla lekutan:
kalean, baserrian
eta mendi puntan,
zenbait elkartetako
billera-burutan,
eiztarien juntan,
zaar-etxe batzutan,
portu-eremutan
iru edo lautan...,
baita ere artzaien
borda barrutan.
7. Zenbaitek esaten du
ote dan gaztaiña
janari aizetsua
eta txoliña.
Ez al da ba polita
puzker poxpoliña?
Antolatu dezagun
afari sorgiña.
Amona Joakiña,
nun da ardo fiña,
sagardo gordiña
edo txakoliña?
Tarran ta tarran ari
da danboliña.

8. Danboliña prest dago
urtetik urtera.
Datorrenean ere
ondo bagera,
izango da gaztaiñak
erretzeko era.
Adiskide, baldin ta
zalea bazera,
atoz gizartera
afari batera.
Konponduko gera.
Esan nai det zera:
gonbidatuta zaude
gaztain-janera.

Txoriak erruki

Berriz ere, Errenteriatik telefonoa, Zapirain Anaiak bertso-paperetatik: alegia, XXII. leiaketako aipamen berezi bat beintzat lortu nuela.

Orrelako telefono-deia danean, uste det gerriko zinturamailla zulo bat lasaitzen dedala.

Bide batez, ikusten da elurteak ere bere deialdiak egi-ten dizkiola zentzuari. Ez da gutxi, gaiñera, batez ere txoriez errukitzen geranean.

Doiñua: *Mendian gora haritza*

1. Asi orduko urtea
eldu zaigu elurtea.
Eraunsi zuri-zuriak eta
aizea "Nortea".
Baliteke izoztea,
negu beltzaren dotea.
Erabaki det txori gaixoei
jaten ematea.
2. Sukaldean milla jira,
noiznai leiotik begira,
guztiz itxura aldatutako
atari zurira.
Etxe aurreko mizpira,
ez dezu galdu distira.
Gosetutako txoriak zure
adarretan dira.

3. Leioz kanpoko txapaldan,
txoko polita bada an.
Ogi-apurrez bete izan det
elurte-boladan.
Txori txikiek nola jan?
Danak or datoz bandadan.
Kristal ondolik begiratzea
zeiñen polita dan!

4. Txantxangorri ta txolarre,
beste iru-lau pinttarre
joan-etorrian emen dabilta
goiz ta illunarre.
Kaxkabeltxa ipurterre,
zergatik zaude aserre?
Arto-aleak jarriko ditut
zuretzako ere.

5. Leio-koska da tranpolin.
Orra zenbat txori txolin.
Pasadan ere asko dijoaz:
oillagor, brankolin...
Istingor eta poxpolin,
danetik dator, bai, jolin!
Eskerrak eskopeta kenduta
dagoen Antolin.

6. Elur-malutak eroriz,
lurra zapi zuri, lodiz
jantzia dago ta leio-ertza
apaindua txoriz.
Kolorez gris, marroi, oriz,
ase nai zaituztet ogiz.
Ta neu gertutik begira pozez
txoratzeko zoriz.

7. Arbustopean xoxoa,
naiko geldo ta zozoa.
Atzo dotore zenbiltzan baiña
ez zaude jasoa.
Errezil-sagar goxoa
jarriko dizut, gaixoa,
lurmen orretan pasa dezazun
elurte osoa.
8. Bazterrik bazter katua,
noiz egingo pekatua.
Egalarien betiko etsai
madarikatua!
Xoxo luma-arrotua,
ai txori beltz maitatua!
Atoz zu ere leiora eta
zaude salbatua.
9. Elurren mailla igo da
arra eta geiagora.
Egoera noiz itzuliko zai
gaude betikora.
Atozte bai beetik gora,
txolarte onen girora,
paparrak bete eta pakea
dagoen leiora.
10. Bai biar eta bai etzi,
zazpi, zortzi, bederatzi
txori leiora ez badatozkit,
nik nolatan etsi?
Ez det elurra gaitzetsi;
ilusiotan onetsi.
Zer mutil koxkor biurtu naizen
ezin det sinetsi.

11. Urtuko dira elurrak,
urrunera otz-beldurrak.
Berriro ere leengo itxura
artuko du lurrak.
Akabo ogi-apurrak,
txori txikien agurrak.
Zeiñen polliki konta daitezkeen
elurte laburrak!

Amatxoren billa

Sarritan gai alaien billa banabil ere neure bertso-sortak idazteko, albistegietan entzundako zenbait gertaerarekin gogoaz pizten da lan sentimentalak egiteko ere. Aldi berean, goxatu ere egiten dezu, sentimenduak txukun borobiltzen dituzun garaian, betiere biktimatxo ura gogoan eta beraren aringarri ari zerala iruditzen bait zaizu.

Doinua: *Dona, dona, dona* (jatorrizkoa)

1. Nun da amatxo? Ama, nun zaude?
Ez zaitut inon ikusten.
Bear zintudan baiña ez dakit
nora eraman zaituzten.
Gaixorik jarri ziñanean
danek au esaten zuten:
“zerura zoaz, Elisabet”.
Ta zu bizitza uzten.
Penaz urtutako malkoek
ies egiten zizuten.
Begi busti aiek, amatxo,
zenbat maite ninduten?

2. Esan zidaten ama betiko
joan zaidala urruna.
Zazpi urte nik, nola sinetsi
orren albiste illuna?
Begiratzen det sukaldean:
ez dago ama kuttuna.
Begiratzen det logelara:
antxe ere utsuna.
Itxaropenetan itxaron
nai det gaua ta eguna,
noizbait iritsiko zait-eta
amatxoren gutuna.
3. Ondorio au mingarria zait,
jasan ezin dedan zama.
Ogeita amar urte zituen,
etxeakoandre ta dama.
“Ai, alabatxo txiliprixtin,
gure Uxoaz laztana!”,
jolasten giñan bakoitzean
esan izan zidana.
Iñun erantzunik ez duen
galdera onek narama:
“baiña, aitatxo, orain nori
deituko diot ama?”.

4. Amatxo, zenbat pasarte goxo
det zure oroimenean:
gelako leio aurrean zutik
orrazten ninduzunean,
munduko nexka ederrena
nintzala zenionean,
soiñeko txuri polit ura
janzten zenidanean,
ikastolarako goizero
muxukatzen giñanean,
etxeko lanetan kantari
geratzen ziñanean!
5. Ai, sukaldeko irratiairen
trikiti-soiñu xumean,
“menga, txikita, egigun dantza”,
esaten zenuenean,
kriskitin-kroski arin-arin
ekiten genuenean,
aizpak ematen genuela
aitak zioenean!
Ama, zure perla bitxiak
orra or iraganean.
Amets egin banu bezela
izan da azkenean.

6. Galderak eta galderak ditut
bakarrik nagoenean:
orain norekin orraztuko naiz
bearra daukadanean?,
nork jantziko nau apain-apain
eskolara noanean?,
nork muxukatu, "txiliprixtin",
andik natorrenean?,
nork lagunduko dit dantzatzen,
ain txikia naizenean?
Ama, nor ziñan oartu naiz
falta zaitudanean.
7. Zer geratzen zait, ama, zurerik?
Arropa armairukoak?
Begira nago: auek dira, bai,
zuk erabilitakoak.
"Baiña, Uxoa, nun zaude, ba?",
aitaren dei betikoak.
"Zeiñen politak diran, aita,
amaren soiñekoak,
berriz janztekotan gaixoak
zintzilik jarritakoak!
Gauza danak ondo ez ditu
egiten, ez, Jainkoak".

8. Brusa arrosa ere dilindan
bere pertxa urdiñean.
Ez da munduan besterik ura
ar dezakeenik soiñean.
Aitak dionez, neretzako
aunditzen naizen aiñean.
Baiña nik ama bera nai det,
zaudete jakiñean.
Kantu polit ari entzuna
jarriko det mingaiñean:
“amatxoren billa joango naiz
izar baten gaiñean”.

Mari Joxepa eta frailea

Bertso-sorta onek bigarren saria jaso zuen XXVII. Basarri bertso-paper-leiaketan, 2011n.

Arrazoirik asko izan nituen bertsoak jartzeko. Izan ere, emaztearen ama Mari Kruzek zenbat aldiz esaten zuen:

–Gaur ainbat jakin banu, ez zian, ez, egun artan gure etxetik arrautzarik eramango fraile motz ark!

Gajoa baserrira ezkonberria eta eskeko fraileari oillo lokari jarritako dozena arrautza eman bear, alajaiña!, ate ondorik alde egingo bazuen fraileak. Amonak ere, pakeak geiago balioko zuela-eta, eman egin bearko zitzaioala.

A, gajoak!

Doiñua: *Nere sentimentua
nai det deklaratu
(egokitua)*

1. Mari Joxepa naiz ta
nator atakean.
Gaur ez diot iñori
lagako pakean.
Bitxikeri bat kanta
nai det bitartean,
bizi izana bait naiz
baserri batean.
Santu-itxuran norbait
beti zan atean,
baita fraileak ere
arrautza eskean.

2. Udazken goiz eder bat,
eguzkiz betea,
txakurra zaunkaz eta
ireki atea:
fraile motz bat eskean,
artean gaztea,
aaztuta galtzerdiak
anketan janzteia,
sorbaldatik zintzilik
telazko trastea,
zaku bat aurrera ta
atzera bestea.
3. “Etxekoandre, Jaunak
egun on daigula.
Tori San Frantziskoren,
estampa mardula.
Arrautzak biltzen nabil,
zertan disimula?
Emendik esku-utsik
ez naiz joan sekula.
Iaz dozenatxo bat
eman zenigula,
uste det aurten ere
izango dezula”.

4. “Udaran oi zaizkigu
apalak arrauztu,
baiña urri aldera
desegin ta ustu,
oillategiko dona
erabat kamustu.
Azkeneko dozena,
apustuz apustu,
lokari atzo jarri
diogu, ain justu.
Orain ezingo diot
kabia zapuztu”.
5. “Babesten zaitut nere
santiamenean.
Kendu arrautzak loka
altxatzen danean,
guretzat dana ona
bait da azkenean.
Jarri koskoillu batzuk
kabi barrenean.
Nik errezatuko det
zure izenean,
zerura joan zaitezen
zuzen-zuzenean”.

6. Entzun arren arrautzak
geneuzkala merman,
apal jarraitzen zuen
eskearen leman.
Izketan bai leuna
gure fraile German,
bere itxaropena
zegoen dozenan.
Ara zer egin nuen,
zertan jardun teman?:
oilloari kendu ta
fraileari eman.

7. Oillo loka txikia
gutziz prixti ona,
errespetu guztiak
zor zitzaizkiona,
txitak aterarazi
oi genizkiona.
Jakiñik taldetxoa
basetorkiona,
amona zan arrautzak
jartzen zizkiona,
eta ni fraileari
eman nizkiona.

8. Inguratzen zitzaigun
makiña bat mamu.
Izketa zuten beren
arma eta amu.
Triste baiña isilik
amonatxo Manu,
geratu bazan ere
gajoa jo ta mu.
Argatik nago egin
nuenaren damu.
Ez, gaur dakidan ainbat
jakin izan banu.

9. Bere sermoi klasea
fraile kankailluak,
baiña bai esan ere
kontu kaskailluak:
arrautzak kentzeko ta
jarri koskoilluak.
Loka txikiarentzat
a zer jostailluak!
Erreguzko izketa
engaiñagailluak.
Nik bear nituen, nik,
an koskabilluak.

10. Nola eman nizkion
estanparen truke?
Kontu aundiz ibili
bearko genuke.
Zenbakiak egingo
baldin banituzke,
dozena oillandaren
zorrak balituzke.
Berriz arrautza eske
frailerik banuke,
dakartzkien birekin
joan bearko luke.

Miriam

Onezkero norbaitzuk esan dezue: “Nikolasek maitemindu bezela inoiz ez digu itz egiten edo idazten”. Egon lasai, lagunok. Oraindik gazte sentitzen naiz eta. Zer esango det, ba!

Nori ez zaigu gertatu, gaztetxotan, geran edo degun inuxentetasun ura batak bestearen begietara iristean?

Erromeria artan, orrelako zerbait gertatu zan.

Doiñua: *Maitia, non zira?*

1. Santa Kruz deritzan
ermita atarira
ni ere joan nintzan
bein erromerira.
Urte asko pasa dira.
Gogoan det bai ango
jendearen jira,
batzuek dantzan eta
besteak begira...
Ta ni zure aurpegira.
2. Neska musugorri
eder eta liraiña,
amazazpi bat urte,
dantzari ariña,
begirada atsegiña,
zapatilla txuriak,
soiñeko urdiña,
ille-trentza luzea
txintxosta egiña...
Erromeriko panpiña.

3. Trikitixa soillik
ermita atarian,
antxe aritu giñan
saltoka, Miriam,
lotsati samar agian.
Arratsaldeko dantza
zan erromerian,
leen aldiz zuk jarri
zenidan neri an
maitemiña igerian.

4. Zure irriparrak
begi biak irentsi
zizkidan, maiteñoa,
ta ezin det aantzi.
Sentimenduetan jantzi.
Biotzean maitasun-
lorea itsatsi...
Beintzat izen orrekin
nai nuke idatzi:
Miriam, milla goraintzi.

5. Baiña irri ura
motza izan zan gugan,
banandu bait gintuzten
illunabar mugan,
kanpaien otsa *dulun-dan*.
Matutiarekin bat
galdua zintudan.
Arrez geroz berririk
ez det izan zugan.
Zenbat amesten zaitudan!

6. Elizaren mende
ziran orduko jaiak,
erromeriak eta
gazteen bidaiak...
Ez guk nai bezain alaiak.
Miriam, noizbait izan
gintezkeen galaiak,
baiña sakabanatu
gintuen garaiak,
dana menderatu naiak.
7. Illunabar artan,
Miriam neskatilla,
galdu zintudalako
erromeri pilla
pasa nuen zure billa.
Ikusi bai ikusi
milla eta milla,
baiña ez nauzu izan
iñoren mutilla...
Zuretzat bizi nadilla.
8. Arratsalde goxo
ta ilusiotua
fede gezurri batek
zigun gazitua:
bikotea zatitua.
Sentitu nuen ura
ezin bizitua.
Ez dira, ez, berdiñak
biotz saritua
edo-eta zauritua.

9. Amodio ura
zala urteak dira,
baiña nigandik ez da
joan urrutira.
Zure begien distira!
Ametsek biltzen naute
ziñan irudira:
galdu nuen izarra
ote da begira...
Ene maitia, non zira?

Titi-xorroak

Zarautz kosta-erria danez, edozer espero daiteke asteburuak aldera. Batez ere, uda partean. Eta, batez ere, gau-giro ona danean eta illargirik gabe.

Erri-jirako bide gorrian zear nenbillen neure bizikleta xaarrarekin igandean. Zer ikusiko eta neskaxa baten titi-xorroak, alajaina! Bezperan, gau-giro epela bait zan.

Gero, txakur txiki bat ere an azaldu zan berdegunean. Eskerrak aurrea artu nion.

Doiñua: Ormatxoriak negu gorrian

1. Goiz epel artan nindoalarik
bizikletaren gaiñean,
kale ertzean egin diguten
bidegorri apaiñean,
lurrean zerbait ikusi nuen
gertura eldu aiñean:
neskatxa baten titi-xorroak,
alajaiña!, jardiñean.
2. Txakur txiki bat ere pasa zan
muttur-bixarrak luzatuz,
berdegunean larrean zeuden
xoxo beltz danak uxatuz,
zintzarri-otsa txilin-txilinka,
bere isatsa dantzatuz,
bazter guztiei usainka eta
atzeko anka altxatuz.

3. San Pedro jaiak ziran ezkeron
ez nintzan asko arritu,
baiña dalako neskatxa orrek
koskabilloak baditu.
Utsa, zuaixka batean-edo
eskegi izan balitu.
Txakurrak pipi egingo zien,
azkar jaso ez banitu.

4. Zeru-kolore urdin argiak
edo itsaso barea,
atzean *krisk-krask* lotzen diranak,
xorro bietan sarea,
David Bisbalen argazkiekin,
a zer jostaillu pare!
Baiña naikoa gertu baziran
karakola ta barea.

5. Xorro pareak barrenez barren
ea zenbat neurtzen zuen
jakin nai eta txinoen dendan
metroa erosi nuen.
Ogeita zortzi bat zentimetro;
dexenteak, mekasuen!
Baiña galdezka ez naiz joango
neurri au nork ote duen.

6. Datu geiago ere baditut,
kontatuko nuke trailla.
Ez dira Zara dendetakoak,
badute fintasun-mailla.
Kolora leen esan dizuet,
eun ta zazpi berriz tailla.
Zein mari-txunga dan jakitea,
ori izango da zailla.

7. Artean txakur xarpatsu ura
lurrean usai ta usai.
Ark ere nunbait jakin nai zuen
nortzuk egon ziran gau-zai.
Illartargia lotan zan eta
dana ezkutua, ja-jai.
Gauza geiago bazeuden baiña
ez det esango, ta lasai.
8. Oartu nintzan Mikela ere
begira nuela goitik,
zertan nenbillen ta marmarrean
irugarrengo balkoitik.
“Nola diozu? Mesedez, arren,
naikoa degu sermoitik.
Lurretik jaso ditut, amona,
ez det billuztu norbaitik”.
9. Bitxikeria diruditenak
badira zenbait kaso-ta,
eskerrak leial portatua zan
txakurra edo maskota.
Baiña nor kristin izan ote da
alako neska pasota?
Billa etorri nai badu ere,
etxean dauzkat jasota.
10. Garbitu eta plantxatu ere
egin nituen propio.
Ez, txakur txiki bixartsu ari
laga izan banizkio.
Esan dedana billa etortzea
egoki baderizkio,
betor dozena bat pastelekin
ta itzuliko zaizkio.

Vanessa

Errukiz begiratzearen ondorenak.

Donostiako Kontxa aurrean dagoen arbola zaarren tarteko parkean, noiznai ikusten ditugu zerbaiten erakustaldiak egiten: edo eskaleak, edo aitona-amonak usoei ogia botatzen, ezinduren bat musika-tresnatxoren batekin txanponentzako potea aurrean duela, eta abar.

Udaberri goiz artan makilla eskuan eta parkean zear nindoala, txirularen antzeko txistu-otsa entzuten nuen. Eta belarrira zetorkidan otsari jarraituz iritsi nintzan Vanessa-ren parera: emakume bat gurpildun sillan, kanpotarra; gerriz beea ez zuen mugitzen; bere ao-tresna joaz eta ontzitxo txuri-urdin bat aurrean zuela.

Luze egon nintzaion begira eta entzuten jendartean, eta uso urdiñen konpaiñian.

Ondorengo illabete baterako buruausteak artu nituen, bertso auek moldatzeko. Baiña ez zitzaidan damutu.

Zizurkillen, Pello Mari Otañoren omenez leenengo bertso-paper-leiaketa antolatatu zuten 2013an. Leen saria eman zioten bertso-sorta oni.

Nun ote zaude, Vanessa? Eskerrik asko.

Doiñua: Xabier Leteren habanera

1. Erriko jaiak zituzten,
jende guztia kalean...
Neu ere antxe nindoan
berdegune egalean.
Musika-otsa zetorren
egoaize epelean,
neskatxa koitadu bat an
ari zan egiñaalean,
gurpildun silla batean
zuaitzaren itzalean,
soiñu-tresna bat zuela
bere eskubi aldean,
anka biak ezinduak
egoera argalean,
galtza bakeroak eta
poltsatxo magalean.

2. Lepo-zapi pinttar ura
zeneraman paparrean,
uxkurrarazten zintuen
koxka ere bizkarrean.
Nioen soiñularia,
tente jarria lurrean,
txanponetzako katillu,
txuri-urdin bat aurrean.
Jendearen onginaia
ere zeneukan urrean.
Zenbat naigabe ageri
zan zure irribarrean!
Kemenez oso aul baiña
ilusioz indarrean...
Maitea, zenbat gauden gaur
argi orren bearrean.

3. Jotzen zenuen txirula
biotzera zetorkidan.
Umetako pasarteak
gogorarazten zizkidan.
Soiñu-txistuen doiñuek
zuaitz azpia distiran,
betiko uso urdiñak
antxe zenituen jiran.
Jendetza inguratu zan
entzun eta ikusmiran.
Zure musikak belarri
askotara eltzen ziran.
Guztia gurpildun sillan,
nor ez zan zutaz kupidan!
Ezindu baten aalmenak
ara zenbat aundi diran.
4. Etsaiaren biraoa
al da daramakizuna
edota zoritxarren bat
kaltea egin dizuna?
Alan da ere, Vanessa,
zan nabari zitzaizuna
gainditua zeneukala
soiñaren ezintasuna.
Bestela nola eskeiñi
alako emankizuna?
An zegoen zure plaza
ta gure ospakizuna.
Bagenuen zer ikusi,
bagenuen zer entzuna!
Ezindua zaitugu, bai,
baiña ez ezin dezuna.

5. Errukigarria zure
jarduna eta egona!
Korru eginda zenezkan
ainbat aitona, amona,
berdin umeak, gazteak...
Partaidetza zan danona.
Miresgarria benetan
ageri zitzaizun dona.
Gero aipatzen dituzte
Shakira eta Madonna.
Aiek dirutza daukate,
lujoa ta zoriona.
Zuri, berriz, noizko bete
katilluaren sakona?
Botatzen genizulako
txanpona eta txanpona.
6. Vanessa, zuri entzuten
eta begira geundela,
an pasa ziran bi moja,
abitu eta kapela.
“Buenas tardes a todos”,
mintzatu ere onela:
“Échenle la limosnita”,
bearra bazenuela.
Aiek ez zizuten bota,
ori bai argi nuela!
Agur, agur, mojatxoak,
sor Ines, sor Manuela.
Ziur zuk penak zeuretzat
gordetzen zenituela
ta poza adierazi
Lazkao Txikik bezela.

7. Aipatzen dedan zuaitza
landatu zuten antziñan.
Iru mende omen ditu
kale zaar aren ixkiñan.
Garai aietan nork pentsa
ainbat musika bikain an
entzun aal izango zala
ezindu baten makiñan.
Zenbat mirari dagoen
zu bezelako panpiñan!
Ezin gintezke aaztu
zuaizpeko klabeliñan.
Trenean joanak giñanak
trenera itzuli giñan.
Artean ere jo ta jo,
zu antxe geratu ziñan.
8. Geroztik zenbat alditan
gogoratu naiz Vanessan!
Ez dakit eman genion
bear ainbeste babes an.
Ezindu aberatsena
ere bizi da pobrezan.
Baldin orrela ez balitz,
guztiontzako obe zan.
Ama bat igual zan eta
ene, ez esan, ez esan!
Zein kolore ezberdiñak
bizitzaren gazi-gezan.
Errukia ta laguntza
nunbaitetik jaso zezan,
karta au idatzi nuen
norbaitek erantzun dezan.

Mikelen urteak

Bi milla eta amabiko udaran, gure seme gazteenaren urtebetetzea zala-eta, Zarauzko Zelaitxo tabernan enkargatu zuen amonak afaria familia osoarentzat, gero damutu bazitzaion ere.

Nunbait, pulamentu koxkor samarra zegoen taberna artan. Baina gertuena bera geneukala familia osoa biltzeko, eta aurrera txalupa.

Amona bereala oartu zan:

–Emen ez degu gauza onik.

Ala ere, billobek:

–Lasai, amona. Ondo pasatzen ari gera.

Eta parre-purrustak danok. Amona, orduan eta amorraziago, “jakin izan banu” eta “jakin izan banu”.

Beintzat, azkenerako naiko parrea eginda altxa giñan maaitik. Derrigorra neukan bertso-jolas au egitea.

Doiñua: *Kantatzera nijoa* (Kaxiano)

1. Urtebetetzea zan
eta Mikelena,
gaiñera ogei eta
beatzigarrena.
Zelaitxon bildu giñan
familia dena.
Afaria irten zan
puñetera pena.

2. Leendabizi olio gabeko letxuak, tomate-izpi batzuk, berak berdetsuak, gero erre gabeko oillasko-petxuak... Afari ark merezi zituen bertsuak.
3. Ez dakit zan oillarra edo oillaskoa, gaiñera ez dakigu zenbat aundikoa. Gutxieneko bazan ogei kilokoa, illargitikan egan etorritakoa.
4. Oillaskoa labeak ezin zuen erre. Zelaitxon gertatzeko au ez da ezerre. Arrazoiarekin ta amona aserre. Aspaldi ez genuen egin ainbat parre.
5. Pertzaka bat jan eta pertzaka bat sobra, nai zan afaririkan ez genuen logra. Amonaren eziñak zenbat maniobra? Eskerrak asko-asko ez zioten kobra.

6. Irantzu ta Jokiñek
zituzten frituak.
Goxoak omen zeuden
baiña zaarkituak
gaizki egositako
patat prejituak.
Eta postrean, berriz,
tarta izoztuak.

7. Ez da ezer danentzat
gaizki datorrenik.
Ez pentsa sobrak bota
egin genituenik.
Txakur gizajoentzat
ez zan izan penik.
Aiek ez zuten esan
txarra zegoenik.

8. Galtzen degunak jakin
daigun irabazten,
ez Zelaitxon bezela
poz ta penak naasten.
Amonari ez zaio
lotsa ura aazten.
Jarri beza baratzan
kapoiren bat azten.

9. Atsegin da tarteka
ola elkartzea.
Naiz eta gertatu zan
kutre afaltzea,
merezi du olako
broma pasatzea.
Norena da urrengo
urtebetetzea?

Ogeita amar urteko irratuari

Bertsoak idatzi nizkionean, ogeita amar urte zeramatzan gurekin. Orain, ogeita amabost. Errez esaten da.

Etxeko aroztegi txikian daukagun irrati zaarrari buruz ari naiz. Orduan, mutikoak zirala, bi semeak laguntzera eramaten nituen, eta aiek gustoraxeago edukitzearren eramandakoa da irratia.

Orain ere an dago, nik lagata bezela, plastiko zati bat gaiñean duela. Goizean leen dijoanak, *klak* botoiari; eta gauean azkenak, *klak* botoiari.

An dago garbo ederrarekin, nai duenak ikusi.

Doiñua: *Ni naiz palankaria* (egokitua)

1. Bi dozena ta erdi
urteko trastea
daukagun irratia,
ara zer gaztea!
Bere egonlekua
leku desastrea:
aroztegi erdian
dagoen postea.
Igandea dauka jai,
lanean astea.
Gure egunkaria,
naaste-borrastea.

2. Ogeita amar urte
dituen mitoa,
Euskadi Irratiaren
bizki ta kintoa,
kolorea beltz-beltza,
antena pintoa,
autsez jantzia baiña
ez dago itoa,
trepeta serioa,
ez txoropittoa...
Garesti ordainduak
eman dit kittoa.
3. Zortzireun duro pasa,
zer karterakada!
Pena merezi izan
zuen bearbada.
Baiña iraupen ori
kristoren marka da:
poste ziztrin batean
iru amarkada!
Artu duen ainbat auts
ta egur-zartada!
Dagoen lekurako
traste aparta da.

4. Larunbat artan dendan
zer jende-bolada!
Andre motz bat zan nere
aurretik joanda.
Dendariak irrati
onen propaganda.
Saltzailleak: “señora,
au oso ona da”.
“Migel, ¿yo comprar esto?,
mira ¡qué bobada!”.
Atso batek nai ezta
lagatakoa da.

5. Ondoren saltzailleak
esan zidan: “aizak,
tresna aundi au artu
eta eramazak;
plazotan ordaintzeko
nai badek, jarri zak”.
Bejondeiala, Miel,
oiek dituk itzak.
Danetik eman digu
posteko Philipsak:
musikaldiak eta
orapronobisak.

6. Goizean piztu, *traka*,
ta egun guztira.
Gida-orratza beti
Euskadi Irratira.
Albisteak euskeraz
gozo belarrira.
Doiñua zabaltzen du,
di-da, lantokira.
Soiñualdirik bada
trikiti-arira,
saguak ere dantzan
asi izan dira.

7. Iñoiz gertatu zaio
kablea etena
edo-eta atzeko
txulotik ertena.
Badu konponbidea
zenbait zaratena:
metro bat luzekoa
bait dauka antena,
sarri jartzen diogu
aal danik tenteena,
zuzentzeko lotuta
eskoba-kertena.

8. Iru amarkadatan
albiste garraio,
bitartean geuk ere
amaika lan-saio.
Jubilatzera noa
eta zer arraio,
betirako ez baita
emen inor jaio,
agurra egitera
joango natzaio.
Omenaldi bat ere
egin bearko zaio.
9. Irratiak gozatu
izan digu borda,
bere gezur ta egi,
bere sursunkorda.
Eta ez da amaitu,
oraindikan or da.
Ez degu desegin nai
duen urte-korda,
badiogu berari
orrenbeste zor-da,
museoren batera
jaso bearko da.

Aitona-billobak tratuan

Bertso auetxek bidali nituen Ordiziara, 2013ko Lazkao Txiki bertsopaper-leiaketara.

Jokin bederatzi urteko billobak, lagunduko zidala kantatzen, saririk balitz, eta propinarik izan ezker. Eta orrelako kontuak.

–Aurrena, egin egin bearko dizkiagu, ba, bertso onak. Bestela, ez zeukak saririk aitonak.

Orrela, berdeguneko xoxoa artu genuen izketarako gai. Eta Jokin mutikoa prest, bere lekuko esaldiak kontatzeko. Aitonak orixe nai zuen.

Irugarren saria eman ziguten Ordizian. Pozik giñan aitona-billobak. Doiñua ere ikasi eta an joan giñan saria jaso eta kantatzera.

Zer geiago bear da? A, bai: Argi Berri elkarteko amaiketako, monteju, odolki eta txorixo.

Doiñua: *Mutil koxkor bat*

1. Aspaldi egin nintzan aitona,
ez nago au ukatzeko.
Aitzaki billa ere banabil
billobekin elkartzeko.
“Aizak i, Jokin, prest al agoke
agindu au betetzeko,
ikastolatik orri txuri bat
ta lapitza ekartzeko,
berdeguneko xoxo beltzari
bertso berriak jartzeko?”.



Aitona Nikolas eta Jokin billoba.
Aitona-billoben arteko tratua gauza askotarako da ederra.
Ez bertsotarako bakarrik.

2. “Baiña gaur lapitz arrasto oiek
dira oso lotsagarri.
Ordenagailluz egin daitezke,
gure etxera etorri”.
“Motel, ni tresna orren aurrean
geratuko nauk elbarri.
Ik bederatzi urte bakarrik,
nola lagundu elkarri?”.
“Proba egingo degu, aitona:
zuk esan eta nik jarri”.

3. “Jokin, ez ote ago oraindik
eskribau kaxkar samarra?”.
“Amak uzten dit, naiz eta gero
egiten didan marmarra”.
“Txoritxo orrek merezi dik, ba,
bertso-sorta bat edarra.
Gaur ere i lo engoen arte
bapo bete dik paparra.
Xoxo ori dek gure jardinek
duten lore beltz bakarra.

4. Gero igo dek zuaitzera ta
izan dik nor salatua.
Ezagun zian nola zegoen
pixka bat ikaratua.
Sasi ondotik begira zorrotz
Joxepatxoren katua,
isatsa kizkur-kizkur zuela
noiz egingo pekatua.
Eskerrak xoxo beltzak bazuen
nundik nora egatua”.

5. “Aitona, atzo bi xoxo zeuden atariko jardiñean.
Batek belarra zeramakien moko ori, apaiñean”.
“Ba, ura arra izango zuan,
Jokin, ago jakiñean.
Apirilla dek, nun ari ote dira kabi egiñean?
San Joanetan xoxo gazteak baietz gerezi gaiñean.
6. Negu-garaian ez dek ibiltzen alaia eta jaso,
bakarti baiña, *txol-txol-txol* otsa,
polita eta goxoa.
Aztarka an ta aztarka emen,
txitxare billa gaixoa.
Askozaz lasaiago zebilek kaleetako usoa.
Berdin babestu bear genikek berdeguneko xoxoa”.
7. “Aitona, leengo elurte artan ez dakit zan xoxo bera bi egunetan etorri zana balkoipeko lurmenera”.
“Gosetutako txoria noiznai agertu oi dek janera.
Baldin ta bertso-sorta onekin ondo irteten bagera,
bakarrrik jarri bearko dituk datorrenetik aurrera.



Ezkerretik eskubira zutik, Aitor semea, gero Pilar eta biok; seigarrena, Nerea erraiña, Aitorren emaztea, aurretik Ordiziako izeba-osabak dituela; zazpigarrena, Irati erraiña. Beean, Jokin eta Irantzu anai-arrebak, eta Mikel semea. Ordizian aterea da argazkia, 2013an, saria jaso ondoren.

8. Xoxoarentzat azaldu nairik
gure borondate onak.
Sorginkerizko tresna onekin
auek al dituk ba bromak!
Ainbeste letra ez ziten leengo
dotriñak eta katonak.
Ondo jarriko aal dituk, noski,
bai puntu eta bai komak.
Bestela ez dik bertso-saririk
irabaziko aitonak”.
9. “Negua otzak pasatu arren,
udaberriko mugara
eldu da eta, aitona, laster
badatorchio udara.
Xoxoagatik saritxoren bat
iristen bada gutara,
oporretara eraman bearko
nauzu zenbait lekutara.
Ez det eskatzen Disneyra baiña
beintzat Port Aventurara”.
10. “Ai, tranpa-ontzi pikaroa i,
erori aiz betikora.
Leengo urtean autobusean
joan gintuan Bilbora.
Funikularra ere or zegok
Donostitik Igeldora,
xoxoa engan bezela zuzen
joaten dana beetik gora.
Baiña geiegi eskatzen badek,
ez gaituk joango iñora”.

Bertso berriak, Basarrik jarriak balira bezela

Bertso auek ere 2013koak dira. Basarri bertsopaper-leia-ketara aurkeztu nituen, Basarri bizi izan zan arte berak egiñak balira bezala.

Basarriren aurtzarotik asita irudikatu nuen bertso-sorta.

Gogoan det Pello Esnal adiskidea izan zala irabaztun eta txapeldun. Zarautzen Basarri sarian txapela ere izaten bait da sari. Gaiñera, urte artan bertsoak jartzeko gaia beartua zan, besteetan ez bezela: Basarri. Au jaio zanetik mendeurrena ospatzen zalako Zarautzen.

Iraillaren aurreneko astea Euskal Astea danez Zarautzen, egunero izaten da ospakizunen bat. Eta ostiralez, Lizardi Saria jokutzen da bertsolari gazteen artean. Eta ekitaldi berean banatzen dira Basarri sariak ere.

Zorionak, zarauztarrak.

Doiñua: Basarriren amarreko aundia

1. Lau kinta urte bizkarrean ta aurrera bosgarrenean, buruz poliki nagoen arren oartu naiz errenean. Eseri ere eseri naute ezinduaren trenean. Azken bertsoak idazten ditut garairik gogorrean. Lagunen batek kanta ditzala nere mendeurrenean.

2. Ez da gezurra zaartutakoan
bat biurtzen dala une.
Gogoan ditut jaiotetxean
bizitako zenbait une.
Beama baillarako Granada,
goiko mendia Gazume.
Ataria zan artzaien eta
artaldeen pasagune.
Ni Iñaxito nintzan orduan,
nere txakur ta arkume.

3. Errezilkoa danik Granada,
Aiaren mugatan dago,
mendi-sakona, errekatxoa,
gaztain, gerezi ta pago,
pendiz ondoko udare, aran,
mizpirak andik gorago...
Luzaro bizi izan banintz an,
onetan seguru nago,
erreziltarrek izango zuten
bertsolari bat geiago.

4. Udaberriz goiz loratzen ziran
fruitu-arbola dotorez.
Granada jira apaindu oi zan
mundu guziko kolorez.
Erramua ere bere eguna
eltzen zanerako lorez.
Basoa kimuz zabaltzeaz bat,
kukuak *ku-ku* oorez.
Natura artan bizi izan giñan,
naiz eta ogei duro ez.

5. Erreka mear artan neu nintzan
amuarraien mamua.
Ez dakit nori kenduta baiña
beti banuen amua.
Amak galdetzen baldin bazidan
“nora oa?”, nik “banua”.
Txori-kabitan eta arrantzan
nere betiko planua.
Puxka batean banuen andik
alde egindako damua.
6. Granada orain eta leenago
ostatua da berez-ta,
San Josetako erromeria
sukaldean oi zan presta.
Amak esaten zuen erara,
“emendik maaia, or festa”.
Soiñu-jolea Elgeta beltza,
ura zan ango orkesta.
Dozenerdi bat neska dantzari,
tartean maistra Modesta.
7. Nik zortzi urte bete baiño leen
laga nuen txoko ura,
antxe bukatu sorlekuaren
Granadako abentura,
ama zan Urdanetakoa ta
noski bere agindura,
danetik neukan kabi artatik
aundiagoko mundura,
beste ostatu eder batera:
Zarauzko Azken Portura.

8. Erri onetan sentitu nintzan
etorkizunez ta zeruz.
Nor ez da lilluratzen Zarauzko
itsasertzaren inguruz?
Ikastetxea fraileetan nuen
fede-giroko elburuz.
Feri egunak ere baziran
illean beingo kopuruz.
An saltzen zeuden bertsopaperak
ikasten nituen buruz.
9. Geroztik beti-beti Zarautza
izan det bizilekua.
Emendik alde egitea da
ia-ia debekua.
Egokieraz egokia ta
aitzakirik gabekua.
Ementxe egin nintzan Basarri,
bertsolari berezkua.
Izen onekin luzatu nuen
Euskalerrira eskua.
10. Bertsolaritzan eta idazten
gazterik nintzan sartua.
Euskera ondo mintzatzea zan
artu nai nuen tratua,
betiko erri-izkera artan;
gerokoa da batua.
Iztegietan zabaldua ta
egon arren onartua,
leengo erara itz egitea
ez dago debekatua.

11. Ilusiotan gaiñezka artu
oi nituen esperantzak,
baiña bidean danetik zeuden,
loreak eta arantzak.
Ardi-jantziko otsoak ere
izaten ditu artzantzak.
Egindakoa or geratzen da,
onar ditzagun balantzak.
Asmatu ote nuen edo ez,
baditut neure zalantzak.

12. Garaiak zaillak ziranez nunai
bertso gose-egarriak,
baiña aurkitu bearrak zeuden
errespetuzko neurriak.
Irratietan ere kostata
giñan euskeraz jarriak,
geure izkuntzan uler zezaten
kaleak ta baserriak.
Zerbait on egin nuen ala ez
esan dezala erriak.

13. Euskera nunai jaulkitze artaz
itxaropen nuelako,
aukera gutxi zegoen baiña
prest nengoen lanerako,
gure doaiak plazaratzeko
premia zegoelako.
Milla zorion, bide beretik
saiatu zeratelako,
bertsolaritza ugaldtu eta
obetu dezuelako.

14. Begiratu det aurtzarora ta
begiratu det atzora,
begiratu det apaletara
nere lantxoen jasora.
Eskerrak zaintzen nauzuen danoi
etxera eta auzora.
Agur, lagunok, iritsia naiz
zaartzaro mantso-mantsora.
Jaunak eraman nazala gozo
atsedenaren altzora.

Tomasa linpiabotasa

Aspaldikoak dira linpiabotasak.

Etiketarik irten egin bear dala diote, zerbait arraro ikusteko eta egiteko. Gu gazteak giñan garaian, nunaiko kaleetan ziran linpiabotasak; au da, kaleetako oiñetako-garbitzailleak.

Bilboko Aste Nagusian ez nintzan askotan izango, baiña izan gabea ere ez naiz. Gaztetan izan nintzanean, linpiabotasari anka jarri gabea ere ez.

Urte asko pasa eta gero, neure bertsopaper auekin nenbillela, gogoratu zitzaidan, ba, gaztetako Tomasa linpiabotasa. Derrigorra nuen bertsoak jartzea.

Getxora ere bidali nituen 2013an, Enbeita bertsopaperleia ketara. Saritu gabeak dira. Baiña txoriren batek esan zidan asko gustatu zirala. Ori da egitako saria neretzat.

Doiñua: Esne-saltzaillearena

1. Onatx bertso-sorta bat,
itzaren jolasa,
irakurri lasa,
aurkituko diezu
umorezko jasa.
Gogoan det, naiz eta
urte asko pasa,
Zazpi Kaleetako
linpiabotasa:
permanenteakiko
Maria Tomasa.

2. Billboko jai aietan
 andre ura an zan,
 Done Jakue plazan.
 Neu ere ikusmiran
 edo egun pasan.
 Bere txalamatika
 ezin nuen jasan,
 “menga, zapata oiek”
 oiuka ta saltsan.
 Anka luzatu nion
 isilduko bazan.

3. Bota zigarroa ta
 zabaltzen du kaja,
 mantal eta praka.
 Pixkor eraso zidan
 txirriki-txarraka.
 Erdi erdalduna zan,
 pixka bat matraka!
 Aren jota navarrak,
 aren jiji-jaja!
 Ipurtaundi samarra
 baiña naiko maja.

4. Zumitzezko silla bat,
 zango ta balustre,
 bazeuzkan eun urte.
 Modaz pasatakoak
 zazpi klase lustre.
 Apaindu zituela
 amaika ilustrre,
 ordaindu gabe joanak
 beste zenbait putre.
 Ni ez nintzala noski
 izango “tan cutre”.

5. Bazuen umorea,
bazuen piperra,
goizeko eperra,
alboan zuelarik
Cinzano bitterra.
Amabietarako
plazako kilkerra.
Zapatek artu zuten
lustratu ederra,
leenengo eskubia
ta gero ezkerra.
6. Festetako lan ura
zuela txoilloa,
nolako roilloa!
Kakarakak kantatzen
zekien oilloa.
Lustrea bai zabaldu,
zabaldu pilloa!
Baiña gero zerekin
atera brilloa?
Danerako trapu bat,
or zeukan falloa.
7. Ez niola egin nai
iñolako parrik,
gutxiago txarrik,
baiña nolatan zeukan
trapu bat bakarrik.
“Txiko, no soy trapera”,
asarre samarrik.
Ez al nuen etxean
arropa zaztarrik:
felpa, kotoi edota
gantzontzillo zaarrik.

8. Nere baitan: "Sekula
alako kasorik
eta arazorik.
Urrengoan ez diot
egingo kasorik".
Baiña banituela
txokoan jasorik
zaartutako trapu
pusketa gozorik...,
gantzontzillo urdiñak,
gaiñera osorik.
9. Lau pezeta zapatak
biak garbitzeko,
biña bakoitzeko.
Ta zenbat kontu polit,
propinak biltzeko.
Pelukerira joan
eta apaintzeko,
gero konpainerekin
briskan aritzeko
edo Txomin Barullon
kopa bat artzeko.
10. Festagarria zera,
señora Navarro,
kaja eta karro:
jaiak nun, zu an, Bizkai,
Gipuzko, Nafarro...
Zapata-garbiketan
zabiltza ain arro,
naiz ta egiten dezun
milla zirriborro.
Baiña ez zazu erre
ainbeste zigarro.

11. Tomasita, bestalde,
zaude naiko lodi,
koloretan ori.
Orrek ez dio onik
ekartzen iñori.
Zuk zaindu bear dezu
lirain eta txori.
Egin zaiezu uko
zenbait kapritxori.
Ea argaltzen zaizun
atzealde ori.
12. “Muchacho, no te pases”,
zioen pozetan,
irripartxoetan,
ugaritzen zijoan
aiñean sosetan.
Ala aritu giñan
kontu-jolasetan.
Musu bat eman zidan,
eta ni lotsetan.
Baiña berriz joan nintzan
Santo Tomasetan.

Ana

Oker ez banago, 2013an izan ziran garai bateko umezurtz eta adoptatzeen emanaldiak eta aitamenak telebistan.

Gai berari buruz bertso auexek idatzi nituen, Ana ize-neko neska baten kezkek azalduz.

Ziur, antzeko kasuak asko izango dirala gure artean. Etxean ere bagenuen eta. Izan ere, garai batean etxean aur bat galtzen bazan, beste aur bat ekartzen zan kanpotik. Eta maitatuz azi.

Adoptatua zala esan ziotenean, egitako amaren billa dijoa Ana neskatilla. Ez dakigu aurkitu zuen edo ez, baiña polita da amaren billa eraman zuen bidaia.

Doiñua: *Udaletxean badut*

1. Iritsi naizenean
adin nagusira,
urteak emezortzi
baditut guzira.
Orain arte ume bat
izan banaiz, tira!,
begi biak zabaldu
ditzadan argira.
Milla ilusiori
eman diet bira.
Nor naizen ez badakit
zertarako dira?

2. “Adoptatu zintugun”
esan didazue.
Emezortzi urte ta
orain diozue?
Leenago zergatik ez,
aizue, aizue!
Kontuak argituko
al dizkidazue?
Ama, aita, amona
ta aizpa Uxue,
ez banaiz etxekoa,
nungoa nauzue?

3. Joan zait gaztaroko
poztasun dan-dana.
Adoptatu-mezua
zer kanpai-tantana!
Albiste beltzgorik
iñoiz neregana...
Biotz-taupadak sarri
datoz banan-bana.
Ana daukat izena,
ta ez banaiz Ana?
Ama, esan zaidazu:
nor da nere ama?

4. Au da au naigabeak
ezin agurtua,
emezortzi urte ta
biotz apurtua!
Bizitzaren aurrean
nago makurtua,
begi bien distira
malkotan urtua,
lotsaren eragiña
gutziz samurtua...
Neu ere ote naizen
ume lapurtua.

5. Jaiotzan izan ote
nuen erizaintza?
Itzuli al zioten
amari emaitza
ala esku-luzeren
batek zuen itza?
Ta galdu-paperean
saldua banintza?
Nun dira agiriak,
nun da eskutitza?
Edo-eta salbatu
zidaten bizitza?

6. Emezortzi urteren
distiraz jantzirik,
ez nioke inori
bota nai arririk.
Itxaropen-izpiak
badakar argirik.
Mundura irteteko
badet arrazoirik,
neure aztarnen billa
burua jeikirik,
ea badedan beste
aizpa ta anairik.

7. Adoptatu izana
ez da ain larria,
nagoelako esku
onetan jarria.
Orain bigarren ama,
au bai pozgarria!
Bera ezagutzeko
daukadan tirria!
Gaurko malkoa biur
dezaket irria,
aurkituko det-eta
famili berria.

8. Nun zaude, nun, bizia
eman zenidana,
urbillekoa ala
urruneko dama?
Bai, bai, dama bat noski,
ez bakarrik ama.
Ziur zeu ere nere
billa zabilzana.
Etxekoak, lagunak,
luza esku bana,
ea aurkitzen dedan
falta zaidan dana.

Iñaxio Kariben

Ni neu ain urrutietara ez naiz joaten, baiña baditut lagunak joaten diranak. Oietako bat da Iñaxio. Aren aotan jarri ditut bertso auek.

Doiñua: *Iparragire abilla dela*

1. *Din, dan, don*: “Kaixo, bidaiariok”,
deika da megafonoa.
Irten gaitezen danok pistara,
zai degu aireplanoa.
Lau, hatxe, zero, zero,
motordunak bi ego.
Joño, au dek arranoa!
Leiatillaren ondoan jarri
eta Karibera noa.
2. Odei zurien gaiñetik goaz
irureun bat bidaiari,
bakar batzuek erdi lotan ta
beste mordo bat kantari.
Ara, ara begira,
Karibe ageri da!
Eldu gerala, *tatari*!
Irlak, ondartzak eta palmerak
itsasoaren atari.

3. Beste mundu bat zirudik onek,
jai-giroko zeregiñak,
palmerapeko txosnetan zear
musikaren eragiñak.
Au dek, au, ikus festa,
laiño bat ere ezta...
Nunai dantza karibeñak!
Dama politak pitxiz jantzita,
gaiñera ipurtariñak.

4. Gizon beltz erren onetxek ere
kokoak saltzen eguna.
“Kaixo, aitona” esan ez dit, ba.
“Yako nauzu, euskalduna.
Bai. Afrikan azia,
Beasainen bizia,
Lazkao Txikiren laguna”.
“Joño! Au da, au, ezustekoa!
Luza bostekoa, jauna”.

5. Itsaso urdin-urdin gardena,
auzo urrutiak irlak,
ta ur-ertzean plisti-plastaka,
nunai bi ankako txirlak.
Ar dezadan arnasa,
egunak lasai pasa,
kargatu ditzadan pilak...
Iñazio zein oillar jarri dan
ez dezala jakin Milak.

6. Itsas bidaiak ere bazeudek
Kuba aldera bitarte,
bezeroen zai ara nun dauden
kategoriko bi yate.
Señoritak gidatzen,
baiña ez nauk fidatzen,
ta jendeak, "anímate".
Ez, ez, joaten banaiz putzura
igual bultzako didate.
7. Plazako argi politetara
luza ditzadan begiak.
"Salas de baile" ere jartzen dik,
auek bai kafetegiak!
Bi sorgintxo atean,
irribarre batean,
animatzaileak biak.
Disimuluan sar nadin eta
kafe bat artuko diat.
8. Barran dagoen txima-tente ark
nolako ille-kalparra!
Jantzia ortik onerakoa,
pintura eta abarra.
A ze lepo-kirtena,
baiña naiko irtena
kokots azpiko gangarra.
Norbait izango dek ori ere,
emea edota arra.

9. Emendik irten nadin leenbaileen,
toki au ez diat ona.
Ondartza alde orretan badek
neretzat ainbat Madonna.
Egunero bezela,
janzten badet txapela,
purutxo bat eta rona,
Yakok bezela ea esaten
didaten “kaixo, aitona!”.
10. Bi andre oiek olatuetan
ara, ara, aztarrika.
“Aizue nungotarrak zerate?”.
“Bizkaitarrak. De Barrika.
Biok gabiltza libre,
Kuba eta Karibe,
Janeiro ta Costa Rica.
Zeu nor zaitugu?”. “Ni, Iñazio:
Iñazio Baztarrika!”.
11. “Guk badakigu kafetegi bat
polit-polita: ‘Los mimos’.
Bertan artuko al degu zerbait?
Zer moduz zaude animoz?”.
“Animoak nai aiña,
bazebilzkiñat baiña
nork itz egingo din txinoz?
Ori bai: soillik izango gaitun
parientes eta primos”.

12. Atso sarjenta oiek bai ote
neretzako modukuak.
Mundu guztian dabiltzala-ta,
auskalo beren trukuak...
Naiz bakarrik aspertu,
di-da ezin baztertu
fidagaitz baten juzguak.
Baldin oiekin ligatzen baaiz,
oker joko dik kukuak.
13. Motza nauk gero, xuurra gaiñera,
egi-egitan esanda.
Dantzarik ere ez diat egin,
ain fidagaitza izanda.
Gaiñera noiztik beinka
señora Mila deika.
Obe etxera joanda,
beso bateko ume beltz orri
eun euroko bat emanda.
14. *Din, dan, don* otsa berriro ere,
megafono-zerbitzuak.
Bagoazela etorri giñan
agureak ta atsuak.
Prestu bi pilotuak,
gu ere bai lotuak,
martxan motor indartsuak.
Agur, Karibe, odei zuritan
kanta ditzagun bertsuak.

Antziñako atsoen parrandie Eibarren

Eibarko istorio zaar bat kontatzen det, *xixa* errimara egokituz.

Diotenez, mende bat ba omen da gutxienez. Kontatzen dutenez, lau atsoren arteko kale-afari bat izan zan. Neri larogeitaka urteko aitona batek kontatzen zidan. Gaiñera, kantaren bat ere kantatzen zuen.

Nik ez dakit kontatzen diran kontuak sinetsi bear diran edo ez. Nik, beintzat, erositako prezioan saltzen ditut, txantxa sano bat erabiliaz. Ziur nago ez zaizkidala aserretuko Eibarko lagun zaarrak.

Doiñua: Esne-saltzaillearena

1. Banoia kontu zaarren
kontalari gixa.
Pasadizo polit au
galdu bait zan ixa.
Ala balitz benetan,
pekatu larrixa.
Bitxi eguneratu
nai dot aspaldixa.
Eibartarron euskeran,
xixa eta *xixa*.

2. Auskalo zenbat urte,
igual gizaldixa!
Eibarren ospatu zan
gau barregarrixa.
Andrazkuen afari
ikaragarrixa.
Autsi eben baraua
eta bijilixa.
Serorak alperrik jo
eban matutixa.

3. *Tarrapatan* bandoa,
alerta errixa,
kalera urten eban
Eibarren erdixa.
Arragueta kalia
zala notizixa.
Lau atsoren arteko
kale-afarixa,
beean txurrutia ta
goixan illargixa.

4. Atzazkal pintatuek
kolore gris-grixa,
ezkontzako koillarek
perla-irudixa,
zapata takoi fiñak,
eskota lasaixa...
Paternoster batekin
bedeinkatu maixa.
Onela asi eben
euren istorixa.

5. Batek baebala ta
kerido barrixa,
“busti biarra jagon
olako barrixa”.
Sake librean eben
txurruta-neurrixa.
Bai arrapatu ere
krixton piripixa!
Alanda be, zelatan
kendu egarrixa?

6. Amantaldun amama
bat zerbitzarixa.
Umoretsua oian
atso-tertulixa.
Leenen txispatu zana
Anttoni aundixa,
edonori keiñuka
eskuma begixa.
Ustu eben bigarren
klarete gorrixa.

7. Arbeletik autatu
eben janarixa:
kontsome-saldia ta
moxal-aragixa,
gero “brazo gitano”
librako zatixa,
Terry koiñaka eta
Cadenas anixa.
Nola aaztu eukaben
amore-krisixa?

8. Gero ezin tentetu,
ara komerixa!
“Non ote don komuna?
Au pixalarria!”
“Gaur ere ola al aiz,
betiko Marixa?”
Elkarri erakusten
tutulu-mendixa.
Batek baltza ebana,
besteak rubixa.
9. Baeben zirku ura
nortzuk ikusixa.
Katalinak: “nerea
ez don itsusixa”.
Erabaki biarra
egoen auzixa,
amama mantal gorri,
begiralarixa...
Irabazle urten zan
Maria txikixa.
10. Illunabarrez asi,
ixa gaberdixa,
flamenkua dantzatzen
señora Luixa.
Barrez leertzen egoen
inguru guztixa.
Eta bozina joka
garraio-gurdixa:
kalian ezin pasa
Antonon tasixa.

11. Atsoen festa oian
naiko berezixa.
Baegoen zer entzun
ta zer ikusixa!
Ez eban merke urten
euren kutizixa,
ta tutulu-mendixen
erakustaldixa.
Orra Arragueta,
kaleko Parixa.

12. Eskerrak, bai, epela
zan eguraldixa.
Ilargia borobil
naiko sargorixa.
Prisa barik jendea
ta tabernarixa.
Urten eben txarangak
eta trikitixa.
Gero San Joanetan
txingor-erauntsixa.

13. Ara zelan amaitu
eben antzerkixa.
Udaltzaingoeak egin
bear justizixa.
Don Pedro erretorak
domekan sermoixa:
barkatuta eguala
atsoen perixa,
baiña penitentzian
eun abemarixa.

Urtezaar eguneko parranda

Zenbat bertso-lan daukadan egiña 2013an!

Urtezaar egunean, parranda bat baiño geiago egingo nituen nik, baiña azkenekoa aipatzen det ondorengo bertsoetan. Garrantzitsuena iruditzen zaidalako, eta azkena zalako.

Izan ere, Donostia bezelakorik orrelakoetarako! Bein Parte Zaarrera sartu ezker, badirudi ez zaituela iñork ikusten, naiz eta danen bistan ibili.

Edozein urte-garaitarako ere ederra da Donostia, baiña Urtezaarrerako zoragarria.

Mugi txartela erabiliaz, jarri Lurralde autobusean eta ordu-erdian Donostian. Jubilatua geranok zer geiago bear degu? Giro ederra dala, Donostiara. Amona aserre dagoela, Donostiara. Ni, beintzat, orretan saiatzen naiz.

Ez dago esan bearrik, noski, zer izen diran bertsoetan agertzen diranak: Gaztelubide, soziedadea; Oiartzun, pasteldegia; Perujoantxo, kalea; San Bizente, eliza; eta gainerakoak, ostatuak: Kukurruku, Eibartarrak, Txalupa, Zeruko, Erniope, Baztan, Borda-berri, Quinto Pino, Aralar, Gorriti, Ttuntun, Txokolo, Bar Colón, Bar Joxe Mari, Aitona eta Zubeltzu.

Doiñua: Norteko ferrokarrillarena
(egokitua)

1. Iaz Urtezaar goizean,
Lurralde autobusean,
jendeekin kuxkusean,
parrandarako pozean,
Donostiako Parte Zaarrera
joan nintzan giro otzean,
kontrabandoko egun-pasa bat
antolatzeko gosean,
ezker-eskubi ostatu pilla
dagoen kale luzean...
Ta Elgoibarren izan nintzala
kontatzen diet etxean.

2. Txoko batean bi zita
bait nituen idatzita,
autobusetik jeitxita,
lagun zaar aiei bisita.
Goizegi joana izango nintzan:
Gaztelubide itxita.
Bertso batzuen truk gosaltzea
neukan aurreikusita.
Penak garraio alde egin nuen
baraua ezin autsita,
kaxuelkada tripakiari
pake-pakean utzita.

3. Neure txapel ta makilla,
praka urdin, zapatilla,
erdi gose, erdi illa,
salda beroaren billa;
Albariño bat frexko-frexkoa,
urdaiazpiko-tortilla.
Orduan asi zitzaidan pizten
lotan neraman bonbilla.
Gero Oiartzun pasteldegitik
Urtezaarreko opilla,
ura etxera ekartzeko zan:
gindakiko borobilla.
4. Andik Eibartarretara,
Kukurruku ere ara!
Baiña noan Txalupara.
Baita ere Aitonara.
Eta ondoren Erniopeko
txanpiñoiaren festara.
Opilla pardelean nuela,
an nenbillen *lara-lara*,
bertso-sorta au jartzeko kontuz
jantzi nai buru-ganbara.
Bonbilla batek argi gutxi-ta,
ea pizten zan lanpara.

5. Baztandarretan antxoak,
gazitutako goxoak,
leunak bezain mantsoak,
txurrutarako gantxoak.
Jakiña, sarri busti bear du
orrelako arrantxoak.
Gaur burutuko ote dizkiat
artu ditudan lantxoak?
Baiña artean ere baneuzkan
probatzeko kapritxoak:
Borda Berriko txistorra eta
Quinto Pinoko pintxoak.
6. Aralartik Gorritira
ere eman nuen bira,
joan gabe nafar mendira.
Ostatu politak dira.
Ttunttunen, berriz, pintxopotea
omen zuten eta tira!
Ezin ordea danera sartu,
geratu nintzan begira.
Berealaxe musika-otsa
zetorkidan belarrira.
Urtezaarreko azken goizari
bazetorkion distira.

7. Perujoantxo kantoian,
soiñujole bat doi-doian,
Manolo bere sermoian
an ari zan espaloian.
Ekitaldia eskeiñi zigun,
baita ere saxofoian.
Euskal kantuen doiñurik-edo
ea bazuen kajoian.
Baietz, opilla emateko ta
jarriko zala sasoian.
Iru bat atso bagenituen
begira goiko balkoian.

8. Abiatu zuen trena,
"Txoria txori" aurrena,
ondoren Xalbadorrena,
"Iru damatxo" urrena.
Jendea barra-barra zijoan,
kale-ertzean barrena.
Euro banakak erortzen ziran,
ark pozten zion barrena.
Amona txiki batek albotik:
"Urtezaarrik ederrena!
Egunero au entzun aal banu,
ez nintzateke errena".

9. Kale-kantoian, zer broma:
“Txintxibiri”, “Dona-dona”.
Krisiari or-konpona,
tori opilla, gizona!
Begiraleek lautatik birek
botatzen zuten txanpona.
Iparraldeko gazte-taldeak
aiek ere esker ona.
Bastoiarekin, “koxka onetan,
apatxo egin, amona.
Emen zaudela esango diot,
ikusten badet aitona”.
10. Agur eginda Manolon,
banindoan tolon-tolon,
anka biak kili-kolon,
burua, berriz, auskalon...
Uste det ote nenbillen ere
jendearen bolo-bolon.
Baiña artean ez nintzan izan
Zubeltzun eta Txokolon.
Zueri ere “urrengo arte,
Bar Joxe Mari, Bar Colón”,
azken txakolin txinpartatsua
zai neukalako Bartolon.

11. Azkenean piri-puru,
ez anka eta ez buru,
erre ere bai bi puru...
Aski dek, Patxi Goiburu.
Txurrutadatan, mokaduetan,
al dakit ba zer kopuru!
Pintxoak beintzat izango ziran
sei edo zazpi inguru.
Albariñoak lau bat geiago,
baiña ez nago seguru.
Errematea txorrotarekin,
Zeruko kafe tururu.
12. Goiz-parrandaren epela,
lau bat orduz nenbillela,
a zer-nolako pastela!
Zer izango zan bestela?
Ez dakidana: nun galdu nuen
“Mugi” autobus-txartela.
Baiña artean neurekin neuzkan
makilla eta txapela.
San Bizenteko eliza zaarrak
piztuta an du kandela,
datorrenean itzuli nadin
leengo urtean bezela.

Pitxu il zan gauean

Gure etxean, 2014aren aurrenean, bixkiak jaio ziran. Eta gau berean il zitzaigun Pitxu.

Auxe baiño gai bikaiñagorik bertso-sorta bat jartzeko!

Nor zan, ordea, Pitxu? Etxeko txoria, Agapurni arrazako txori berde jostalari bat. Oso estimatua genuen etxean. Edonor zirikatzen gintuen. Oraintxe jarriko zitzaizun sor-baldan, oraintxe eskuan zenuen ogi-koskorra mokokatuko zizun... Itz baterako, etxeko umea zan.

Zergatik artzen diegu olako kariñoa-edo esaten dana etxean ditugun txori eta animaliatxoei? Zenbat eta naaste-borraste aundiagoa egiten diguten, orduan eta geiago miresten ditugu. Gu baiño askozaz azkarragoak dirala ere bereala konturatzen gera.

Baiña egun batean oartu giñan Pitxu mottel zegoela. Bere gorputzetik lumak ateratzeari ekin zion.

Albaiterira eraman arren, berdin jarraitzen zigun. Eta amar egunera il zan. Esan nien gure etxekoei:

–Ez geiago txoririk ekarri etxera, onela sufritze ezkerro.

Eskerrak, bai, gau berean, Aratz eta Unai jaio ziran. Naigabearen ondorengo poza.

Doiñua: *Udaletxean badut*

1. Kantura naramate
sentimen-izpiek.
Lan asko duten arren
umetan bizkiek,
etxea zenbat bete
diguten txikiek!
Batek txoratzen gaitu,
eta pentsa biek...
Biurrikeritxoak
barkatzen dizkiet.
Pitxurena bertsotan
kontatuko diet.

2. Billobak aitonaren
bizipoz-iturri,
zatozte magalera,
eserita jarri.
Kontuak esateko
dauzkagu elkarri.
Zuen jaiotza-gaua
penaren aazgarri.
Naigabeak biurtu
zitzaizkigun irri.
Pitxu joan zanean,
zuek bi etorri.

3. Bagenuen txori bat
ia zentzuduna,
bein leiotik etxera
sartu zitzaiguna.
Bereala egin zan
guztion laguna.
Tentagarria bezain
xaltxero kuttuna,
zuek jaio aurretik
etxeko utsuna
bere jolas ta kantuz
betetzen ziguna.
4. Billobatxook, entzun,
entzun istoria.
Pitxu deitzen genion,
arra zan txoria,
Agapurni arraza,
mokoa lodia,
berdea lumajea,
burua oria,
begi-borobilla ta
ego-eroria,
aitonari maxkatzen
ziona ogia.



Beso gaiñean det Pitxu,
txori berdea eta arra,
akabatu zitzaiguna.
Bere lagun emea
belarritik tiraka ari zait.



Pitxu il zan gauean jaiotako billoa bizkiak:
ezkerrean Unai eta eskubian Aratz.
(Argazkia: Ander Gartziandia/Eztifoto)

5. Kaiolatik atera
orduko kanpora,
zuzenean joango zan
irradi ondora.
Bazekien botoia
nola jira gora.
Buillan jarritakoan
ospa nora-nora,
geienean betiko
armairu txokora.
Artistarena egin
ta bera gustora.
6. Telefonoak jotzen
bazuen tirriña
edo lagunen batek
ateko txiliña,
an izango zan gure
txori piruliña.
Ziur berea zala
leenengo mitiña.
Azkar kantatzen zuen
zekien pitiña,
piperrik ez genion
ulertuko baiña.

7. Geienbat jolasten zan
sukalde-giroan.
Edonoren sorbaldan
noiznai an zijoan.
Arraskan iturria
bazan txirrioan,
zer ego-dantza polit
ango jarioan!
Nolako zipriztiñak
ondoko leioan!
Amona jartzen zuen
errosarioan.

8. Salataria, berriz,
esate batera.
Ikusten baninduen
balkoitik kalera
norabait joaten edo
etortzen etxera,
xalapartan asten zan
umeon antzera...
Jeitsi ere jeitsiko
zaitekeen beera.
Izan ere ume bat
bezela zan bera.

9. Une atsegin asko
eskeintzen zizkigun.
Jolasaldiak milla
generamazkigun.
Baiña bat-batean nun
triste jartzen zaigun.
Arratsetik goizera
txepeldu zitzaigun.
Bi zarpa indartsuak
ere bigun-bigun.
Oraindik ez dakigu
zerk gaixotu zigun.
10. Lepo-jiratik lumak
kentzen eta kentzen...
Asi bazan asi zan
danak ateratzen.
Koituduak geroz ta
zaillago egatzen.
Airatu gabe ez da
txoririk sendatzen.
Txikiok, ni saiatu
nintzaion laguntzen.
Ez zuen lanik izan
zuek ezagutzen.

11. Ilbeltzak ogeita lau
jartzen zuen datan,
otzak zegoen dar-dar
gaixoa goiz artan.
Epeldu nuen arren
goxo-goxo batan
ta egunean zear
sutondoan mantan,
azkena zetorkion
ate joka *tan-tan*.
Errukiak alperrik,
biziaren faltan.

12. Txori bat maitatzean,
ene!, itsu-itsu,
bi urte ta erdian
zenbat txutxu-mitxu!
Jostalaria bezain
kantari berritsu,
txioka eman zidan
amaika abisu.
Orain bere utsunak
badu naiko pisu.
Illunabar berean
isildu zan Pitxu.

13. Amaitu zan txoria,
eguna ere bai.
Gaua zer izango ta
zorionaren jai.
Illabetetan geunden
etxean zuen zai.
Billobatxo bizkiak,
bi mutil, bi anai,
leen izarra bezain
eder eta alai
jaino zinauten biok,
Aratz eta Unai.

14. Geroztik familian
ezer ez da garratz.
Zuei begira gaude
egun eta arrats.
Biok zerate gure
etorkizun-ardatz.
Naiko txori badabil,
atari ta baratz.
Aitonaren magalak
ere ar dezan ats,
zoazte jolastera,
Unai eta Aratz.

Amona Piririren erleak

Lazkao Txiki bertsopaper-leiaketakoak dira bertso auek ere. Irugarren saria zuten 2014an.

Geure etxeko balkoiko gertaera batzuk agertzen dira bertan. Guk oitura degu, izan ere, fruta eta beste janari mota batzuk iparraldetik degun balkoian edukitzekoa.

Bolara artan, urdai-irugiar zatiren bat zegoen armairuko apalean. Eta erleak zetozen irugiarrera. Bere aria janez, nola ezkututzen diran irugiar barrura!

Egun batean, emazte Pilarrek ikusi du beste erle itsusi oietako bat dagoela.

–A, bai? Ez aiz geiago joango Asiara!

Artu du orratza eta zazta bizkarrean.

Baiña erle asiarrak martxa, bere orratzarekin, aurreko etxe-teillatuan barna, *muuu* joaz.

Orra, ba, amona Piririren erleak.

Doiñua: Bizkaiko txerriarena

1. Atozte bai atozte,
nunaiko erleak,
balkoiko armairuko
jakien jaleak,
urdai, irugiar ta
txorixo-zaleak,
zintzoak, atsegiñak
eta ikerleak,
amona Piririren
xamo maitaleak.



Nere emaztea: Maria Pilar Eizagirre, gure etxeko amona.
Bertso auetan, Piriri deitzen diot.

2. Urdai, irugiarra
erletxoek miztuz
txurruptzen dituzte
azaletik listuz.
Aulak etorri arren
or dijoaz pixtuz.
Ez dira ikaratzen
ate-zirrikixtuz,
oraindik gutxiago
txoriaren txistuz.

3. Ikusten al dituzu
bitxo auek, Bittor?
Eguzkiarekin bat
eldu dira pixkor.
Ez dagoelako ez
armiarma, ez liztor,
bai irugiar eta
bai lukainka-txistor,
nola eraso duten
txist emen ta txist or.

4. Erdi gose badatoz
ainbat erle gaixo,
ongi etorri bitez,
guztieri "kaixo",
naiz jaten dizkiguten
urdai ta txorixo.
Bittorek: "oiek ola,
ta ni lixo-lixo".
"Aizu, zu bapo janda
zaude eta ixo!".

5. Eguzki-erraiñua
goizean bixtaka,
txoria bera ere
kantuan drixxkaka.
Asten dira erleak
mixkaka-mixkaka
bi gauzetatik jaten
bitatik pixkaka,
batzuek biraka ta
besteak txixtaka.
6. Erleen etorrera
naiz izan goiztarra,
ara nun agertzen dan
liztor asiarra.
Ez dakit zan emea
edo-eta arra.
Ark ere zurrupatu
nai irugiarra.
Aizak, ez didak joko
nai dean gitarra.
7. Gaiztoa, itsusia,
gaiñera narratsa,
gosari billa ator,
pasata arratsa.
Nere erle gaixoen
beldurrezko dantza!
Ago, ago, pixka bat,
artuko dek latza.
Zazta bizkar gaiñetik
josteko orratza.

8. Zamo ura ez bait zan
santifikatua,
laga nai nuen bertan
katramillatua.
Ala ta guzti, ies.
Madarikatua!
Gainditurik aurreko
etxe-teillatua,
marmarka joan zan liztor
banderillatua.
9. Nere balkoian ase
nai zuen gilborra.
Utsa, izan balitza
alako pizkorra.
Gaizki irten zitzaion.
Nik ere *txist*, orra!
Banderilla ta guzti
martxan da liztorra.
Jatea du Asian
txinoen txistorra.
10. Berriz baletor liztor
asiar frikirik,
azkurea kenduko
diet *kirik-kirik*.
Ez dute dantzatuko
euren trikitirik.
Xamo eztigilleak
nai ditut bizirik.
Erleak maite ditu
amona Piririk.

Andrearen bisita

Iritzira moldatu nuen bertso-sorta au, pixka bat nere baitan, gaizkiulertu bategatik espetxean dagoen familiako aita baten lekuan jarrita. Bati baiño geiagori gertatu bait zaio onelako zerbait.

Gure artean zenbat aldiz aipatu da espetxea, zoritxarez! Zenbat familia dabil aruntz-onuntz, etxekoren bat dutela an eta beren bisitak egiten!

Emen, andrea dijoakio bisitara. Eta kristalez alde banatatik egiten duten elkarrizketa-moduko bat agertzen da bertso auetan.

Doiñua: *Markesaren alaba* (egokitua)

1. Eriotz zigorraren
buzoa jantzita,
giltzapean naukate
beldurrarazita,
aldiz oiñak katean
grilluz erantsita,
ori gutxi balitza,
ateak itxita.
Armadun giltzeroak,
zorrotz begi-bista,
baiña gaur dei egin dit:
“Tienes visita”.

2. Ireki ordurako
gelako atea,
krisk-krask, esku-burniak
bigarren katea.
Pasagunean zear
a zer gizartea!
Ain zailla al dezue
ni eramatea?
Nor ote da? Banoa,
irrikaz betea.
Kristalez bestaldean,
ene, ba, maitea!

3. “Kaixo, kaixo, laztana!,
biotza betean.
Zer aingeru agertu
zaidan bat-batean.
Ederretan ederra,
eta ni katean...
Gaizkiulerturen bat,
dago bitartean.
Argatik degu kristal
lodi au tartean.
Zeiñen gertu gauden ta
zeiñen apartean!

4. Lotsa pasa arazi
dizue sarreran,
biluztu zaituztela
miaketa-gelan.
Eskumen gaizto ori
bada, bai, kartzelan.
Fidatu zitezkeen
onelako perlan.
Atso itsusi oiek
orretan dute lan.
Inbidia txikia
ez diezu eman.
5. Segurtasun-neurrien
betiko sarea.
Ortik pasa bearra
ez da dotorea.
Baiña aaztu dezagun
orren zaporea
ta biona aipatu,
zurea, nerea,
eta iru puxketak,
geure ondarea.
Zer moduz Anetxo ta
morroxko parea?

6. Kontu ariñez soillik
zu ez zaude trankil.
Lasai, azalduko det:
orretantxe nabil.
Polizia kasua
berraztertzen dabil.
Egizko gaizkillea
dute urbil-urbil.
Ez da luzarorako
maltzur eta abil.
Zin dagizut, maitea:
nik ez det inor il.

7. Ziñez aitortu dizut
dagoen guzia.
Nioena: lanean
dabil polizia.
Ziur nago egingo
dala justizia.
Beingoz amaitu bedi
amets itsusia.
Bitartean xurgatzen
ari naiz bizia.
Errudunagan piztu
dadilla suzia.

8. Kristalean eskuak
dituzu dardarrik.
Zure atzen ganduak
sortzen dit indarrik.
Ezkututik argia
darion izarrik
iñun bada neretzat,
zera zeu bakarrik.
Maitea, lasai zaitez,
ez egin negarrik,
maitasunak ez du-ta
malkoen bearrik.
9. Amona ariko da
max-max arratsean,
errosarioren bat
egun bakoitzean.
Esan alperrik ari
dala otoitzean:
ez da Santo Kristorik
gure espetxean;
argazki maltzur batzuk
bai zuri-beltzean
ta borrero pilla bat
aien babesean.

10. Ikusten al dituzu?
Bi tipo zai daude.
Bisita au amaitu
bearrean gaude.
Azken etorraldia
au bazenu obe.
Naiz minutuz minutu
zai nauzun, Nagore!,
ni *bla-bla-bla*, eta zu
erdi isil zaude.
Zenbat esan didazun
ezer esan gabe!

11. Ez dutelako jakin
gaizto bat bereizten,
guretzako ari da
infernua pizten.
Pixkaka joango gera
lorpenak iristen.
Ez diegu lagako
animoei jeisten.
Tinko jarrai dezagun
geurean sinisten.
Denborak jakingo du
zauri danak ixten.

12. Egan dijoakizun
musu-sorta tori.
Banatu zaizkiezu
iru morrozkori.
Laster naizela aske,
aitona Pellori.
Bitartean zaindu zu
lirain bezain txori,
eta ez egin uko
zenbait kapritxori.
Amesgarri zait zure
irri polit ori”.

Kixkilla eta Pernando

Sorta au 2014koa da, Pernando Amezketarra jaio zanetik berreun eta berrogeita amar urtera ospatutako jaien ondoren jarria, Irati erraiñak eskatuta, Zarauzko La Salle ikasketxeko aurtzaindegiko umeen festagarri. Aratz eta Unai bixkiei ere kantatuko zizkien, noski.

Nik ez dakit Pernandoren txakurrak zer izen izango zuen, eta Kixkilla bururatu zitzaidan. Izen arin bat nai nuen, ainbeste ume koxkorri jaialdian kantatzeko. Ez bait da erreza izaten umeei gustoa egitea.

Doiñua: *Ari naizela, ari naizela*

1. Pernando oso beartsua zan
Amezketako ertzean,
Mari Joxepa andre aundi bat,
beti kopeta beltzean.
Gaiñera, amar seme-alaba
bazituztela etxean,
batzutan erdi jantzian eta
bestetan erdi gosean.
2. Txakur txiki bat bazun Pernandok,
izena zuen Kixkilla.
Ttonttolo-planta bazuen baiña
listoa eta abilla.
Zerbait aurkitu nai zuenean,
zaunkarik ez ta isilla.
Apaizaren oillategira' re
joaten zan arrautza billa.

3. Gure Fernando Tolosara edo ferira zijoanean,
txakur txikia beti berekin
zeraman aldamenean.
Saltzailleren bat pixka-pixka bat
deskuidatzen zanean,
gazta txikiren bat artzen zuen
aukerarik zuenean.
4. Fernando argi ibiliko zan
txakurraren inguruan,
zaku txiki bat sorbaldan eta
txapel zaarra buruan.
“Goazen, Kixkillak, arkupetara
ea zerbait badaguan.
Oillo zaarren bat baldin badago
sartuko diau zakuan”.
5. Eta apaiza deskuiduan
azaltzen bazan ferira,
disimuluan azkar egingo
zuten bestaldera jira.
Keiñu egin txakurrari eta:
“Txiki, mugi adi, di-da.
Arrautza billa joan inteke
apaizan oillategira”.
6. Txakur Kixkillak ez zituen, ez,
egiten bidaje utsak:
aoan artu eta banaka
ekartzen zitun arrautzak,
puskatu gabe, gainera, naiz ta
ez zeuzkan ortzak kamutsak.
Txakur txiki ark etxe pobrean
egin zituen laguntzak!

7. Txakur Kixkilla eta Fernando,
biak bat litxarrerian.
Mari Joxepa erritan baiña
aiek bakoitza berian.
Orduan txakurrari Pernandok:
“Kixkilla, i eseri an!”.
Ta andreari esaten zion:
“Erosi ditut ferian”.
8. Urtean beingo jauna-artzea
basetorkion urrengo.
Orretarako apaizarekin
konfesatzera leenengo.
Pekatu danak ziran bezala
ez zizkion, ez, esango.
Txakurtxoaren aitzaki egin
ta libratzen zan Fernando.

Errenteriako Magdalenatan

Bertso-sorta au 2015ean idatzi nuen, ia irurogeita bi urte leenago gertatuari buruz. Izan ere, badet mutikotako egun gogoangarri bat, gurasoekin Errenteriara gonbidatu joanda.

Izeba-osabak genituen Errenterian. Nik dozena bat urte nituen. Gu baserrian baserriko jakiak jaten oituak geundenez, ango azeituna, esparrago, maionesa eta gauza arraro aiek ikusita, pentsatzen nuen “gure etxean txerriari obeak ematen zizkioagu”.

Baiña ura nere errua zan. Izeba-osabek asmorik one-nez prestatuko zituzten janariak. Nik zer nekien, ba, azeitunak kaniketan jolasteko baziran ere!

Ba, irurogeita bi urtera egun ura txantxarako artu eta sorta auxe moldatu nuen.

Doiñu berria: *Errenteriako Magdalenatan*¹

¹ Doinua, Nikolas Zendoiak berak moldatua da, dantza-doinu bat oinarri hartuta. [Editorearen oharra]

1. Baserriko mutiko
biurri saltsero,
urteak banituen
dozena bat edo.
San Ferminak aldea,
eguzkia bero,
esnezaleak karta,
astoa kartero.
“Doña Joxepantoni”,
ama zan bezero.
Ea nundik datorren
remitean bego:
“Barrio Capuchinos.
Casa caminero”.
Señora Marta naiz ta
“Errenteri” gero.

2. “Ama, ireki, ea
zer datorren kartan”,
Francoren zigillua
zuen azal artan.
“Ago pixka bat, motel,
ta ez asi latan.
Kontxo, ara zer dion
bere mari-martan:
‘Gonbidatzen zaituztet
erriko festatan.
Bazkaria jarriko
det Magdalenatan:
azeitunak, kroketak
ta antxoak latan.
Sagardoa ere bai,
ardoaren faltan”.

3. “Ama, nik ere joan nai
det Errenterira.
Aita eta irurok
goazen ferira,
Xenpelar bertsolari
zanaren errira”.
“Tiragoma etxean
laga zak, sikira”.
“Baiña an xoxo beltzak
ibiliko dira”.
Trenez eta tranbiaz
Magdalena jaira.
“Kaixo, zer moduz?”, musu,
enbustekerira.
Izebak *pla-pla* txalo
eta danok maaira.
4. Paternoster-lege bat,
gosearen presak.
Zer jaki ziran aiek:
inglesak, frantsesak?
Saltxitxoi, erremolatx
eta maionesak,
antxoa gazituak,
esparrago gezak,
azeitunak bi klase,
berdeak ta beltzak...
Osaba Dionisiok:
“mutiko, jan ezak!”.
Auxe dakar etxetik
iñoiz irten ezak.
Nik zer nekien ba zer
ziran entremesak!

5. Azeituna berdots bat
sartzen det aora
ta ortzekin estutu
baiña ez gustora.
An nebilkin bueltaka
beera eta gora,
barrura bota nai ez,
ezta ere kanpora.
Tragoxka bat sagardo
atera basora,
komunera joanda
igo naiz leiora.
Tiragoman lotuta
apuntea nora?
A zer martxa eraman
zuen itsasora!
6. Etxetik ikusten zan
arrauna, estropa...
Itsasoko leiari
begiek stopa.
Leiotik begiraka
gu bazkaldar-tropa.
Bitartean oztutzen
“sopa prisa” zopa.
Oilloarenik beintzat
ez ziguten opa.
Gisatzeko patatei
aragiak ospa.
Ala ere elduek
egin zuten topa:
patarra Terry baiña
whiskiaren kopa.

7. Osaba Dionisio
zan kamiñeroa,
bazirudien ere
karabineroa.
Azpeitiko Loiola
auzoan jaioa,
maiordomo-etxeko
azenarioa,
luzea ta iarra
eta serioa,
jesuiten antzeko
kontu-jarioa,
ari agoantatzea
zan kalbarioa...
Saltsa danen perrejil
boluntarioa.
8. Izeba Marta, berriz,
aitaren arreba,
pixka bat xuurra ere
bazan-da, ene ba!
Ark oillo-zopa jarri?
Ezta... keba, keba!
Gerraostean eskas
txanpon-erreserba,
Patxiren mende giñan...
Urte aiexek, ba.
Artean zorrotza zan
diktadura-sega.
Mutiko ark egin du
zaartzarora ega.
Txantxa geiegi bada,
barkatu, izeba.

9. Irurogei eta bi
urte badirala,
dixosozko bazkari
ura egin zala,
Santiago bezpera
eta ostirala...
Artaz erabili det
txantxa mundiala:
osabari aitzaki,
izebari ala.
Ez ziran, ez, xuurrak;
bikote leiala.
Balekite bertso txar
auen martingala,
ziur nago lurpetik
jeikiko zirala.
10. Egun artan ez zan, ez,
maaian ezer falta.
Egin genuena zan
bazkari aparta.
Beste gauzez, gaiñera,
sekulako tarta.
Ori bai: azeituna
itsasora zarta.
Osaba Dionisio
ta izeba Marta,
zintzoak, fededunak,
santua ta santa.
Gogoan jaso nuen
eguna ta data.
Urrengo urtean ere
iritsi zan karta.

Neurriko botak

Donostian, Arcco Amara denda erraldoi artan, arratsalde bat pasa nuen bazterrei begira. Leenengo, bee aldean; gero, goiko solairura ere igo nai...

Jende asko zebillen. Pentsa: ni joaterako!

Eskailera ederra bai: automatikoa, bera ibiltzen zana. Baiña jendez bete zanean, ura zan kabitu eziña! Ura zan elkarki begirada kariño gabeak bota bearra!

Ni baldar samar jarriko nintzan, noski. Neure bota aundiekin errudun bezela sentitu nintzan, beintzat. Mojatxo bat ere bazan eskaillera automatikoan, eta ark ere betaurreko gaiñetik begiratzen zidan.

Doiñua: Bizkaiko txerriarena

1. Jendeak egin berri
dizkit parre latzak.
Danetik ziran: pobre
eta aberatsak.
Soiñean neuzkalako
bota aundi-antzak,
zenbakia berrogei
eta amar pasak,
ferian artutako
pisamierdasak.

2. Arcco Amaran nintzan
Donostiakoan,
txamarra bat erosten
era betikoan.
Bigarren solairura
nola beetik joan?
Botak ezin kabitu
mailla lapikoan,
bertako eskaillera
automatikoan.

3. Bai gora ta bai beera
jendea gaiñezka,
andra kuxkuxera ta
zenbait mari-freska.
Ni ezin joan zuzen,
pixka bat trabeska...
Motxiladun gazteak,
nola ez!, parrezka.
Moja bat ere bazan
nor nintzan galdezka.

4. Aurkituko zidaten
kaiku-aurpegirik,
baiña nik ez neraman
bota geiegirik.
“Ez al dezue begiz
juzgatzen neurririk?
Edo-eta ikusi
erdi erraldoirik?”.
“Baldarrak asko baiña
ain anka aundirik...!”.

5. Nik ez nion iñori
tira eta bultza,
gutxiago pakea
sesiora kutsa.
Jende ura naastea
ez zan nere funtsa.
Ango kuxkux isillak,
ango parre-putza!
Tribuko indio bat
izan banintz, utsa.
6. Prakak urdin, txapela,
botak, txalekua,
nere jantzia mendi
eta kalekua.
Noranairako ere
lotsik gabekua.
Baiña aitzaki utsa
zan oiñetakua,
artzen nuelako bi
lagunen lekua.
7. Isekazko irriak
orrenbeste kristauk,
nere baitan: “Ain baldar
etorri ote nauk?”.
Sor Maria urduri,
antzeman nion neuk.
Eskerrak bai norbaitzuk,
errukiaren truk,
“perdón, señor” eskatu
zidaten iru-lauk.

8. Noizbait iritsi giñan
goiko solairura.
Txingurriek bezela,
di-da, partidura.
Gonbite bat luzatu
nuen ingurura
barkamena eskatu
zuten iru-laura:
“Goazen zerbait artzera,
ta nere kontura”.

9. An abiatu giñan
Arcco kantinara
mojatxoa, Iñaki,
Leire ta Ainara.
Lasaitu nintzanean,
urrundu ikara.
Zer aldakuntza lortu
nuen andik, ara:
patoso izatetik
protagonistara.

10. Dotore asko neuzkan
oiñera jarriak,
zaldi-zurdaz egiñak
beren lokarriak.
Txipa aldatu nuen,
erne belarriak!
Zer erosiko eta,
jakiñik neurriak,
txamarra baten ordezt,
zapata berriak.

11. Beti zerbait ikasten
da jende artean.
Marmar guztiak nunbait
ez dira kaltean.
Txutxeriak erosten
antxe bitartean,
kolonia bat ere,
zazta, paketea...
Modara jantziko naiz
egunen batean.
12. Arcco dendaren aurka
ez daukat ezerre.
Jende aiekin nago
pixka bat aserre.
Tramankuluan gora
iso eta arre.
Baiña jartzen bagera
berriz aurrez aurre,
ez didate egingo
orrenbeste parre.

Balerio dendan

Donostiako arropa-denda kategoriako batean, nere antzeko baserritar-moduko bat ikusi nuen bein txaketa larruzkoa probatzen ispilluaren aurrean.

Ni ez ezik, ez zan konformatu erreza. Bertako señora saltzailleak aalegiñak egiten zizkion ikutu andik eta ikutu emendik, txaketa-sorbaldei gora eta ipurgaiñetik beera tira, disimuluan lepo-ertzean igurtzitxoa... Saltzaillearen trikimailluak.

Neuk ere txaketa indiar bat probatuko nuke alako ikutuak artzearren!

Doiñua: *Agur, sagar beltzaran*

1. Otsailla il otza,
aurten ere ala:
ipar-aizea gordin
naikoa petrala,
elur-lapatxez zuri
Txindoki egala,
Pernandoren erritik
ikusten dedala...
Jantzi estalki billa
noa bereala.

2. Eroskiko arropa
tartean biraka,
alper samarrik nabil
emen begiraka.
Elkarri bultzaka ta
karroei tiraka,
salneurri bakarrean
eskeintzak binaka,
bat gustokorik ez ta
aukeran millaka.

3. Trena artzera noa
Donostiarako,
Parte Zaarrean-edo
ikusmirarako.
Kartera ere lodi
gazi-gozorako,
tajuz jantzi nai nuke
guztiz distirako,
luzituko didana
mundu guztirako.

4. “Arratsalde on, Kontxi”.
“Kaixo, Balerio”.
“Zure dendara nator,
serio-serio,
ondo janztezkerotan,
zer erremedio,
larruzko jakaz edo
nai bada indio.
Garesti irtengo zait,
baiña berdin dio”.

5. “Balerio, ez zera
gusto gazikoa.
Azkar jo dezu begiz
jantzi klasikoa,
larru-oial ondua
txispa bizikoa”.
“Zuk ala badiozu,
bedi grazikoa,
ondo jantziko nauen
leendabizikoa”.

6. “Badegu, bai, aukeran
indiarren marka:
oiñetako, atorra,
txaleko ta praka,
azeri-larruz lepo-
jira duen jaka
ta, ori gutxi balitz,
amerikar praka.
Probatu ispilluan
banaka-banaka”.

7. “Bota mutur-zorrotzak
metro erdikoak
ez dakit ote diran
nere neurrikoak.
Amerikar bakero
aien pintakoak,
praka estu-estuak
zango jitakoak,
pistoleroren batek
ibilitakoak”.

8. “Lasai, gizona, au da
oial mundiala.
Danak zeuri begira
jarriko dirala”.
“Ai, señora, señora,
zenbat martingala!
Ispillua bera ere
lagun det, aibala!
Arrigarriena da
gustatzen zaidala”.
9. “Zer kapela: cowboya
ala borobilla?”.
“Proba ditzagun biak,
badezu-ta pilla.
Eskularruak eta
katedun medailla,
Amezketan badaukat
gorosti-makilla”.
“Orduan bai jarriko
zerala mutilla”.
10. “Olako aukerarik
ez nuen Tolosan.
Berauekin joatea
ona izango zan.
Sartu leengo trapuak
Eroskiko poltsan.
Kontxita, banijoa;
ez gaiñera otzan.
Galdetuko dizue:
gizon ori nor zan”.

11. “Jauna, zure bisita
atera zait labor.
Salketa txarragoak
egin ditut, bai, gaur.
Zorte on izan eta
milla esker samur.
Luzituz joan zaitez
ta ez burumakur.
Etorri ainbestean
bazoaz ta agur”.
12. “Bai, bai. Ortan ez dizut
egingo tongorik,
aurkitu dedalako
prenda gustokorik,
indiar larru-oial
kategorikorik.
Jantzi auek ez dute
galtzen baliorik.
Inauteritarako
ere balio dit”.

Azukrearen zai

Isilka egin nien bertso-sorta au merezi zuten batzuei. Txantxetan, baiña entzun ezazue.

Zarautzen, bertso musikatuena emanaldia egiteko oitura dago azken urte auetan. Torre Luzearen ondoko plaza-
txoaren aurrean izaten da udaran, San Ferminak ondoan edo.

Egundoko giroa egoten da bertan, illunabarrean. Jendearentzat jarleku pilla bat, eta kafe-modukoa ere banatzen dute. Oso txukun ez, baiña besterik ez danerako modukoa, beintzat.

Orregatik jarri nien bertso-sorta au, aitzakia pilla bat azalduz. Kantatu ere, kantatu nien bai, joan dan udaran, 2016an. Ea emendik aurrera azukrea ere banatzen duten.

Doiñua: *Agur, sagar beltzaran*

1. Gure Zarauzko erri
polit ederrean,
bertso musikatuak
daude indarrean.
Jaialdia udaran
illunabarrean,
Basarriren irudi
zaarraren aurrean.
Ondo dago bai baiña
nator marmarrean.

2. Iazko jaialdian,
Torreluze plazan,
zer entzuna ez ezik,
zer esana bazan.
Ni neu ere entzule
ta denbora-pasan.
Baiña gertatu zana
ezin nuen jasan.
Jakin naiko dezue
ea zer pasa zan.

3. Bi zarauzta moxolo
mantal txuriekin,
Iruretagoiena
Urbietarekin,
jaialdian kafea
banatzera ekin,
plastikozko basotan
yogurt-kutxarekin,
esne-potea eta
kaputxinoekin.

4. Berez baldar samarrak,
pixka bat kirtenak,
San Fermin jaietatik
goiz artan irtenak.
Euren uniformeak
ziran politenak:
lepo-zapi, praka motz,
botak norbaitenak,
puntilladun mantalak
Txiki Politenak.

5. “Nork nai du kafesnea,
ebakia, pasta?”
Kafea txirrixta bat,
esnea parrasta,
basoetara gutxi,
lurrera palasta.
Batzuek “bale, bale”,
ta besteek “basta”.
Ta ori gutxi balitz,
azukrea falta.
6. Txakur txiki bat ere
jarri zuten martxan,
mingaiña goxatuaz
ango esne-saltsan,
ille-kixkur txuria
ta izena Marxan.
Gaiñera ez zebillen
anka ezin altxan...
Au dana egia da,
ez naiz ari txantxan.
7. Bertso musikatuak
genituen abe.
Dana esana dago
esatean a, b.
Kaputxino mikatza
plazan jaun ta jabe.
Galdetu nien bada
suabe-suabe:
“kutxarak zertarako
azukretik gabe?”.

8. “Badator azukrea
taberna Zazpitik,
artu aal izango
dezue saskitik”.
Gezurra gaiñetik ta
gezurra azpitik,
txurruta gozorik ez,
kafexka gazitik...
Jakin banu artuko
nuen bai Maxitik.

9. Trikimailuz egoki
zebiltzan, ordea.
Azkenerako zerbait
zeukaten gordea.
Silletan irripartsu
geundela jendea,
“aiba, patxarana ta
txupito berdea!”.
Neuri ere erori
zitzaidan lerdea.

10. Amaitu zutenean,
kaixo, motel, ja-jai!,
mikrora joan eta
bertsotan ere bai.
Bestalde, jaialdia
atera zan “guai”.
Guk aurtengoa ere
alakoxea nai,
naiz ta urte bat pasa
azukrearen zai.

11. Baiña musikariak
ezin ditut aantzi,
ez genituen arren
Beote ta Yantzi.
Erriko artistekin
jaialdia jantzi,
gitarrista Etxabe,
ezpain-soiñuz Mantxi...
Txoratzen egon giñan
ainbat Mari-Patxi.

12. Ea ba urrengoan
azukre ta mimoz
gozatzen gaituzten ta
berpiztu animoz,
kafe itxurazkoaz
ta ez kaputxinoz.
Mantalek au diote:
“camareros finos”.
Gaiñera, itzegiten
omen dute txinoz.

Okelar

Mutrikuarrak, 2016aren aurrenetan, bertakoak izanak ziran bi bertsolari omendu zituen, Okelar anaiak, bertsopaper-leiaketa tarteko zala, Okelar gaiarekin.

Nik ere neure aletxoak bidali nituen. Bi anaietako batekin, Romanekin, artu-emanan eduki bait nuen, eta bera ezagutzeko zoria. Beste anaia, Modesto, ez nuen ezagutu.

Leenago, 2013an, berari buruzko liburua bat ere zuzendu genuen². Ez zan plazatan ibilitako bertsolaria Roman Maiz. Baiña ogeita bost bat urtetan maai-inguruetan eginda dauzkan saioak or daude liburuan eta ikusi, arri-duraz jantzi nai badezu.

Geienbat, Jon Azpillaga zanarekin aritua zan Roman. Orain ere ez dira isilik egongo, ez, dauden lekuan.

Bi anaiak ere ezkongabeak ziran, Okelar baserrikoak. Kalbaixotik gertuko baserria da Okelar.

Doiñua: Ari naizela, ari naizela

1. Aurten Mutriku erritik datoz
benetan berri alaiak,
Udala eta bertso-eskola
antolakuntzetan biak.
Omendu bear omen dituzte
leengo Okelar anaiak,
gugandik joan zitzaizkigunak,
bertako bertsolariak.


² Auspoa bilduma honetantxe argitaratu zen, 322. zenbakiaz, *Roman Maiz, Okelar bertsolaria* izenburuaz. [Editorearen oharra]

2. Nik Roman bakarrik ezagutu
nuen ta oso berandu.
Naiago nuen elkar leenago
ikusit izan bagendu.
Bertso-sorta au beraz berari
naiko nioke zuzendu,
naiz ta Mutrikuk Modesto eta
biak batera omendu.

3. Zortziko nagusia zenuen
bertsotarako neurria.
Nik ere bera erabiltzea
zait errespetagarria.
Plazetan aritzea bertsotan
ez zan zure egarria,
baiña maai-inguruetarako
maisut ikaragarria.

4. Ezkurran ezagutu zintudan,
an Alkateneko Bordan,
larogeita bat urte bai baiña
irripartsu eta modan.
Ao-zabalik laga ninduzun
zure bertso sursunkordan...
Ain izen gutxi ta ain aundirik
ez dakit beste inor dan.

5. Gizaki txiki buru-txuria
ta okertua bizkarra,
jertse urdinxka, txapela beltza,
ondo kendua bizarra.
Roman, neretzat zu izan ziñan
egun artako izarra.
Gaiñera ontzat artzen zenuen
deitu arren mutilzaarra.



Roman Maiz, "Okelar" bertsolaria,
Mutrikuko Okelar baserriko bere sukaldean,
berari egin ziztaion liburuaren aurkezpenean,
liburua sinatzen (2012ko ekainaren 22an).
(Argazkia: Joxemari Iriondo)

6. Zorioneko bazkalondoa
azkartxo joan zitzaidan,
ezusteko on oriek nola
pasatzen zaizkigun di-dan.
Agurra egiteko ordua
eldu zitzaigun segidan.
Esku batean bastoia eta
bestea luza zenidan.

7. Jon Azpillagak laguntzen zizun
baita ere Maritxalarrek.
Argatik ezagutu zintugun
ainbat euskaldun txolarrek.
Zure lagunek auxe zioten,
batez ere Ziolarrek:
“bere bertsoekin liburu bat
merezi dik Okelarrek”.

8. Maritxalarrek jasota zeuzkan
berrogeiren bat kaseta,
grabatu eta ogeita bost bat
urteko saioz beteta.
Eskuz paperera pasatzea
jarri zitzaidan kasketa...
Pello Esnal ta Iriondori
an laga nien karpeta.

9. Tajutu zuten liburua ta
an goaz Okelarrera,
Esnal, Iriondo, Maritxalar
ta Kalzakorta gaiñera.
Arreba Benitak eman zigun
sukalderaiño sarrera.
Sillan jarrita isil-silik
an zegoen Roman bera.

10. Benitak Terry koñaka eta
anisa maaira aurrena,
“kafe putxero” egin berria
bero-beroa urrena.
Ura zan sutondoko gozoa,
famili giroz omena.
Liburu askok bear lukete
sukaldean aurkezpena.

11. Iru bat orduz an jardun giñan
lagunak elkar tentatzen,
batzuek bertso zaarren arian,
besteok txiste kontatzen.
Eta ondoren Roman agurtu,
besterik ez zan geratzen.
Azkenengoa izango zala
ez nuen asko pentsatzen.

12. Gari-soroko lasto-izpiek
an dute beren buruxka.
Zuk ere gure bertso-soroan
jarri dezu liburuxka.
Modesto ere gogoan degu,
zure anai, zure puxka...
Orain gozatu dezazuela
pakearen lo-kuluxka.

Nun da trajea?

Betidanik esan izan det noizbait apaiz mozorrotzea gustatuko litzaidakeela Tolosako inauterietan.

Bai pentsatu ere, dirala urte mordo bat. Isilka, jakiña, etxean azken egunera arte esan gabe. Baiña dana gaizki atera zitzaidan. Izan ere...

Ezkontzako traje illunarekin mozorrotzea bururatu zitzaidan. Beste osagarriak bildu nituenean, seguru nengoen: "trajea jantzi besterik ez zaidak geratzen". Oker jo zidan kukuak. Trajea falta: emazteak fraileen komentura eramana, nunbait. Gure etxeko armairu zaarrean ark egingo zian ba enbarazurik gutxien!

Nik ez det ulertzen etxekoandreen jokaera bitxi au: beren arropak bizi guztirako gordeak dituzte, berriro moda etorriko zaiela eta.

Nere trajeari ere etorriko litzaioke, moñoña.

Zein fraileri eman ote zion?

Doiñua: Zer da gaur Donostian

1. Kaixo, armairu zaarra,
trapuen ajenda.
Motel-motel, au dek au
arropa zerrenda:
ogei pertxatik gora,
berrogei bat prenda!
"Mari-moñoña, zatoz,
azter zazu denda,
ezkontzako trajea
ez det aurkitzen-da".

2. “Zer arrane zabilta
txoko-miaketan,
ogeita bost urteko
traje-billaketan?
Zillar-eztaiak edo
ospatu naietan?”
“Ez, ez. Esango dizut
zertarako detan:
apaiz mozorrotzeko
iñauterietan”.

3. “Tximeletak urbildu
zaizkizu burura.
Ez al da aski leengo
iñauteri ura?
Amaitu zan traje beltz
aren abentura.
Iaz eraman nuen
fraileen komentura,
zeuk ere egon bear
zenukeen lekura”.

4. A ze pipa jotzea:
pikotara planak!
Kuadrillan izango
dira zeresanak.
Puntu-puntuau neuzkan
beste gauza danak:
alkandora grisaxka,
botoi beltxaranak,
txarolezko zapatak,
serorak emanak.

5. Sakristietan ortik
ibili naiz billa,
falta nituelako
osagarri pilla:
bururako kapela,
lepoko tirilla,
liburu potolo bat,
orriak bai milla,
betaurreko moreak...
Monseñor Munilla.
6. Amona batek: "tori
errosarioak".
Ea banekizkien
bost misterioak,
kirie eleisonak
ta kalbarioak...
"Ez ditu bear leengo
patrifilioak
iñauterietako
ebanjelioak".
7. Ilusioz gaiñezka,
naiko korajea,
Tolosan egiteko
neure bidajea.
Ez nintzan ez irtengo
koldar pelajea...
Baiña orain zer egin?
Au dek potajea!
Apaiz jantzi nai eta
frailetan trajea.

8. Leenengo mozorroa
nuen-ta bizitzan,
moñoña, sentitzen naiz
frakasatu gisan.
Zuk ere burutapen
xelebrea izan...
Traje ura baneuka
janzteko baldintzan,
telebistan ta dana
aterako nintzan.
9. Noski, aupadatxo bat
komentu zaarrari.
Karta dijoakio
Pello Zabalari.
Eman goraintziak bi
auei eta ari:
Nikolas aundia ta
errezildarrari,
eta nere trajea
janzten duenari.
10. Pello, serio nator,
nere asmo ta gaiz.
Ezin izan naizela
mozorrotu apaiz.
Mari-moñoñak ere
bidali nau ja-jaiz.
Abitu zaar bat edo
presta idazu garaiz,
ta datorren urtean
fraile jantziko naiz.

Itsu bat dator

Bertso auek 2005ean kaleratu ziran, *Egan dijoa* liburuan. Jarri, 1998ko udaberrian jarri nizkion Lasarteko aitona Andresi, eta urte berean irabazi zuten leen saria Basarri bertsopaper-leiaketan.

Baiña liburu ontara pasatzea erabaki degu, iru itsuren bertso-sortak jarraian azaldu daitezen.

Doiñua: *Ai, hori begi ederra!*

1. Plaza zaarraren epela
arkupetan nengoela,
an bai giro zegoela!
Kanka ta kanka alboak joaz
ara norbait zetorrela,
“zein izango da orrela?”,
nere baitan nioela,
“ziur itsuren bat dela”.
2. Oiñera bi zapatilla;
eskuan, berriz, makilla
pasagune danen billa.
Betaurreko beltz brillu gabeak,
aurpegiz naiko zurbilla...
Naiz ta naigabeak milla,
ezbearrean umilla,
zorionetik urbilla.

3. Orren alai nora zoaz,
kantuan ta txistu joaz
biotzez eta aoaz?
Eguneroko bizpairu uso
zure inguruan doaz,
ego urdiñak jasoaz.
Gu ere errukiz goaz,
begi itxi oien loaz.

4. Itzaltzean argi ura,
orra begien ixtura;
baiña fede bat piztu da.
Egun batean aldatu arren
ikusmenetik itsura,
ez zaizu galdu itxura;
biurtu dezu tristura
kantura eta txistura.

5. Plazako jarraulketan
esertzen zera aietan
astean eta jaietan.
Uso geiago urbiltzen zaizu
ondora ta armailletan
edo sorbalda gaiñetan
opil-apurren naietan...
Zuk eman aala aiek jan.

6. Zure begien illuna,
argi egiten diguna,
ikasbide zaituguna.
Itzal berean bizi izan arren
arratsa eta eguna,
erri-maitale txukuna,
ume guztien laguna,
nork ez zaitu ezaguna?

7. Itsumenaren arria
ez deritzazu larria.
Orra or giza neurria!
Arkupe auek alaitze utsez
janzten diguzu erria.
Zure kantu ta irria,
zeu zera apaingarria,
plazako udaberria.
8. Maite zaituzte aurtxoak,
etxekoak ta auzoak;
baita ere erri osoak.
Aitona, gure ispillu dira
zure begien lausoak,
biotz on batek jasoak.
Betoz bai zugan gaixoak,
esperantzaren usoak.

Kupoi baten truke

Agerian da baditudala ikusmena falta duten lagunak ere. Bizitzako bi alderdi sentiarazten dizkit orrek: naigabea eta lagunekin dedan arremanaren poza.

Joxe Anjel Arroitaonandia, mutikoa zala ezagutu nuen. Eta orain, mutilzaartzen ere ari da. Pentsa noizko ezaguna. Elkar zirikatzeke lain konfiantza artzeko ainbeste denbora badala esango nuke.

Eta orixe egiten degu, bera ONCE kaiola barruan eta ni leiatilaz kanpotik jartzen geranean. Aal dala, kontu tris-teetatik ieska aritzen gera. Begira bestela, ondorengo bertsoei.

Doiñua: *Txanbibiri-tantxibiri gabiltzarian*
Elorrioko kalia

1. ONCE dion kaiolatxo orretan bada
makina bat komeri-ta,
adiskide bat kupoi-salketan
barreanean eserita.
Umore-puntu bat emaidazu,
ene Santa Angelita,
adar pixka bat jo nai nioke
lagun Joxe Anjeli ta.



Joxe Anjel laguna, Zarautzen,
Eroski ondoko bere ONCE kaiolaren aurrean.

2. Bera ere ortarako ohea da bai,
ez naiz batere kupitzen.
Gaiñera zail da zenbat garaitan
ezkutukoak ukitzen.
Joxe Anjel da bista gabea
badakiena bizitzen.
Biktima baten pare jartzea
ez zait ondo iruditzen.

3. Eroskiren ondoan da eta Zarautzen
etxola polit ONCEa.
Aren barruan dagoenari
kostako zaio ontzea.
Ideia asko ditu buruan,
lana kupoiak saltzea.
Orrexegatik erabaki det
adar pixka bat jotzea.

4. Noiznai falta izaten da ta gu or konpon,
nai duenean artu jai.
Nun ibili dan ez du esango,
jakin-miñosoei *ja-jai*.
Astean lau bat egun kaiolan
zein etorriko zaion zai.
Kuponazorik ez du banatzen,
pilla galanta saldu bai.

5. Inázquez, Josefina, Mari Anttoni,
Iker, Asier ta Millan.
Bezeroekin osatzen da bai
Eroskiko jende pillan.
Neu ere noiznai jartzen natzaio
kaiolako leiatillan.
Gezur mordo bat kontatzeko zai
an egoten zait takillan.

6. Bere lanak ulertzeko tresneri ona
edukiko du, jakiña.
Obe gu ere trikimailluak
ulertzeko gai bagiña.
Txapalda xixtrin baten gaiñean
eskura dauka makiña,
“no premiado, no premiado”
azkar esaten dakiña.
7. Bertsolari gisa ere aritu oi da,
bi doiñu eta lau gogo.
Neurritan ez omen du akatsik,
naiko txukun, naiko ondo.
Guk “poto” deitzen diogun orri
berak deitzen dio “tongo”.
Zarauzko erri osoan ez da
bat txarragorik egongo.
8. Asieran kontatu det: aste osoa
ez du pasatzen lanean,
eta gaiñera batzutan ez da
etortzen asteleenean.
Anaiarekin “por ahí” dijoa
bizikleta tandemean.
A zer pakea ematen digun
txokoan falta danean.
9. Mutilzaartzen ere ari zaigu pixka bat,
baditu berrogei edo,
gutxitzen ez diranak, naiz esan
beste orrenbeste kredo.
Bertsotan eta berriketan bai,
neska-kontuetan zero.
Espabilatu adi negua
pasatu nai badek bero.

10. Txantxa-giro au iretzat prestatu diat
propaganda ta atoia.
Irabaziko nizkian, noski,
txapela eta bastoia.
Eta ematen baldin badidak
suerte oneko kupoia,
Donostiako Parte Zaarrean
jango diagu kapoia.

Joxean “Zatain” lagunari

Urte asko dira Joxean Manterola “Zatain” ezagutu nuela: 1987an edo, Aia barruko bertsolari-txapelketa batean. Bertsolaria bait da Joxean. Aiako Zatain Berri baserrikoa jaiotzaz, gaur Aia errian bizi bada ere.

“Zatain” itsututa bizi da. Baiña gutako edozeinek ainbeste edo obeto ikusten ditu bizimoduko gauzak.

Emaztea errusiarra du, aruntza medikuetara joan eta bertan ezagutua. Esaten dan bezela, bat joan eta bi etorri. Tania emazteak euskeraz ederki itz egiten du. Zu etxerako, Tania. Familia polita osatzen dute, Joxeanen laguntzaille dan Amets txakur ederrarekin.

Doiñua: Ai, hori begi ederra!

1. Kaixo, lagun zaar Joxean,
emen nauk ba kuxkuxean,
bertso berrien gosean,
konfiantzazko elkarrizketa
erabiltzeko pozean,
lasai denbora pasean.
Ik aurkakorik ezean,
as gaitezen jolasean.

2. Gure Aiako mutilla,
ikusmenez ago illa,
baiña doai eder pilla.
Gida-txakurra sokatik eta
beste eskuan makilla,
plazako txokoen billa,
bertso zaarrak berriz milla,
ta zer gizatasun-maila!

3. Leengo ikusmira ura
gordeta daukak burura
begiratzeko lekura.
Zer aldakuntza egun-argitik
arrats antzeko mundura!
Baiña gizonen gradura
jaso dek orren ardura
aiar jatorren modura.

4. Ez ikustearen jira
neurtzen diat mirarira
jarraituz orren arira.
Erreparoan egon izan nauk
noiznai ire aurpegira.
Nola sortzen dek argira
irriparraren distira
illunpeari begira?


5. Ttipi-ttapa pausoz pauso
ortxe oa auzoz auzo,
naiz ta begi biak lauso.
Txolarre bakar batzuek jiran,
baita ere zenbait uso,
igan fidatuaz oso,
jendeak "kaixo" ta "kaixo"...
Nork ez au argazkiz jaso?

6. Burua lanean dek maiz
alako umore alaiz,
jantzia eguneko gaiz.
Ordenagaillu-trepeta ere
inguratu uen garaiz.
Albisteak aste ta jaiz
jasotzen moldatzen baaiz,
nere aldean asko aiz.

7. Aia doiñuko euskera,
bigarrena gaztelera,
ikasketekin gaiñera.
Eta bestea emaztearen
an urruneko izkera,
ain zuzen, errusiera.
Ta orain euskeraz bera!
Begira zer gorabeera.

8. Begi itxien trantzea
ain patxadatsu artzea
dek bizitza ulertzea.
Nork ez diagu akatsen baten
aurrea edo atzea?
Egin diat balantzea:
egun xume bat jartzea,
lagun zaar danok biltzea.

9. Norbaitek zerbait eskatzez
ez dakik esaten ezetz,
erantzuten dek baietzez.
Emaztearen laguntzarekin
lan txiki batzuk baratzez,
paseatu kale-ertzez,
betaurreko illun beltzez,
eure txakur gris Ametsez.



Joxe Antonio Manterola, "Zatain", adiskide itsua,
itsu-arreko Amets txakurrarekin.

10. I ez ago izututa,
ezta' re gutixituta,
bai ordea maisututa.
Ikusmen ona daukagun asko
bizi gaituk itsututa,
jokabidez itsustuta,
kontzientziz pisututa,
argirik ezin piztuta.
11. Eutsi, Joxean, goiari
eta bertsolaritzari,
segi akiguk kantari.
Eman goraintzi eta laztana
etxekoandre Taniari.
Eta Amets txakurrari
jolasaldi bat berari.
Ta jarraitu bideari.
12. Besarkada estu bana
luza daigun elkargana.
Bagenian zeresana.
Eta i ere oa leenbaileen
amona Pantxikagana.
Antola zazue plana,
urteroko talo-jana.
Jarri diat naiko lana.

Bizikleta zaarra

Bada esaera: “txatartegitik erosten dana, txatar biurtzen da”. Zer axola, bitartean ondo zerbitzen badu?

Baiña, bai: urte asko neramatzan berarekin. Mutikoeak eskolara bidean erabiltzen dituzten oietakoa zan: bajua eta igotzen erreza. Neretzako, aproposa. Baiña geiagori ere gustatu egiten, nunbait; eta arrats batetik bestera, gabe geratu nintzan.

Eraman zuenak bertso auek irakurtzen baditu, badaukat itxaropena itzuliko didala, sano eta salbu. Amaiketakoa ordainduko nioke.

Doiñua: *Dozena bat bertso berri*

1. Itz-jolasa parra-parra
ekarri didan iparra,
lagun artuta abiatu naiz,
badator tabarra.
Bitxikeri ta abarra
arrazoia bat bakarra:
txatartegitik erositako
bizikleta zaarra.
2. Marka da B-H HAPPY,
gorria gain eta azpi,
dotorezitik gutxi darama,
erdoiatik aski.
Egurrezko kaja-saski,
au erri osoak daki.
Euskalerrian ez daude beste
orrelako zazpi.

3. Izana det Benidorren,
an jende pilla zetorren,
amona batek Kale Koñora
ez joateko arren.
Udaltzain Evak bigarren
ea zer traste nekarren,
enbarazutik kentzeko beintzat
aal nuen azkarren.

4. Tabernak beetik goraiño:
Santurtzi, Aurrera, Maño...
Mimoa ere geldi-geldi ta
isil-isilik, ño!
Txinoen dendak noraiño?
Goazen emendik, konpaiño.
Obe diagu gure errian
saltsa ontan baiño.

5. Zalantzak daude deieraz,
bicicleta da erderaz.
Ea argitzen dedan kontu au
danon ulerkeraz.
Iztegi zaarren jarreraz
txirrinda ere ez, beraz...
Ankatarteko ixtribilloa
omen da euskeraz.

6. Bi gurpilleko trepeta
etxe ondoan det-eta,
goizetan noiznai traste zaarrekin
saskia beteta:
gantxo, galtzerdi, txankleta,
propaganden papeleta...
Tanga urdin bat ere leengoan
tar-tean gordeta.

7. Nik neure baitan: "Aibala!,
aizeak botata ala?
Illartargia ilbeeran eta
trilili-tralala.
Zer uste dezue dala:
altzariaren apala?,
trapu txikiak paseatzeko
erosi dedala?"
8. Erri-jaietan edozer,
baiña lasai, ez da ezer.
Ez dit ajola nungo Kattalin
ta nungo Christopher.
Txartelak zion "¡qué placer!",
baita ere beste zeozer.
Errespetua gordetzearren
ez det esango zer.
9. Ango eta emengoen
isiltasuna zegoen,
neroni ere arrats osoan
lo seko nengoen.
Maiteminduek ondoren
jolastu aal zan ondoen.
Ixtribillotik ixtribillora
zer alde dagoen!
10. Baiña begira: jai batez
lotu gabe neukan katez;
norbaitek atzaparrak erantsi.
Txatxua izatez!
Neu errudun, neure kaltez,
trastea lotzea aaztez,
leen zerbaiten jabe banintzan
eta orain batez.

11. Ez salaketa, ez isun,
ez dizut jarriko lizun.
Historia bat ostu didazu,
ez dakit dakizun.
Ain gustoko bazitzaizun,
zaintzeko esan nai nizun.
Ea zuri ere beste tanga bat
etxeratzen dizun.

12. Baiña zer adar jotzea,
agur HAPPY B-Ha.
Obe izango zan Benidorren
Evari saltzea.
Geratzen zaidan trantzea:
beste batena artzea.
Aurreak erakusten du nola
dantzatu atzea.

Gaztetako erromeriak

Bertso-sail aundi samarra dator orain, ogeita lau sail txikiz osatua. Guztira, eun eta berrogei bat bertso dira, geienak zortziko txikian.

Gure gaztetako erromeria-lekuak nortzuk izan ziran kontatzen det. Erromeriak bakarrik ez. Joera zein alderditara genuen ere azaltzen da: bertsolariak entzutera, apusturen bat zala, aari-jokoa zala, gizon ezagunen baten omenaldia zala, eta abar. Garai artako soiñujole batzuen izenak ere azaltzen dira.

Goazen erromerietara.

Aiako Urdaneta

Aiako gure Urdaneta auzoarekin asiko naiz. Bera bait da, apaiza eta guardia zibillen bistan, trikitixa dantzaten genuen lekua.

Doiñua: *Neskazaar bat tentatzen*

Ai, gure Urdaneta
aspaldiko ura
zenbat aldiz etorri
izan zait burura!
Zein pozik biltzen giñan
bere ingurura!
Nola ez det jasoko
nere liburura?



Urdanetako Serorategi baserriko mandioko atea.
Giro txarretako erromeria-lekua genuen mandio ori ere.

Erromeririk edo
baldin bazan ditxa,
pelotan saioa ta
gero trikitixa.
Dantzan ondo ez baiña
bai azkar, bai aixa.
Ta leio-zirriztutik
begira apaiza.

Era artan askotan,
ez bein edo bitan.
Ziur gaude egongo
zala inbiritan.
Konfesioan ere
asten zan erritan.
Ez genion egirik
esaten erditan.

Guardiak ta apaizak
zaindu oi gintuzten.
Dantza lotuan ere
ez ziguten uzten.
Nunbait ez zuten ori
ain ondo ikusten.
Kaiku aiek ez dakit
zer egin nai zuten.

Akordeoilaria
Mardu soiñujole.
Ark joko zituzkeen
tango, pasadoble...
Neskatxak orrexen zai,
Axun, Karmen, Xole...
Baiña auxe zegoen:
aufi, salto, ole!

Erromeriarik ez
ta giro txarrean,
Patxiren tabernako
sukalde zaarrean,
bertsotan ere di-da,
puntu azkarrean.
Ta neska laguntzera
illunabarrean.

Ta bein San Martin jaiak
eltzen ziranean,
an ibiliko giñan
lau bat egunean.
Neskei mutil berriak
zetozkienean,
gu begira egoten
giñan geienean.

Aiako Altzola

Altzolan, San Roman festetan egin nuen leen aldiz trikiti-xan dantza-saioxka, apaiz gazte batek aginduta, erromerian zebillen neskarik zatarrenarekin. Ark ez zidan kalabazarik eman.

Doiñua: Orioko balearena

Urdanetatik ez da
urruti Altzola:
iru bat kilometro
bide edo ola.
Bietara joatea
gure karanbola,
San Roman bisitatuz,
bai arraiopola.

Salda, txorixo, txistor
eta odolkia,
egun bat pasatzeko
leku egokia.
Moja-etxe taberna
ango antzokia,
leen aldiz dantzan jarri
ninduen tokia.

Orduan soiñujole
zuten Maaltzeta,
makiña bat alditan
izana zan-eta.
Jarraian oi zan lau bat
eguneko festa.
Tabernaria maistra,
izena Modesta.

Gaiñera “agarraua”
Altzolan asi zan,
don Joan apaiz zaarra
alde egiña bait zan.
Dantza lotuan libre
samar asi nintzan,
naiz ta erromeria
pasa trikitixan.

Errezil parteko Granada Erreka

Errezil parteko Granada Errekara, San Josetako errome-
riara joan gabe nola geratuko giñan, ba? Nola, sukalde
zabal artan bazkalondoko trikitixa dantzatu gabe? Ez, ez.
Basarri bertsolaria zazpi urte arte sutondoan egondako
sukalde egurrezkoari, erreberentzia.

Doiñua: Basarriren zortziko txikia

Altzolatik naikoa
gertu da Granada.
Makiña bat zeresan
bikain emana da.
Ta oraindik emango
digu bearbada.
Bera aipatu gabe
ezin nuen laga.

Badauka asera ta
badauka jarrairik.
Basarri an sortu zan,
bada naiko gairik.
Ta beste erreketan,
ez daukat ezbairik,
ez zan sortuko beste
alako arrairik.

Ostatu-etxea da
erreka aldean.
Goizean oillo-salda,
ta arratsaldean
erromeria egin
oi zan sukaldean.
Nor bait txispatzen bazan,
bertan lo gabeen.

Aizarnako Santa Engrazia

Ermita, tontorraren tontorrean. Andik gora, enarak. Beera,
gure bazterren sakonak eta baserriak. Ostatu bat, eta bere
atarian, Santiagotako erromeria. Zer geiago bear da?

Doiñua: *Markesaren alaba*

Mendi-ttonttor batean
Santa Engrazia,
ermita xaar-xaar bat
baiña berezia.
Bertara joatea bai
dala merezia.
Badago zer ikusi
ta zer ikasia.

Ermitaren oiñean
bada ostatua.
Jangela artan bazan,
bai, zer dastatua,
Santiago jaietan
zertaz jolastua...
Zenbat dantzari arin
bertan dantzatua!

Ermita atarian
jar zaitez begira
eguraldi-odeirik
gabeko argira.
Nafar mendiak ere
ageri oi dira.
Zenbat jende joaten
zan erromerira!

Txillarramendi gertu,
zeru-goi urdiña,
edertasunez eta
pakean berdiña,
eta Sorozabalen
soiñu arin fiña...
Nori damutu zaio
an dantza egiña?

Aiako Iturriotz Benta

Aiatik gora dago Iturriotz etxe aundia, garai batean benta zana. XVI. mendean, San Inazio ere Loiolara zijoala, bertan gau batean lo egiña zala diote.

Eta etxe ondoan sortzen zaion iturtxuloko ura, Gipuzkoako urik otzena dezu, adiskide. Zoaz San Joanetan festara. Gu joaten giñan.

Doiñua: *Kantatzera nijo* (Kaxiano)

Iturriotz ta Muatz
bi ziran leenago.
Orain Iturriozko
Benta soillik dago.
Auxe gertatzen ari
ote zaion nago:
geroz ta zaarrago ta
geroz ederrago.

Antziña erromesen
mendiz ibiltzea.
Iturriotzen zuten
neke arintzea.
Teillape ark merezi
du ondo zaintzea.
San Inazio lotan
egon zan etxea.

San Joan da patroia
bertako festetan.
Ta betiko Ernio
bidea bestetan.
Goikaldean Zelatun,
uso-postuetan.
Koadrillan zenbat aldiz
joan giñan gaztetan!

Zer oroitzapen polit
ditun aspaldiak!
Iturriozko Bentak
dauzka gizaldiak.
Atsedeen erromesek
ta beren zaldiak.
Eta orain larrean
dabiltza ardiak.

Gaztetako sasoiak
nola zaigun falta,
Ernio bide ori
daukagu lagata.
Aal dezuen danok
goi oietan salta,
Santiago bidea
aiñakoa da-ta.

Aiako Elkano auzoa

Aiaren urrutienetako auzoa izango da Elkano. San Pedro eliza atarian, iru errialderen mugak dira, jakitunek diotenez.

Guretzat ez zan urruti Elkano. An, gainera, San Pedro-tan balseoa izaten zan.

Doiñua: *Gu gira Euskadiko
gaztedi berria*

Elkano auzoa da
Aiako partean,
baiña erri-jiratik
guztiz apartean,
Getaria, Zumaia,
bi mugen tartean,
Miatik gertu eta
Zarautza frentean.

San Pedrotako festak,
soiñulari Mardu,
Elkanotik jaso
makiña bat gradu.
Arri-kosketan dantzan,
meritua ark du.
Ala ere gaur egun
plazatxo bat badu.

Urrundik ikusten da
Elkano kaskoa.
Badirudi iritsi
zaiola pazkoa:
pelotaleku berri
dotore askoa.
San Predro zaarra, berriz,
auskalo noizkoa.

Dantzan eta bertsotan
ta danok gustora.
Sakristau zaarra ere
gazteon ondora.
Gaur falta dan bakarra
Karmentuku serora.
Norbaitek jaso zuen
zeruetan gora.

Aiako Laurgaiñen

Ni aberatsa banintz, Laurgain eguteran egingo nuke borda, ametsetan bizitzeko, gogoratuz San Migel festetan nola leenengo aldiz ikusi eta entzun nuen Uztapide zaarra bertsoan. Pentsa: dantzan ere ez genuen egin arratsalde artan, gure bertso-kontuekin.

Doiñua: *Ikusten duzu goizean*

Ikusten zaitut goizean,
egun garbi bakoitzean,
batez ere ego-aizean,
eguterako malkar orretan,
Laurgain, mendi babesean,
eguzki-printzen pozean,
beraiekin jolasean,
paradisu-baratzean.

Egunsentiz egunsenti,
distiratsu zaude beti,
alai polit bezain ezti.
Gertu dituzun zuaiztietan
txoriek zenbat abesti!
Gerezi, intxaur, sagasti,
ta ezer gutxi garesti.
Zugan naukazu amesti.

San Migeletan jaiera,
erromeriko billera.
Gu ere izanak gera.
Urte batean lasterka pozik,
mendiko auntzen antzera,
Uztapide ikustera
ta bertsotan entzutera,
leenengo aldiz, gaiñera.

Mitxelena sozia,
nolako bertso-saioa!
Ta gure ilusia!
Aiei begira nola ez sortu
bertsotan afizioa,
edo-eta bizioa?
Bikaiña ofizioa!
Ez, zera, maldizioa.

Dorreko eskailla-maillik
bazan igoera zaillik,
kanpaien sokak zintzilik.
Baiña sakristau Martiñek eta
andre serora Xixilik,
ainbat aldiz erabillik,
dilin-dalan fiñen saillik,
ezin ba laga isilik.

Aia, gure erri zabala

Gure Aiak ez du adierazpen askoren bearrik. Bestela ere naiko ezaguna da jendearentzat. Kirola maite duen alderdia eta asko ospatzen dana. Maiatzeko Asentsiotan, erria festetan

izaten degu. Abuztuko San Donatotan ere bai. Santuei autsak
kentzen dizkiegu, jai egitearren.

Doiñua: *Ni naiz palankaria*

Eseria naiz sillan
ta aurrean maaia,
lapitza eskuan ta
erria det gaia.
Nekazari-mendia,
aitzur eta laia,
sei egunak lanean,
zazpitik bat jaia.
Errespetu guztiak
zor dizkizut, Aia.

Alderdi askok dute
Aiaren berria.
Historiatik dator,
au ez da berria.
Pagoeta azpiko
kaskoan jarria,
aspaldikoa bezain
osasungarria,
amar erriren mugak
dituzun erria.

Jende bertsozalea
gure gizaldian,
ni ere zaletua
nintzan aspaldian.
Errian azaltzeko
irrikaz aidian,
Asentsio jaietan
plazaren erdian,
ortxe kantatu nuen
leenengo aldian.

Asko dira kirola
lantzen dakitenak,
aurrekoengandik gai
au dakarkitenak,
dana esan bear ta
pixka bat kirtenak.
Iñungo segalari
onen bikaiñenak,
zure zelaietatik
dituzu irtenak.

Aiar sena daramat
beti amarrean,
argatik moldatzen naiz
euskal marmarrean.
Iñoiz ez det lagako
ezker bazterrean.
Oiturak jarrai leengo
modu samarrean,
Pastor Izuelaren
eskola zaarrean.

Zarauzko Urtetan

San Sebastianak iristeko deseatzen egoten giñan, Urtetako mandio zaarrean dantzan egiteko. Mandioa bete jende, ooltzak dardarak egiñaz. Sakabiren txunda-txunda soiñua, balseoa izaten zan. Guk uraxe nai. Or zegok, ba, koxka!

Doiñua: Esne-saltzaillearena

Badira festa batzuk
aazten ez diranak,
betirako gogoan
gera zaizkidanak:
Zarauzko Urtetako
San Sebastianak,
dantzatik kalabazak
jasotzen ziranak,
emanak Begok, Luixak
ta Sebastianak.

Sakabik txunda-txunda
soiñu-balseoa,
ta guk tangoa jakin,
a ze saltseoa!
Dantza ark zirudien
ia boxeoa.
Neskatxari eltzea
gure deseoa.
Ene, ene, ura zan
kalabazeoa!

Gu bi mutil baldartxo
dantzan txarrak izan.
Baiña “bailamos?” eske
dantzarien gisan.
Ezetz. Gurekin ezetz.
Alperrik genbiltzan.
Ta “hijas de María”,
zirala elizan.
“Gu hijos de San José
gaitun gero, aizan!”

Getariako Meaga auzoan (1964)

Meagan (guk Mia deitzen diogu), San Isidro festak meza nagusian asten dira. Apaizak, Isidro gora eta Isidro beera. Zenbat aldiz, uste baiño geiago luzatu sermoia. Eta jendeak amaiketakoa gogoan. Diotenez, bein apaiza bera gosetu zanean amaitu omen zuen meza.

Baiña nik, batez ere, 1964ko San Isidroak dauzkat gogoan.

Doiñua: *Maritxu, nora zoaz*

Zarauztik gora dagon
Miako auzoa,
araiño eman izan
genian pausoa.
Saso ederra eta
umore gozoa,
birigarroen billa
nenbillen zozoa.

Festak San Isidrotan
oi dirade Mian.
Bein baiño geiagotan
izana nauk ni an.
Itxaropena neska
batengan banian,
baiña egun orretan
frakasatu nian.

Bertsotan jardun giñan
balkoi baldarrean,
plazan dantzan zebiltzan
neskatxak aurrean.
Moñoñari lagundu
nai illunarrean,
baiña beste batekin
joan zan motorrean.

Orkestina-joleak
naiko talde ona,
baiña moñoñak ospa,
jertse eta gona.
Gero´re luzaroan
nintzan zai egona.
Orain bera da gure
etxeko amona.

Zestoako Iratean (1965)

Ez da leku epela Iraeta, Santa Ines festetan. An dantzan bakarrrik ez zan berotzen. Bokadilloa jan eta bi edo iru basoerdi ardo edaten ez baziran eta muturra pixka bat berotu, jai zeneukan, txo.

Nik, batez ere, 1965ekoak ditut gogoan. Izan ere, jokatatu berria zan Euskalerriko bertsolari-txapelketa, Urte Berri egunez. Eta an Lazkao Txikik goia zuen. Orregatik eramane zuten Iraetara Uztapide zaarrarekin. Txapelketa baiño gogorragoa irten zitzaion onekin jardutea.

Doiñua: *Errenteriako Magdalenatan*

Santa Inesak eta
dantzarako presta
negua izan arren,
mutil eta neska.
Ilbeltzak ogeita bat
bero ere ez ta...
Jaietan Zestoako
auzo Iraeta.
Trikiti eta bertso
nolako orkesta!
Garaiko bertsolari
onenez gaiñezka:
txapeldun zaarra eta
Lazkaoren sestra.
Olako artistekin
izaten zan festa.

Santa Ines jaietan
iraetatarrak
festa-antolaketan
ez ziran ez txarrak.
Azkoitiko Lajaren
trikiti edarrak
ta Lazkao Txikiren
bertso-irriparrak.
Jendearen txaloak
eta deiadarrak,
Uztapidek ordea
betiko danbarrak.
Eta a ze egurra
eman zion zaarrak!
Erakutsi zizkion
zeruko izarrak.

Ura gozamina zan
entzuten begira.
Erromeriarekin
ondoren segida.
Trikiti-salto batzuk,
balsean bi jira,
batzutan bultza eta
besteetan tira,
begirada goxoan
Axun ta Brijida.
Erroskillak errifan
irtengo balira,
neskatxei banatzeko
bana, biña di-da.
Ala kalabazarik
ez zegoen, tira!

Arroagoian, Santiagotan

Arroagoian ez giñan askotan izanak Santiagotan. Beste arrazoi batzuentatik aipatzen det leku au ere: garai batean bertako apaiza zan don Joan Dorronsorodadalako gogoan. Don Joan Txikia deitzen genion. Arekin egotea ere festa bait zan.

Doiñua: *Agur, sagar beltzaran*

Laga Arroa beea
ta laga Oikia,
Arroa Goikoraiño
egin det jeikia.
Ortarako baneukan
naiko aitzakia:
apaiz bertsozale bat
izan zan tokia,
garai bateko gure
don Joan Txikia.

Santiagori meza
eman eta gero,
lagunekin artua
ainbat salda bero.
Kontuz, berak ordaindu
ta lagunek zero.
Kontent geratzen zana
kunplitu ezkeru.
Zenbat apaiz dira ba
olako bezero?

Beraz, Txikia ez zan
Joan debaldea.
Kontzientziz zeraman
ark bere aldea,
naiz eta goiza izan,
naiz arratsaldea,
zenbateraiñoko dan
da nere galdea
apaiz batez bestera
dagoen aldea.

Don Joan Txikia zan
berez ataundarra.
Barandiaran zuen
eredu bakarra.
Gizatasunez aundi,
gorputzez kaxkarra,
bearra nun zegoen
ikusten azkarra.
Eta sentitu zuen
lan egin bearra.

Euskera ederrean
bere itz-jokoa,
adar-jotzaillea ta
txantxa-girokoa.
Apaiz alperren aurka
zimurtuz mokoia,
alperkeria ez zan
bere gustokoa.
Zintzoen laguna ta
danen auzokoa.

Egun batean di-da
buzoa jantzita,
lagunen lantokira
egin du bisita.
“Lana bear diat nik”
izketan asita,
nunbait gandulkerian
ezin zan bizi-ta.
Ta nagusiak baietz,
ala ikusita.

Burni tailler batean
lanean asi zan,
beartsuei lagundu
naian apaizgintzan,
elizgizon, langille,
bitako ekintzan.
Gauzak nola okertzen
zaizkigun bizitzan!
Zama bat bizkarrera
erorita il zan.

Bertsozale aundi bat
bizitzatik joan.
Norbaitek goza beza
leku betikoan.
Ez dakit sinistatzen
zuen Jaungoikoan.
Txikia ez, aundia
izan zan don Joan.
Ala esaten dute
Arroa Goikoan.

Arroa Beeko Kantinan

Arroa Beeko errepede-gurutzean zan Kantina deitzen genion terrazako dantzalekua. Terraza txiki bat, baiña oso erromeria-leku polita. Beno, kalabaza gutxi artzen genuen lekua zan guretzat erromeria-leku polita.

Baiña urteko festak, Karmenetan. Gu, ordea, Kantinakoak giñan.

Doiñua: Orioko balearena

Ezin aaztu Arroa
Beeko Kantina,
Gelatxo soiñuz eta
bere orkestina.
Dantzaleku terraza,
aupa Josefina!
Trikitixan oiñutsik
Pantxi ta Martina.

Gelatxok akordeoiz
zer kategoria!
Ta txapelakiko bat
tuturularia.
Danentzat ez zan begi
onez eroria:
dantza kobratzea zan
bere istoria.

Erromeri terraza
ark bazuen sona.
Ordaintzen dan lekua
nunbait beti ona.
“Tuturu” kobratzaille,
deituraz “Gixona”,
edonori ez zaio
deitzen-ta gizona.

Berez Arroan jaiak
dirade Karmenak.
Apaizaren sermoia
ta santiamenak.
Baiña gu Kantinara
joaten giñenak,
geienak erromeri
zalerik fiñenak.

Zestoako Ibaiñarrieta

Santa Kruzetako festetan, jendetzak eta jendetzak izaten ziran bertan. Baiña nik Joxe Manuel Ibar “Urtain” boxeolaria det gogoan. Nola ez det, ba, aipatuko nere liburuxkan?

Doiñua: *Kantatzera nijoa* (Kaxiano)

Festak Santa Kruzetan
Ibaiñarrietan,
zenbat jende urtero
udaberrietan,
automobil ta moto
errepideetan!
Ori betikoa zan
leku politetan.

Joxe Manuel Ibar
Urtaiñen auzoa,
mendi-gain polita ta
naiko erosoia,
Urtaiñek bere doaiz
goraiño jasoia,
kirolari emanaz
bizitza osoa.

Bazian zerbait ire
etxe-atariak
ala biltzeko jende
pilla ugariak,
Santa Kruz jaietako
trikitilariak...
Orain ere jarraitzen
dik erromeriak.

Mutil ura edonork
ezin zuen ausi.
Arri jasotzen ere
bera zan nagusi.
Aurkaririk ez eta
boxeoan asi,
eta Europakoa,
danba!, irabazi.

Ringean aisa dantza
oi ituen perrak.
Aurkariak ikusten
zizkiten senperrak.
A ze ziztuak ire
eskuin-ezkerrak!
Artu genizkian bai
gozatu ederrak.

Zumaiako Oikia auzoa

Oikian, giro onean erromeria ederra egiten zan. Baiña euria zanean, zimitariora. Illundu baiño leen pizten zizkiguten zimitarioko argiak. Eta ori, udaran, San Bartolometan. Zein apaiz ote zan? Zein serora? Zein sakristau?

Doiñua: Errenteriako Magdalenatan

Udara amaieran
San Bartolometan,
urteko jaiak ospa
izan dira bertan:
dantza libre, korroa
plazaren bueltan,
Txankarta edo Mardu
trikiti-lanetan,
eguzkitako dantza
arratsaldeetan.
Bazan anka ariñik
bai garai aietan,
baserriko neskatxa
musugorrietan,
eliza-atariko
erromerietan!

Giro txarrean, berriz,
zimitarioan.
Jarria egoten zan
kalendarioan
edota festetako
imentarioan,
apaizaren baimenez
erauntsi-giroan.
Elizan kantu-otsa
doiñu lirioan,
sakristaua, serora,
errosarioan,
gu tango, pasadoble
ta “te quieroa”,
arri-losa kosketan
ea zer giro an!

Beraz, dantzalekuak
eliz atariak,
naiz zimitariora
eraman euriak.
Auzo askotan ola
jai-erromeriak.
Nola izango giñan
gu pekatariak?
Txurreroak txurroak,
erroskil zuriak,
nexka musugorriak
morenak, rubiak...
Baiña begira: apaiz
predikalariak
orren goiz zertan pizten
zizkigun argiak?



Oikiako eliza.
Orko zimitarioa ere erromeria-lekua genuen, giro txarra zanean.

Getaria

Getariara, Salbatoretan eta San Antonetan egin oi genuen geure bueltatxo. Baiña Getariako festak ez ziran gure dantzaleku aproposenak. Orduan, nesken artean ere erdera entzuten zan, eta guk txakolin-usaira jotzen genuen.

Doiñua: Santa Ageda eskea

Zarauztik lau bat kilometrora
or daukagu Getaria,
arrantzaleen errixka eta
itsasoko ataria.

Mendia eta itsas zabala
biak daduzka parezka.
Atzerritarrak noiznai badatoz
Getariaren galdezka.

Abuztuaren aurren aldian
dituzte Salbatoreak.
Etxean dira arrantzaleak
eta euren baporeak.

Neguko jaien patroia, berriz,
badakizue: San Anton.
Beste santu bat ere badute:
arratoi-mendi San Raton.

Arrai prestatzen maisua dala
deitzen zaio erri orri.
Garesti samar jan nai duena
Getariara etorri.

Erronka pixkat jotzera noa,
naiz ta esaldi txoliña:
mundu guztiko onena dala
Getariko txakoliña.

Balentziaga Museoa ´re
eta bere milla prenda.
Ni ez naiz izan barruan baiña
oso polita omen da.

Museo, portu ta arrantzale,
San Raton eta Getari.
Beti izango zera neretzat
itsasoaren atari.

Orioko San Nikolasak

Oriora, trenean joaten giñan. Baiña etorri, aal genuen bezela. Bein Oriora sartu ezkerro, aaztu egiten zitzaigun nola joan giñan.

Orion, San Pedro dute udarako festa-patroia. Baiña ez aaztu zein santuk agintzen duen Orion: elizan erretaula goian makillarekin dagoen tokaiok. Kaixo, motel.

Doiñua: Orioko balearena

San Nikolas jaietan
parrilla bisigu,
ori usaitu gabe
nolatan bizi gu?
Lanbideen atea
jendeak itxi du.
Jaiak jai egiteko
etorri zaizkigu.

San Nikolas jaietan
jai dute Orion.
Errian nabari da
naikoa zorion.
Santu orri jendeak
ara zer zor dion.
Autsak kentzera norbait
ea joaten zaion.

San Nikolas jaietan
begira portura.
Baporeak lo daude
ta agur tortura.
Umerez alaituta
erriko lotura,
baiña bakoitza bere
txanponen kontura.

San Nikolas jaietan
zenbait lagunartek
bazkari-afariak.
Zenbat lan elkarreek!
Bapo pasatzen zuen
bertsolari batek.
Esan nai nuena zan:
Manuel Lasartek.

San Nikolas jaietan
ori ez da dena.
Arraunlariantzako
ere oroimena.
Oore erraldoi bat
da Oriorena,
Kontxako banderarik
geiena duena.

San Nikolas jaietan
alai eta iaio.
Orio Orio da,
jende danak dio.
Bakoitzari berea
eman bear zaio.
Bisita bat egingo
diat bai, tokaio.

Lasturren ere San Nikolas

Tokaio, tokaio. Izango intzan norbait ere, gure alderdian
patroitzat artzeko. Baiña zerbait ona izango dek, arrantza-
leek eta zezenzaleek onartzen baaute.

Doiñua: Egun da Santimamiña

Deba parteko Lasturra
ez dago bide samurra,
baiña urtean bein benik egin
bearko zaio agurra.

Ospatzeko zenbait jai on
Lasturri zortea daion.
Fede pixka bat izan bearko
bertako patroï tokaion.

Kaixo, tokaio, zer moduz?
Txoko orretan soseguz?
Jendea joaten omen zaik baiña
giro onaren erreguz.

Lastur auzoko eszenak,
erromeri ta zezenak.
Ez dituk iregana joango
festara dijoazenak.

Lasturko San Nikolasak
eta bertako jolasak
ospatuz egin izan dizkitek
sekulako egun-pasak.

Zezentxo ta larrabeiak
astinduz bee eta goiak.
Errebeldekeririk ez bada,
Lasturren ez dituk jaiak.

Jendearen korajeak,
gero zetozek ajeak.
Ire parroki ortako jaiak
dituk naiko salbajeak.

Oitura zaarrez luzitzen
ez ditek xexenik iltzen.
Jolastu bai, bai, aal dan guztia,
ta gero laga bizitzen.

Plazak ondoan ondarra,
lotu gerrian polarra.
An oiñak arin dabilzkiena
ez dek dantzari koldarra.

Erromerian lau egun,
zer geiago bear degun?
Ez dakit baiña Lastur beti da
antolaketan txapeldun.

Ori ez dek delitua,
baizik bikain gelditua.
Lasturren santu egote ori
badek naiko meritua.

Tokaio, izan itzeko
Lastur pakean zaintzeko,
ta Orioko parienteak
eskumuiñak iretzako.

Aia Beea, Santiago erreka

Ara ere trenean joan oi giñan, Santiagotan. Oriotik bertan
bait dago, kilometro bide. Izan ere, gure Aia zaar au ia itsa-
soraiño sartzen da.

Santiago ura festazalea izango zan. Ea zenbat lekutan
aipatu dedan!

Doiñua: Bizkaiko txerriarena

Aiako Santiago
Errekako plazan,
trenean joan eta
jo ta autsa dantzan.
Ango erromeria
ain ospetsua zan...
Ta Torre baserriko
betiko terrazan,
an ere soiñujole
xelebre bat bazan.

Baiña argi ibili
bear ango martxaz,
bertako oitura ta
bertako neskatxaz.
Trikitixan gona motz
aiek gora altxaz,
eta beraiek “somos
chicarronas cachas”.
Beraz, nola luzitu
alako maats-pasaz?

Dantzari egokiak
aiek bai erraz an,
baiña nere antzeko
baldartxorik bazan.
Ta leen aipatu dedan
alboko terrazan,
naiz ta joaten nintzan
dantzarien trazan,
an ainbat kalabaza
ez det iñun jasan.

Aiako Bee aldeko
dantzako tratuak
beti-beti ez ziran
izan onartuak.
Kontatzeko obeak
alako patuak,
“chicarronas cachas” ta
“otxo koartuak”.
Gutxi agintzen zuen
Errekan santuak.

Aizarnazabal

Gurasoen aaideak genituen Aizarnazabalgo pelotaleku eta proba-plazaren alde batean, Mariñaxi Enea etxean. Mutikoa nintzala gonbidatu eramaten ninduten gurasoek. Leenengo idi-dema etxe aren leiotik ikusi nuen, mutikoa nintzala.

Doiñua: *Amerikara noa*

Gogoetan banoa
Aizarnazabala,
erri-kaxko polita
ta jende apala.
Aitaren osaba leen
bertan bizi zala,
gonbidatu San Migel
jaiak eldu aala,
eramaten ninduten
mutiko nintzala.

Mariñaxi Enea
plazaren bestalde,
amonaren anaia
Patxi Lizarralde.
Balkoitzotik begira
bistan parez pare,
proba-plazan probetan
zenbait idi-pare,
an ikusten nituen
kirolak debalde.

Baiña mutil koxkorra
mutil egiten da,
ta Aizarnazabala
kabitik irtenda:
San Migel festatara
sekulako prenda.
Bakoitzaren garaia
beti iristen da.
Ondo pasatakoa
ondo kontatzen da.

Aiako San Pedro baillarako Arizterrazu

San Pedro baillarako Arizterrazu zan –eta da– munduko erromeria-lekua. Ez det uste beste adierazpen bearrik duenik. San Pedrotan amaiketakoa egitera joan eta kito.

Doiñua: *Neskazaar bat tentatzen*

Auzo orrek leen ere
bazuen dultzura,
soiñulari guztien
etxea, kultura.
Erromeri lekua,
ez mojen klausura.
Dantzatu nai duena
Arizterrazura.

Auzo orrek badu bai
erromeri famik,
ta ez orain bakarrik,
beti-betidanik.
Guk ez genuen galtzen
bertarako planik.
Ez da soiñujolerik
an pasa ez danik.

Dantzalekua dute
agerian, bistan,
eta erromeria
jaieroko listan.
Gazte ta zaarrak, danak,
trikitian pistan.
Askotan eman dute
Euskal telebistan.

Aritzen giñan dantzan
makiña bat kirten,
naiz eta geienetan
arraiatik irten.
Dana ondo iñorrek
ez bait du jakiten,
an ez zaio iñori
parrerik egiten.

Soiñu txikia oi zan
bertako orkesta.
Trikiti-kutsuari
jarraipena presta.
Garizumetan ere
egiten zan festa.
Aruntz joaten giñan,
beste iñun ez-ta.

Euskal erromeria
da ango kresala.
Nork esango du ori
polita ez dala?
Leen orrela zan ta
orain ere ala.
Eta urte askoan
jarraitu dezala.

Milla esker ainbeste
trikiti-lekuri,
dantza-aukera eman
izandua guri.
Gaiñera zorionak,
dantzaria, zuri,
ta erreberentzia
Arizterrazuri.

Zestoako Endoia

Zestoatik gora eta gora joan, Lasturtik gora eta gora joan, eta Endoia auzoa aurkituko dezu: elizatxo bat, eskola izandako bat, tabernatxo bat, eta Uztapide bertsolari aundiaren irudia orma batean. Bertan jaioa bait zan Manuel Uzta-pide. Orrekin dana esana dago.

Doiñua: *Anaiak gara lapurditarrak*

Bista ederrez ornitutako
Zestoaren mendi-goia.
Urteko jaien festetarako
Asentsio da patroia.
Uztapideren sorlekua ta
bere izena Endoia.
Beraren ondran itzak idazten
dago Nikolas Zendoia.
Ispillu aren aurrean kendu
nai det zentzutik erdoia.
Beti bertso errikoa
ta itzez itz arrazoa.
Mailla gorengo bertsolaria,
esango nuke eroia.
Nork ez genuen gustoko bere
itz-jokoaren sermoia?

Zeïnen aguro esaten degun
“bai, bai, Uztapide zaarra”!
Baiña begira, aztertu eta
landu dezagun iparra.
Bein Donostian ta zeïnen goian
jarri zigun bere marra:
Endoian amak eman ziola
bertsotarako indarra,
eta geroztik biotz barrura
zetorkiola sugarra.
Ai, egunsenti edarra
joan zala ta negarra!
Jarraitu zuen esanaz “laster
datorkit illunabarra”.
Zu ziñan, zu, gu egunsentian
laga gintuzun bakarra.

Ezin daitezke kendu burutik
Manuelen aipamenak.
Joxe Manuel Lujanbio ark
eman zituen baimenak.
Gutxieneko larogei urtez
beintzat bere oroimenak.
Mugak jartzea gaizki da baiña
aurrera irudimenak.
Ez det esan nai gutxiestatu
bear ditugunik leenak.
Baiña Uztapiderenak,
diogu jende geienak,
ez larogei, ez; gutxieneko
berreun ta berrogeirenak.
Ni ziur nago irukoiztuko
ditula Txirritarenak.

Zarauzko Iñurritza auzoa

Iñurritza edo San Pelaio aipatu gabe ezin laga, mutikotatik inguruan gabiltza eta. Beti esan izan det Zarauzko lekurik politena zala. Gaur ez dakit, Zarautza aundia dago eta.

Doiñua: *Pello Joxepe*

Gaur Iñurritza aipatu gabe
ez det isilik pasa nai.
San Pelaioren jaierekin
ingurumariak alai.
Txistu ta ttunttun, soiñu, pandero,
dantzan eta korruan blai.
Egun orretan Zarauzko erri
osoak egiten du jai.

Egunsentian etxafuegoak
tipi-tapa, taup eta taup,
trikiti eta danbolin-otsa,
kaleetan *jeup eta jeup.*
Jende guztia esnatu naian
ta neu ere esnatu nauk.
Guztiok egin bear degu jai
ta ez bakarrik iru-lauk.

Erri ta auzo ta erribera
guztiek jai azkenean.
Leen ala zan ta orain ere bai,
or jarraitzen du leenean.
Zer ikuskizun ederragorik
jai paketsuen barnean,
Inurritzako arboldi zaarra
jendez betetzen danean?

Leen sagardoa edan izan zan
eta orain txakoliña.
Bat bereala txotxolotzen da,
ortaz bestea txoliña.
Eguerdirako berritsututa,
pufa a ze zepeliña!
Arratsaldean lo egin eta
gauean gauza berdiña.

Au normala da: auzo-jaietan
begietako lausoa.
Zuzentxoena ibiltzen dana
da etxeko gurasoa.
San Pelaiotan Inurritzara
nork ez du eman pausoa?
Erri osoan mozkorrik geien
arrapatzen dan auzoa.

Txintxo oriek zerbait esango
digute bai bearbada.
Zurruta puxkat sanoa da ta
edateari ez laga.
Ta zer arraio, aupa gazteak,
jaietan festa festa da.
Gerora ez da zer kontaturik
ezer egiten ez bada.

Iñurritzako festa-egunak
ez ditut jeitxi nai beera.
Batak besteen aitzaki egin
ta danok berdiñak gera.
Jaien barruan gorde bear da
trago batzuen joera.
Euskal jaietan esaten dana:
mozkortu aala oera.

Debako Elorriaga (Elorrixa) auzoa

Emen ere adierazpen aundirik ez daukat egin bearrik. Gora
Elorrixa eta goraintziak koiñata Mari Karmeni.

Doiñua: Semaforo gorriarena (Amuriza)

Debako partean baiña
goian da Elorrixa.
Giro tajuzkoan aruntz
joaten giñan aixa.
Baiña alderantzizkoan
badu erauntsi-brisa.
Lasai badu aterperik,
lasai badu geriza.
San Sebastian patroï ta
ermitako eliza.
Amar bat etxe auzoan,
an daukate an ditxa!

Toki Alai ostatua
polita politetan.
Koiñata Maria Karmen
etxeakoandre det an.
Bertako sukaldaritzza
leengo era zaarretan,
euskerazko marmarra da
auzoen ateetan,
soiñua eta bertsoa
izango dezu bertan,
joaten baldin bazera
San Sebastianetan.

Asteburuz asteburu
bezeroen bolada,
Santiago bidearen
geltoki ta pasara.
An beti ospatzen dana
pakearen ondra da.
Gaur txakolindegi berri
bat ere bertan bada.
Salda beroa, txorixo-
mutur batekin ara!
Dastatu nai badituzu,
zoaz Elorrixara.

Ikustekoa baita´re
Galarretako gaiña.
Maaitegi berdegune ark
dirudi du jardiña.
Umeentzat, zaarrentzat,
guztiontzat egiña.
Aurrez aurre an daukazu
itsas zabal urdiña,
aintziñako arraldea
politenen berdiña,
ospea Zumaiakoak
izan bear du baiña.

Soiñu, txakolin, bertsoak,
zer paradisu-planta!
Nioen parkean, berriz,
parrillen su-txinparta.
Itsaso ipar garbia
ta ego-aize tanta,
eguzkiak diz-diz eta
mendi-bista galanta.
Pelotaleku txiki bat
besterik ez da falta.
Baiña lasai ori ere
noizbait egingo da-ta.

Azukre-ontzi zaarra

Badegu etxean aspaldiko azukre-ontzi potxolo bat. Oria edo urre-kolore modua.

Azpeitian giñala, ezkondu egin bear genuela-eta, jakiña, etxerako gauzak erosten asi bear.

Gerora etxean agindu duenak zer erosiko eta azukre-ontzia alajaina, Azpeitiko plaza barrenean dagoen ontzi-dendatik. Marka da emakumeen kontua. Aurren samarreko erosketa, gozo-ontzia. Bestela ere orduan dana gozoa izaten dek.

Ori zala mende-erdia pasa da. Ontziak ez dauka leku jakiñik. Etxe guztia du beretzat.

Egazkiñeko pilotuarena gogoratzen zait. Egaldirik ez zuen egun artan, lasai etxean bazkaltzen, eta kafea artzeko:

–Maitia, nun dago azukre-ontzia?

–Ortxe daukazu zure alboan, gizona. Ez dakit nola aurkitzen dezun zuk Detroiteko aireportua, eguraldia laiñope dagoenean.

–Oso errez, maitia: beti toki berean egoten dalako.

Doiñua: Norteko ferrokarrillarena

1. Papera eta lapitzarengan sarritan naiz eroria, ta beroiekin esnatu oi det lozorrotik memoria. Ea bertsoan azaltzen dedan tresna baten historia, mende-erdian etxean degun azukre-ontzi oria.

2. Urteak berrogei eta amar,
ori esaten da laste.
Atera kontu oiek dirala
bi milla ta seireun aste.
Asteko kilo bat azukre bai
eduki du batez beste,
garraiotako kamioi koskor
bat kargatzeko ainbeste.

3. Ez dala gauza izugarria
aste bakoitzez kiloa?
Bi tona eta erdi bakarrik,
a zer azukre pilloa!
Maillaturen bat baduen arren,
urre-antzeko brilloa.
Bere kirtenak dirudi, berriz,
zillarrezko anilloa.

4. Eun urte inguruko bidaiari
bildu giñan elkarrena.
Ontzitxo orrek gure etxea
du bidaiarako tren.
Mende-erdia geratzen zaio
ta neri, berriz, laurdena.
Baiña jendeak ez beza pentsa
zaarkituta gaudena.

5. Naiz ta tarteka barruan sortu
izan zaion masa-kostra,
iñoiz tokatu zait garbitzea;
ez dek samurra, "la ostra".
Pazientzia bear du batek,
ta gaiñera izan "potra".
Errioxarrak esan zidana:
"tira eso, trae otra".

6. Bizilagunak au esan arren,
nola botako diat ba?
Bestalde, daukan zerbitzua ta
daraman urte-illara!
Beste olako patriarka bat
berriz lortzea zaila da.
Norbaitek noizbait jaso dezala
mendeko tresnen maillara.
7. Ospakizunen bat dala-eta
maaia dotore jantzia,
portzelanazko bajillarekin
platertxoei garrantzia.
Baiña kafea datorrenean
iñork ez dauka aantzia.
Norbaitek laster galdetuko du:
“nun da azukre-ontzia?”.
8. Gure umeen umeek ere
ezagutzen dute bera,
or dabilkite eskuen puntan
alde batetik bestera.
Gero beraiek gorde ere bai
txoko ezkutu batera.
Bi-iru aldiz beartu naute
kafe mikatza artzera.
9. Oraingo bixki txikiak, berriz,
dira ortik onerako,
traste guztiak balkoitik beera
botatzen dituztelako.
Amonak dio: “azukre-ontzia
ez dizuet ba lagako;
gaur daukagun au atzokoa da
ta bear degu biarko”.

10. Danen eskutan dabillen gauza
iñoiz ez dago jasota.
Pilotuaren esaldia ere
ezingo degu gorrota.
Beno ba, ea bukatzen dedan
daramadan bertso-sorta.
Bera desegin bearke zaigu,
guk ez degu botako-ta.

Amona Sinforosa

Leku batzuetan badago oraindik oitura kajatxo polit batean Amabirjiñatxoa ethez etxe ibiltzekoa. Gure bizilagunon artean ere ibiltzen dute Andra Mari polit bat. Ia beti amona bat izaten da atean.

–Te traigo la Virgencita. Trátala bien y échenle la limosnita a la hucha.

Au ia eun urte dituen amona Sinforosak esan oi digu atean.

Kalendarioa ere zintzo ekarri oi du Gabonetan: “La María Milagrosa”.

Baiña azken kalendarioa bi euro kobratu digu.

Esan nion ba:

–¡Abuela, abuela!

Betiko txantxak erabili ondoren, eta Amabirjiña maai gaiñean laga ondoren, bertso-sorta au idazteari eman nion, txantxetarako baimena banuela irudituta.

Doiñua: Bizkaiko txerriarena

1. Bizilagun bat degu
amona xaar-xaarra,
ia eun urte ditu,
oraindik azkarra,
maño izkuntzakoa
ta aragoitarra.
Jatorra, baiña nauka
aspertu xamarra,
bere santu-kontuak
ta bere tabarra.

2. Milagrosa polit bat
kajatxo batean
etxez etxe darama
tarteantartean,
“échenle limosnita”
bien bitartean.
Atzo goizean ere
tinbrea atean...
“Traigo la Virgencita”,
menga atakean.

3. “La Virgen Milagrosa”
omen du izena.
Au duela urteko
laugarren kintzena,
eta gure etxera
aialduen goizena.
Bai omen daki premiaz
aurkitzen naizena,
ta emango dedala
limosna gizona.

4. Moja baten antzeko
kontu-jarioa
ta abemariazko
kantu lirioa.
Zintzo errezatzeke
errosarioa,
lortu dezakedala
salbatorioa.
Ta urte berrirako
kalendarioa.

5. Baiña, baiña au da, au,
sermoiaren dona!
Leendabizi eskatu
didazu limosna.
Or dijoaz txanponak
launa eta bosna.
Gero errezatzeko
izateko ona.
Beste aginduren bat
bai al da, amona?
6. Gure bizilaguna,
gure Sinforosa,
bere “Virgencita” ta
bere “Milagrosa”.
Emen uzten didala
“la Niña Hermosa”,
soiñeko urdiña ta
mantala arrosa.
Kalendariorako
bai, bai, aproposa.
7. Onelaxe gabiltza
urtetik urtera,
“Virgencita” gora ta
“Milagrosa” beera.
Baiña azkenaldian
bere portaera,
barkatu bezait baiña
ez da leengo bera,
dexente aldatu da
goizetik gauera.

8. Biktima-aurpegia
aldatu du leendik,
seguruena askoz
geiago barrendik.
Kalendarioa ere
bi euro aurtendik.
Orain ez dakit nola
bidali emendik.
Konfiantza artzea
merkea irten dit.

9. Azken batean dana
ar dezadan broman,
inbertitu bait ditut
ainbeste txanpon an.
Sukaldean jartzeko
egutegi-forman,
naiz baneuzkan bi santu,
San Anton, San Roman,
“la Virgencita” jarri
bearko det orman.

10. Sinforosa “mañoña”,
mantala jantzita,
ia eun urtetara
zera iritsita.
Zuk jarraitu egiten
betiko bisita,
jo txiliña atean
badago itxita...
Zeure “Milagrosa” ta
zeure “Virgencita”.

Au ez da berria

Iaz, 2016ko uztailean, Zestoan bertsopaper-sariketa bat antolatu zuten nere lagun jatorrek eta bertako bertso-eskolakoek. Gaia ere antolakuntzak zeukan jarria. Eta onelatsu zan: “Au ez da berria”. Gaiñera, bertsoak bidaltzen zituenentzat bazkaria zegoen.

Zorionduz eta aupateko bat egiñaz, onako zortzi bertso txiki auek bidali nituen, Ameriketara nengokeen zestoar zaar bat banintz bezala. Izan ere, bazkariaren truk bidaliko ez dituzu ba bertso-moduko batzuk? Bai arraioa!

Egun pasa ederra egin genuen aitzakia artan. Bejondeizuela! Zuek etxerako.

Doiñua: *Gu gira Euskadiko gaztedi berria*

1. Gaztetan nork ez dauka
aize biurria?
Nun da urruti ura?
Nun da atzerria?
Nik ere izan nuen
olako tirria.
Isuri det malkorik,
egin det irria.

2. Itsasontzian jarri
arteko larria.
Gaiñera, utsa izan
balitza ferrya.
Amerikara bidai
bat nekagarria.
Olaxe utzi nuen
Zestoa erria.

3. Albisteak noraiño
egin du korria?
Gure Euskal Etxean
jaso da orria.
Zestoa zaarretik
berri pozgarria:
bertsopaper-leia bat
dutela jarria.

4. Manuel Olaizola
aren sorterrria,
Endoian Uztapide
bere baserrria.
Gaztetan nere lagun
estimagarria,
bertsolaria, berriz,
ikaragarria.

5. Renotik Zestora
ongietorria.
Ea aurkitzen dedan
or zer igorria.
Uso mezularia
betor, betor ia.
Egan eraman dezan
nere jatorria.

6. Sorlekuagan beti
daukat lokarria,
bera izan zalako
nere oiñarria.
Bertsotan ez badiot
bidali neurria,
lasai jarri zazue
tarjeta gorria.

7. Gure txokoan ere
bada aberria,
baiña emen gaudela
auxe da berria...
Oroitzapen-malkoa
zait jaio berria.
Errimiñak zaartzen du,
au ez da berria.

8. Joxemielek ase
nai du egarria.
Zor dedan bisita bat
det iragarria.
Bertsolari-seaska,
o, Euskalerrria,
airean joango naiz
urez etorria.

Arantzazura bidean

Urtea 1966a edo 1967a izango zan. Beraz, orain beteko zituzten bertso aiek berrogeita amar urte.

Orduan urtero egiten zan Oñatitik Arantzazurako igoe-ra gauez. Mutillen igoera zan eta oiñez. Ni ere joan nintzan urte artan, bertso paperarekin gaiñera, altabozetik kantatzeko asmoz, Agirretxe fraile aundiak utzi ez baziran ere. Bera bait zan izlari, kamioi baten gaiñetik eta altabozetik.

Nere leenengo bertso-sorta zan, an egingo genuen igoe-rari buruz prestatutakoak. Baiña Agirretxe zaarrak bi ba-karrik kantatzen utzi zidan.

Gaur, pena bakarra daukat: nere leenengo bertso-sor-ta ura galdu izana. Baiña orrek badu erremedioa: aren or-dezkoak moldatzea.

Doiñua: *Gaueko izar argitsuena*

1. Kaixo, lagunok, bagoazela
bide-aldapatan gora.
Presarik gabe ta tipi-tapa
badegu naiko denbora.
Iru-lau milla izango gera,
bagenekien jo nora:
Arantzazura, danon zai dagon
Ama zaarraren ondora.

2. Itxaropenez urbildu gera
ilusioa pizteko,
ingurumariak zer dioen
irrikitzen jakiteko.
Millaka gazte prest gaude beraz
bideari ekiteko.
Zer aitzakia politagorik
billera bat egiteko?
3. Ez dakit ziur nungoak baiña
leku askotatik gatoz.
Olako elkarganatze batek
benetan ematen du poz.
Irrati-moduko eta kable,
argi, Land Rover, altaboz...
Baiña polizia motoristak
naiko gertuan badatoz.
4. Pakea al da bearrezkoen
ala bizitzea fedez?
Nortanai ere gaur Arantzazuk
egin dezaigula babes.
Egunez lortu ezin deguna
eskatu dezagun gauez.
Zintzoak izateko prest gaude,
tontoak izateko ez.
5. Kilometroa ta geiagoan
bidea da bete-bete.
“Joan zaitezte errespetuan”,
ori entzun degu laste.
Dana otoitza ta sinismena
dakarkigunik ez uste.
Askatasuna ta pakearen
eske gatoz ainbat gazte.

6. Aita Agirretxe zaarra ere
or daramagu sermoian,
berak nai dituenak esanaz
kamioiaren bagoian.
Mintzatuz aberatsen distiran
ta beartsuen erdoian.
Jainkoak ere bi omen dira:
bat been, bestea goian.
7. Goazen, mutillak, goitxoan gera
been abitu geranak.
Dagoeneko entzuten dira
kanpaien dilin-dalanak.
Arantzazura gerturatutzen
leen urrutian giñanak,
piztu dituzte argi guztiak,
ta zabaldu ate danak.
8. Meza santua bageneukala
goizaldeko iruretan.
Errezatzeko gogo aundirik
ez da izango guretan.
Bokadilloak jaten jendea
lurrean ta petrilletan.
Zaato ardoak ere ustuta
gero lo-kuluxkak bertan.
9. Jan eta trago egin ondoren
logureak nabarmendu.
Bederatzi bat kilometroan
ibilaldiak iraun du.
Ta Arantzazu distiran dago,
ez du arratsik illundu.
Naiz ta puxka bat nekatu geran,
azken polita izan du.

10. Lo zaudetenok esna zaitezte,
triste daudenak alaitu.
Lagun berriak egin ditugu
ezezagunak anaitu.
Ama zaarraren atari onek
ez gaitu gutxi lasaitu.
Urrengo urte arte, mutilok,
Jainkoak ondo bagaitu.

Getariako balea

Kontu berria da au: 2017ko urtarrilaren 2koa.

Ingurumari guztia or egon giñan bi edo iru egunean Getariako uretara begira.

–Ara, ara! Azaldu da eta.

–Ara, ara! Ezkutatu da.

–Orain andik pasako da.

Danok jakitunak giñan. Batzuk, zer liburu eta zer istorioak irakurriak. Besteak, Santoñan ogeita amar metrokoa ikusia... Amen.

Derrigor bertso-sorta idatzi bearra zegoen. Orion ere badira beintzat-eta balearen bertsoak. Baiña guk bizirik bidali degu Getariatik. Ez degu il.

Bai. Badakit zarauztarrek ere il zutela balea, bertsoak ere jarri zizkiotela, eta Donostiako Akuariumean daudela aren ezurrak. Baiña oiek kontu zaarragoak dira, eta nik batez ere oriotarrak zirikatu nai nituen³.

Doiñua: Orioko balearena

³ Baleak badu beste bertso-sorta bat ere: Donostian 1854an harrapatu zutenari jarria. Zarauztarrek, berriz, 1878an harrapatu zuten; eta oriotarrek, 1901ean. Hiru bertso-sortak jaso zituen Antonio Zavalak *Arrantzaleen bizitza* liburuan (Auspoa, 133; 1978), argibide askorekin batera. [Editorearen oharra]



Getariako portuan, 2017ko urtarrilaren 2an,
bederatzi metroko balea, atzean baporea duela.
(Argazkia: Hitza Urola Kosta)

1. Bi mila amazazpi
ilbeltzaren bian,
arratseko amar ta
erdiak aldian,
bale aundi bat sartu
zala Getarian.
Txakolina dastatu
nai zuen agian.

2. Itsas farola goian
ari zan bristaka,
San Antongo menditik
errainuz txispaka,
larrialdietako
keiñuak tiraka:
balea zebilela
portuan biraka.

3. Jendea erretiran
otz zegoelako,
portuan jaun ta jabe
balea galako,
Oriora joaten
beldurtu zalako,
an familiako bat
il ziotelako.

4. Farolak erriari
keiñuz aitormena,
dozena bat metroko
bale grisarena.
Purrustadak boteaz
portuan barrena
Getarira sartu dan
arrai aundiena.

5. Iru bat egunetan
baleak bisitak.
Bitartean errira
urbiltzen turistak,
nola ez?, irratiak,
berdin telebistak,
baporeen kapitain
eta makinistak.


6. Jakitunak bla, bla, bla,
kofradian, prentsan,
sermolari faltarik
ez genuen ez an.
Baiña beste kontu au
ez ziguten esan:
arra ala emea
ez dakigu zer zan.

7. Isatsa astinduz
lasai paseoan.
Jende askok zioten
beren deseoa:
disekatuta jarri
ezazue doan
Balentziaga deitzen
zaion museoan.

8. Baiña ortarako il
bearbada baldin,
ez, ez, olakorik ez,
zergatik eman min?
Joan bedi norabait,
ar beza atsegin.
Orioko berdiña
ezingo da egin.

9. Salbu irten zan beintzat
Getariko langan.
Gizajoa auskalo
nora joana dan.
Kontxan agertu leike
urrengo boladan,
San Sebastianetan
aurren danborradan.
10. Akuariuma dik
Kontxaren auzoak,
bere ondoan Urgull
mendiko basoak.
Arraien museoa
zeukak itsasoak.
Aitonaren ezurrak
an dauzkak jasoak.
11. Balea, iaz izan
baintza bidaian
ta Getarira partez
agertu Zumaian,
pelikulak grabatzen
zebiltzan garaian,
protagonista intzan
arraldeko baiian.
12. Balea, ez genian
asmo txarrez bultza.
Gaizkillea izango
baintzake, utsa.
Nora ezik baabil
aruntza-onuntza,
ondo artuko augu
ta ator Zarautza.

13. Baleen eremua
itsas sakonduan,
gugandik urrutian
milla bat leguan.
Etorri adi lasai
turista moduan,
nai badek udaran ta
nai badek neguan.



Nere aurreko iru liburuen senidea da laugarren au. Izenburua asmatzen ez zegoen zaila.

Emengo bertsoetan danetik dago. Batzuk, anemengo sariketetara bidaliak ditut. Sarituak ere badira tartean; saritu gabeak ere bai; auek geiago. Beste sorta batzuk etxerako eta lagunarte-girorako egin nituen. Auek beren saria badute: umorearen saria gutxienez, eta ez da txarra. Nere idazlanetan, umore-puntuaren islada zaindu nai nuke.

Danak batera ikusita, naiko uzta koloretsua osatzen dutelakoan nago.

Aurrez esker on, bertsozale. On dagizula. Birtartean, birigarroa badijoa bosgarren kabiaren bila.

Nikolas Zendoia



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ORAIN
GIPUZKOA

ISBN 978-84-7907-763-1

